



HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK HAUR-HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOAN

Curruculuma Eratzeko eta Irakasleen
Prestakuntzarako Institutua

Hezkuntza Behar Berezien Esparrua

DoKumento honen egilea:

Alicia Sáinz Martínez

Partaideak:

María Pardo Castillejo

Angel de Carlos García

Amaia Arregui Martínez

M^a Luisa Jaussi Nieva

I. SARRERA

Haur guztien garapena bultzatzeko aukera ezin hobea eskaintzen du Haur-Hezkuntzak. Jadanik martxan den Hezkuntza-erreformak etapa horren hezkuntza-izaera onartzen du eta eskolak bertara heltzen den haur bakoitzaren ezintasunak antzeman eta konpentsatzeko orduan duen eginkizuna azpimarratzen; hortaz gain hazkuntza eta garapen pertsonala indartzen dituen aukera oparoak eskaintzeko leku pribilegiatua ere bada eskola.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren ikuspuntutik begiratuta, eskola are garrantzitsuagoa da, dituzten eragozpenak konpentsatzeko, garapena egoki bultzatzeko eta gerora izan dezaketen hainbat premiari aurrea hartzeko anitz aukera eskaintzen baitie. Izan ere, haurrak txikiak direnean somatzen dira bakoitzak dituen premiak, hortaz, garai horretan hasi behar dira esku-hartzeko eta laguntzako programak. Honako lana burutzeko orduan lehentasuna eman diogu haur guzti-guztiekin normalizatutako ingurune bateko partaide izan beharri, hori horrela, ondokoa da kontuan izan dugun abiapuntua: gizarte-ingurunean integratzea ezinbestekoa dela neska-mutikoek euren gaitasunak ahal bait gehien garatzeko.

Ondoko dokumentu hau Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen Prestakuntzarako Insititutuak (CEI-IDC) landu du, bertako Hezkuntza-Premia Berezien eta Haur-Hezkuntzaren arloak hain zuzen ere, hezkuntza-premia bereziei buruz aurretik plazaratu diren materialetan jorratutakoarekin jarraitzeko asmoz. Honako honetan, hezkuntzako etapa guztietan aurki daitezkeen hezkuntza-premia bereziei buruzko orientabideak nolabait osatzeko, Haur-Hezkuntzako bigarren zikloa izango dugu aztergai, hots, haurrek 3 urte dutenetik 6 urte bete arterainoko epea. Horrelako adin txikietan garapenak ezaugarri berezi batzuk dituela kontuan izanda eta adin horretako haur gehienak eskolatuta daudela aintzat hartuta, ziklo horretan gerta daitezkeen hezkuntza-premia berezien gainean propio egindako dokumentu bat, premia horiei erantzun egokiak emateko bidea erakutsiko duen dokumentu berezi bat izatea ezinbestekoa zela iruditu zaigu.

Haur-Hezkuntza haurrak bilakaera-prozesuan dauden etapa denez, bertan aurki daitezkeen hezkuntza-premia berezitariko asko aldi baterakoak dira, etapa horretan haurren garapen-erritmoak ugari eta desberdinak baitira. Bestalde, nabarmentzekoa da inguruneak eta

hezkuntza-ihardunak eragozpenak konpentsatzeko eta hezkuntza-premia bereziak nolabait konpontzeko orduan duten garrantzia. Horregatik eta, hezkuntza-premia hutsak eta hezkuntza-premia bereziak bereizten dituen zedarrria zenbaitetan lauso samarra agertzen delako Haur-Hezkuntzan, haur-eskolan ezinbestez konpentsatu beharreko egoerak planteatuko ditugu honako dokumentuan. Horretaz gain, hezkuntza-premiak luze-zabal deskribatuko ditugu, arruntenetatik hasi eta berezietara edo larrietara heldu arte. Premiak deskribatu ez ezik, hezkuntza-ihardunak premia bakoitza intentzionalki konpentsatzeko eman behar dituen erantzunak ere jorratuko ditugu.

Dokumentuak lau kapitulu ditu. I. kapituluan Euskal Autonomi Elkarteko Haur-Hezkuntzaren Diseinuaren nondik-norakoen berri bildu dugu. II. kapituluan hezkuntza-premia bereziei buruz arituko gara, zehazki esanda, hezkuntza-premia bereziak antzemateko eta hezkuntza-ihardunaren bidez konpentsatzeko jarraipide praktikoa orokorrak adieraziko ditugu. III. kapituluan are sakonago aztertuko ditugu ikastetxean hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia emateko egin daitezkeen aldaketak, irakasleei ikastetxean eta ikasgelan iharduteko erremintak luzatuko dizkiegularik bide batez. Bukatzeko, IV. kapituluan, irakasleek Haur-Hezkuntzako ikastetxeetan gehien aurkitu ohi dituzten hezkuntza-premia berezietariko batzuk aipatuko ditugu. Kapitulu guztietan gaia gehiago jorratzeko bidea emango dizuen oinarrizko bibliografia proposatuko dizuegu eta baita ikastetxean landu daitekeen zenbait iharduera edo hausnargai ere.

Helburu argi bat buruan egin dugu lan hau, hots, erabakiak hartzeko orduan baliagarri gerta daitezkeen irizpideak finkatzea eta Haur-Hezkuntzako profesionalei erreminta erabilgarriak luzatzea, eskolara hezkuntza-premia bereziak dituztela heltzen diren haurrei hobetzen eta garatzen laguntzeko, hezkuntza-premia berezi horiek ulertu, antzeman eta behatzeko eta bertan esku hartzeko modua izan dezaten.

HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK HAUR-HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOAN

AURKIBIDEA

SARRERA	1
I. HAUR-HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK	3
Zein da lege-esparrua?	4
Nola dago antolatuta Haur-Hezkuntza?	5
Zer xede du Haur-Hezkuntzak?	6
Nola dago antolatuta curriculuma?	8
Zeintzuk dira irakaskuntza-ikaskuntzaren printzipioak?	9
Nola dago planteatuta aniztasunaren trataera Haur-Hezkuntzan?	10
✍ Gehiago jakin nahi izanez gero	
? Ikastetxean hausnartzeko	11
II. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK HAUR-HEZKUNTZAN	12
Zer dira hezkuntza-premia bereziak?	13
Zer-nolako ezaugarri psikologikoak ditu Haur-Hezkuntzak?	15
Zer-nolako hezkuntza-premiak daude Haur-Hezkuntzan?	23
1. Nortasunaren eta Autonomia Pertsonalaren eremuarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak	25
2. Ingurune Fisiko eta Sozialaren eremuarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak	34
3. Komunikazio eta Errepresentazio-eremuarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak	42
4. Curriculumerako sarbideekin zerikusia duten hezkuntza-premiak	
5. Familiekiko harremana bultzatzeko beharra	57
✍ Gehiago jakin nahi izanez gero	
? Ikastetxean hausnartzeko	59

III. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEI EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

Nola erantzun hezkuntza-premia bereziei?	60
Hezkuntza-premia bereziak eta Curriculum-Proiektua	63
Hezkuntza-premia bereziak eta Ikasgelaren Programazioa	67
Curriculum-Egokitzapen Indibidualak Haur-Hezkuntzan	76
Haur-Hezkuntzan geratzeko irizpideak	79
Curriculum-Egokitzapenak egiteko prozesua	81

✍ Gehiago jakin nahi izanez gero

? Ikastetxean hausnartzeko 88

IV. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEN GIDA 89

1. Down-en sindromea duten haurrak	92
2. Garapenean atzerapen globala duten haurrak	95
3. Haur autistak	98
4. Ikusmen-defizita duten haurrak	101
5. Entzumen-defizita duten haurrak	104
6. Mugimen-ezintasuna duten haurrak	107
7. Esfintereen kontrolean atzerapenak dituzten haurrak	110
8. Gutxiengo etnikoetako edo baztertutako kulturetako haurrak	113
9. Tratu txarrak pairatzen dituzten haurrak	116
10. Hezkuntza-premia bereziak dituen haur baten familia	119

✓ Ezaugarriak

✋ Zer egiten dute ongi?

* Zer-nolako eragozpenak dituzte?

⊕ Nola lagun diezaiekegu?

✍ Gehiago jakin nahi izanez gero

VI. ERASKINAK 122

Adibide gisakoa	123
Haurren komunikazioaren behaketa-eskala	124
Haizea eskalaren erregistroa	130
Esfintereen kontrolerako erregistro-orria	131
Familiarekin estraineako elkarrizketa prestatzeko eredua	133

AURKEZPENA

Gaur egun martxan dagoen Erreformatik haur hezkuntzari hezkuntza-izaera imprimatzen dio, alde batetik, bertan aurre-hartzeak, ahal den azkarren hezkuntza premiak antzemateak eta haur guztien eta bakoitzaren ezintasunak konpentsatzeak azpimarratzen duelarik.

Beste alde batetik, egite erreala eta heldatua da gure lurraldean familiak lehenengo urteetatik sartzen dituztela bere haurrak ikasteetxetara, gertaera honek neska mutikoen premiak hainbat eta azkarren detektatuz eta berariazko eta egokiago den hezhuntza esku-hartzearen bitartez, garatzeko posibilitate handiagoak sortarazten ditu.

Lehenengo urte hauetan umeen garapenerako aldaketa ugari, azkarrak eta aldakortasun handiarekin gertatzen dira umeen ganapanerako, horregatik, ezin dugu esan gabe utzi haurren garapenerako une desberdinetan ager daitezken premiak konpentsatzeko nolako garrantzia duen bai eskolak bai bakarkako eta taldeko eskuhartzeak.

Egite honek garrantzi handiagoa hartzen du oraindik, haurrek nolabaiteko hezhuntza premia bereziren bat dutenean; goiz hezkuntza eginkizuna, norbanakako premiei egokiturik, berdinekin sozialgintza, familiei orientabideak,..., neska mutilengan eragin eta garapen ezin hobea lortzeko garrantzi handiko hezkuntz ekintzak ditugu.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritzak, Haur Hezkuntzako lehenengo urteak, haurren garapenerako eta familien ongizaterako duen garrantziaren jakitun egonez, etapa honetan lan egiten duten profesionalen hezkuntza praktika gidatu eta sendotzeko informazio eta orientabideak eskaintzen ditu laguntza bezala, Haur Hezkuntzako ikastetxe bakoitzak desberdintasunen ulerpenerako toki bat izan dezan, halaber, haurren ongizaterako eta beraien garapenaren bultzapena.

Argitalpen honen helburua, goizaroko, aurre-hartze eta garapena ahalbidetzen duen erantzun bat emateko orientabide didaktikoak eskaintzea litzateke, hezkuntz premia bereziak dituzten neska mutilei bereziki zuzendurik.

Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza honen nahia zera da: honako materialeak ikastetxeko profesionalen arteko sormena eragin dezaten, haurren eta familien arteko desberdintasunak onartzeko, eta Hezkuntz Premia bereziei erantzun ahal izateko, beharrezkoa dugu hezkuntz komunitate bakoitzak, bai proiektu zein helburu bateratua edukitzea, ulerker eta integratzaile era batez bultza dezan.

Edurne Gumuzio Añibarro
PEDAGOGI BERRIKUNTZARAKO ZUZENDARIA

I. HAUR-HEZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Kapitulu honetan Euskal Autonomi Elkartean Haur-Hezkuntza dela-eta proposatutako printzipio eta xedeak azalduko ditugu labur-labur. Haur-Hezkuntzari buruzko Dekretuan eta Oinarrizko Curriculum-Diseinuan jasotako funtsezko orientabideak laburbilduko ditugu bertan. Izan ere, orientabide horiek hezkuntza-premia bereziei aurrea hartzeko beharrari eta arestian aipatutako hezkuntzako etapan gertatu ohi diren berezitasunak eta ezintasunak konpentsatu beharrari buruzkoak dira.

ZEIN DA LEGE-ESPARRUA?	4
NOLA DAGO ANTOLATUTA HAUR-HEZKUNTZA?	5
ZER XEDE DU HAUR-HEZKUNTZAK?	6
NOLA DAGO ANTOLATUTA CURRICULUMA?	8
ZEINTZUK DIRA IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZAREN PRINTZIBIOAK?	9
NOLA PLANTEATZEN DA ANIZTASUNAREN TRATAERA HAUR-HEZKUNTZAN?	10
\ Gehiago jakin nahi izanez gero	11
? Ikastetxean hausnartzeko	11

ZEIN DA LEGE-ESPARRUA?

Urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE) oinarri-oinarrizko aldaketa ezarri zuen estraineko kapituluan, 0tik 6 urtera bitarteko etapak, derrigorrezkoa izan gabe ere, duen hezkuntza-izaera onartu zuenean.

Lege orokorra izan arren, Haur-Hezkuntzari, ikasle-aniztasunari eta hezkuntza-premia bereziei eman beharreko erantzunari zuzenean eragiten dizkieten puntu batzuk aipatzen dira bertan. Hona hemen zenbaiten berri:

* Aukera-berdintasunaren printzipioa: desberdintasunei aurrea hartzeko eta horiek orekatzeko etapa bilakatzen du printzipio horrek Haur-Hezkuntza, ikasle guztientzat ahalik eta baldintza egokienak bermatzen saiatu behar delarik bertan (I. kapitulua).

* Normalkuntza eta integrazio-printzipioak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna gidatzen dutenak (V. kapitulua, 36. art.).

* Aldi baterako edo etengabeko hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei egin beharreko arreta, ezinbestekoa baita ikasle guztientzat ezarritako helburuak lor ditzaten (V. kapitulua, 36. art.).

Euskal Autonomi Elkartean, eskolak aniztasunak konpentsatu eta integratzeko duen eginkizun hori Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak zehazten du. Hain zuzen ere, ondoko artikulua hauean aipatzen dira Haur-Hezkuntza eta hezkuntza-premia bereziak:

* *"...guztiak arian-arian zero urterekin eskolatzea ezarriko du, [...] Lehentasuna izango dute gizarte eta ekonomi maila apalenerako aldeek eta, orokorrean, hezkuntza-premia bereziak [...] dituzten ikasleek."* (II. Titulua, 9.art.).

* *"... gorputz nahiz adimen-ezintasunak dituztenei laguntzeko banakako neurriak hartzeko ahaleginak egingo dira. Hezkuntza-premia bereziak aurrezaintzeko, garaiz antzemateko, testuingurua kontuan hartuz ebaluatzeko eta premia berezi horiei erantzun egokia emateko neurriak hartuko dira."* (II. Titulua, 10. art.).

1992ko abuztuaren 11ko Dekretuak Haur-Hezkuntzako curriculuma finkatu zuen eta Haur-Hezkuntzako Bigarren Zikloan 1992-93 ikasturteetatik hasita ezartzeko arauak eta orientabideak zehaztu. Hona hemen horren guztiaren laburpen gisakoa.

NOLA DAGO ANTOLATUTA HAUR-HEZKUNTZA?

Egitura berriaren arabera, hezkuntza-sistemaren lehen katemaila gisakoa da Haur-Hezkuntza, 0tik 6 urtera doan aldia hartzen du eta ez da derrigorrezkoa. Estraineko etapa hori bi ziklotan banatuta dago: 0 urtetik 3ra bitartean eta 3tik 6ra bitartean; Haur-Hezkuntzako Lehen eta Bigarren Zikloak dira horiek. Bi ziklotan zatituta egonik ere, horrek ez du esan nahi batak bestearekin zerikusirik ez duenik, bakoitza haurren bilakaeraren une desberdinei dagokien arren eta ziklo batetik bestera aldaketa kualitatiboak egon arren, lotuta baitaude biak. Gizakiok haurtzaroan izan ohi dugun garapenak ildo bati jarraitzen dio beti, alabaina, etapa bi ziklotan banatuz gero, haurren garapenaren erritmo berezietan eta heltze-prozesu berezietan hobe jabetzeko aukera dugu, hortaz, aipatu adinetako haurren ezaugarriari eta berezitasunei egokitzen zaizkien hezkuntza-estrategiak ezartzeko modua ere izango dugu.

Haur-Hezkuntzako Lehen Zikloa: 0tik 3 urtera bitartean

Ziklo horretan, hau da, haurrak 0 urte dituenetik 3 betetzen dituen arte, aldaketa izugarri esanguratsuak gertatu ohi dira bere garapenean: bere gorputza ezagutzen, menperatzen eta onartzen hasten da, bere buruaren eta inguruan dituen pertsonen artean berezitasunak ezartzen. Arian-arian pertzepziozko eta mugimenezko trebetasunetan halako doitasun eta zalutasun bat eskuratzen du, alde batetik bestera joateko modu desberdinak erabiltzen ikasten du, hizkuntza ikasten hasten da, afektibotasuna eta gizarteratzea indartzearekin batera. Aurrerapen horiei guztiei esker, autonomia gehiago du haurrak, helduekiko loturak askatzen hasten da nolabait, komunikatzen, bere gurari eta zirraren berri ematen. Mugimen, pertzepzio eta hizkuntz alorreko trebetasunak eskuratuta dituztela, 3 urteko haurrak bestelako hezkuntza-testuinguru batean koka ditzakegu, trebetasun horiek guztiak garatzen jarraitzeko modua emango dien testuinguru batean, hain zuzen ere.

Haur-Hezkuntzako Bigarren Zikloa: 3tik 6 urtera bitartean

Ziklo horretan, aurrekoaren jarraipena baita, lehen eskuratutako trebetasun guztiak finkatzen eta areagotzen dira. Haurrak pertzepzio-gaitasuna eta zentzumenezko nahiz mugimenezko trebetasunak bikaintzen ditu eta, gizartean parte hartzen duen heinean, egozentrismoa alde batera uzten du. Irudimena, gaitasun sinbolikoa eta jolasteko gaitasuna areagotzen zaizkio. Helduei eta bere buruari galderak egiten dizkie, emaitzak iragartzen eta, inguratzen duen mundua aurkitu ahala, objektuen nozioak eratzen ditu, objektuen nahiz gertakarien arteko harremanak, korrespondentziak eta alderaketak ezartzen. Lexiko gehiago eskuratzen du, sintasi-sormena hobetzen da, 2 Hko hizkuntz gaitasuna eskuratzen ditu eta hark adierazitako perpausak gero eta konplexuagoak bilakatzen dira. Haur-Hezkuntzaren etapa hau bukatu ostean, bere buruarekin eta besteekin adiskidetasunean bizitzeko, ingurunea interpretatzeko eta aurrerantzean kultura jakin batean antolatuta dagoen gizarte-mota zehatz baten partaide izateko modua emango dioten oinarrizko trebetasunak eskuratuak izango ditu dagoeneko.

6 urte	2. Zikloa
5	
4	
3	1. Zikloa
2	
urte 1	

ZER XEDE DU HAUR-HEZKUNTZAK?

Haurren bizitzako lehen urteak guttiz funtsezkoak dira nortasuna finkatzeko; hau da, gizarte, ezagutza, mugimen eta oreka pertsonalari dagozkien eremuetan garapen osoa lortzeko. Izan ere, Haur-Hezkuntzak ***xede nagusi bat du zentzu horretan, haurren erabateko garapena bultzatzea, alegia.***

Gaitasunak eta trebetasunak bultzatzea eta harremanetarako edo elkarbizitzarako baloreak, jarrerak eta arauak indartzea da etapa honetako hezkuntza-ihardunaren xede nagusia. Esan dugun bezala, bizitzako estraineko urteetan funtsezko aldaketak gertatzen dira

haurren bilakaera-prozesuan eta une desberdinak eta erritmo desberdinak aurkitu ohi ditugu bakoitzaren heltze-prozesuan. Hori dela eta, kausitzen ditugun egoera bereziei eta hezkuntza-premiei ahalik eta erantzun egokienak bilatzen saiatu behar dugu etapa honetan.

Haur-Hezkuntzaren helburu nagusia azpimarratzeko asmoz edo, zera esan dezakegu, funtzio bikoitza duela, hots:

*** Urritasunei aurrea hartzeko une aproposa da.**

*** Desberdintasunak konpentsatzeko unea ere bada.**

Desberdintasunak ondokoen erruz sortzen dira:

- Gizarte, kultur nahiz ekonomi ingurunearen erruz.
- Garapen eta bilakaera-prozesuaren erritmo desberdinen erruz
- Garapenean gertatutako ezintasun edo nahasteen erruz.

Haur-Hezkuntzaren asmoak eskola-ibilbide horretan bertan bultzatu beharreko gaitasun batzuetan gauzatzen dira; gaitasun horiek osatzen dute, hain zuzen ere, curriculumaren lehen zehaztapen-maila. Hona hemen gaitasunak, ondoko helburu orokorretan bildurik:¹

** Arian-arian norberaren gorputza aurkitzea, ezagutzea eta kontrolatzea, beren buruari eta nortasun sexualari buruzko irudi positibo bat eraikiz, beren ekintza nahiz adierazpeneko gaitasun eta mugak baloratuz, eta oinarritzko osasun nahiz ongizate-ohiturak hartuz.*

** Gero eta era autonomoago batean ihardutea, beren eguneroko ihardueretan, segurtasun afektibo nahiz emozionala lortzea eta ekimenerako gaitasuna nahiz norberarekiko konfidantza garatzea.*

** Gero eta eremu zabalago batean harreman sozialak eraikitzea, entzuteko jarrera berenganatuz, eta beren interes, ikuspuntu eta ekarpenak besteekin lotzen ikasiz.*

** Helduekin eta beren lagunekin harremanak izatea, afektuzko adierazpenak elkarbanatuz, aniztasuna errespetatuz, eta laguntza nahiz elkarlaneaneko jarrerak garatuz.*

** Ingurune hurbila jakinminetzko eta ardurazko jarreraz behatzea eta aztertzea, inguru hori osatzen duten elementuen ezaugarri eta propietate esanguratsuenak identifikatuz, eta haien artean sortzen diren erlazioetariko batzuk antzemanaz.*

** Beren inguruko zenbait kultur adierazpen ezagutzea, eta haiekiko errespetu, interes eta parte-hartezko jarrerak garatzea; ingurune hurbiletako beste kultur adierazpenekiko interes eta errespetua lantzen hastea.*

¹ Haur Hezkuntzako Oinarritzko Curriculum-Diseinua. Gasteiz. 1992. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

* *Bizi, ezagutu edo irudikatu duten errealitatearen alderdi ezberdinak errepresentatzea eta gogoratzea, eta jolasak nahiz beste errepresentazio eta adierazpen-forma batzuk eskaintzen dituzten aukera sinbolikoen bitartez adieraztea.*

* *Hitzezko lengoaia ohizko komunikazio-egoeretara egokitzuz erabiltzea, besteek diotena ulertzeko eta ulertua izateko, beren ideia, sentimendu, esperientzia eta desioak adierazteko, esanguren eraikuntzan aurrera egiteko, norberaren jokabidea arautzeko eta besteengan eraginik izateko.*

* *Beren adierazpenezko ahalmenak aberastea eta zabaltzea, eskura dituzten baliabideen bitartez; beren adinari dagozkion adierazpen artistiko ezberdinak ezagutzea eta haietaz jabetzea.*

NOLA DAGO ANTOLATUTA CURRICULUMA?

Haur-Hezkuntza oinarrizko gune bat da eskolatzearen barruan, non haurren gaitasun, erritmo eta heltze-prozesuen heterogeneotasuna somatzen den, eta heterogeneotasun horrek eragina du eskolako curriculum antolatzeko orduan. Curriculumean haur guztiek ikasi beharrekoa ezartzen da, baina hala izanik ere, irakasle-taldeei ikasle bakoitzaren premia, jatorri eta ezaugarrien arabera egokitzapenak egiteko aukera ematen zaie, beti ere ikasleen berezitasunak kontuan hartuta, jakina.

Garapenaren estraineko etapan, ingurunetik jasotako esperientziekin estu lotuta daudela eraten dira ikaskuntzak; halaber, esperientziei esker, ezagutzak, baloreak eta jarrerak berenganatu ditzakete haurrek. Ingurunea aintzat hartuta, beraz, irakaskuntza-ikaskuntza iharduerak ***esperientzi eremu*** batzuen inguruan egituraturatzen dira, eta esperientzi eremu horien barruan hezkuntzako edukinak zehazten, hala nola, jarrerazko edukinak, prozedurazkoak eta kontzeptuzkoak.

Haurarentzat bereziki esanguratsuak diren eremuak ondoko hirurak dira: alde batetik, haurra bera, bestetik, ingurunea eta, azkenik, haurren eta ingurunearen arteko harremana. Horrexegatik, hain zuzen, irakaskuntza eta ikaskuntza honako hiru eremu nagusien inguruan egituratuta daude:

Nortasunaren eta Autonomia Pertsonalaren eremua

Eremu hori pertsonaren ezagutzei eta norberatasunaren nozioari dagokie, ingurunearekin kontaktuan eraten direlarik biak. Eremu horren oinarria *Niak* osatzen du, hots, pertsonak berak, gorputzak eta alderdi afektiboek, autoistimua, gorputzaren irudiak eta mugimen nahiz jolas-adierazpenek. Helduekiko eta adin bereko kideekiko elkarreraginek eta irakasleek haurren ekimenak jasotzeko

moduak ekintzarako eta harremanetarako baliabide ugari bultzatzeko bidea ematen dute.

Ingurune Fisiko eta Sozialaren eremua

Ingurune fisiko eta sozialak haurren testuingurua osatzen du; bertako elementu, espazio, baldintza eta egoerei buruzko erreferentziak eskuratzen ditu haurrak. Testuinguru horretan ezartzen ditu objektuekiko, gertakarietarako, kideekiko eta helduekiko lehen harremanak. Elkarreragin horiek zuzeneko eragina dute garapenean eta balore jakin batzuen eraketan, testuinguru bakoitzean nagusi diren aldagai soziokulturalen arabera. Haurrek bizi diren eremu guztietan egiten dute topo ingurunearekin: familian, eskolan, auzoan, herrian eta baita hirian ere.

Komunikazio eta Errepresentazio-eremua

Haurren eta ingurunearen artean harremanak ezartzeko eta ezarrita daudenak hobetzeko balio duten mintzaira guztiak barne biltzen ditu eremu horrek. Komunikatzeko bide desberdinak, hala nola, ahozko mintzaira, musika-mintzaira, mintzaira plastikoa, matematika-mintzaira, etab., ideiak, pentsamenduak sentipenak eta bizipenak adierazteko ezinbesteko izan ez ezik, jolaserako eta sormen-lanetarako ere baliagarriak dira.

ZEINTZUK DIRA IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZAREN PRINTZIBIOAK?

Etaparen honen hezkuntza-xedeak eta lehen aipatutako adinetako haurren bilakaeran gertatzen diren aldaketa garrantzitsu eta etengabeek metodologi printzipio batzuk finkatzera garamatzate irakaskuntza-ikaskuntzan. Hona hemen hezkuntzaren aldi honetan planteatutako printzipioen berri:

- * Ikasleen hizkuntz jatorria eta irakaskuntza elebidunaren printzipioa kontuan hartzen dituen **hizkuntz trataera**.
- * **Aniztasunaren trataera**, hots, egoera indibidualen, gizarte eta kultur baldintzen, interesen eta heltze-erritmoen trataera, heterogeneotasunaren eta hezkuntza-premien ikuskera integratzailea gainditu behar delarik.

- * Haurren garapenaren dimentsio guztiak barne bilduko dituen **ikusker a orohartz ailea**, proiektu global eta esanguratsuetan gauzatuko diren iharduerak bultzatuz.
- * **Familiekiko harremana**, ikasleei ingurunean moldatzeko bidea errazteko asmoz familiekin lankidetzan aritzea, alegia.
- * **Ekintzen garrantzia**, hau da, ekintzek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duten garrantzia, manipulazioa, jolasa eta esperimentazioa direla medio, haurrek nortasuna eratzeko aukera apartak izan ez ezik, errealitatea interpretatzeko eskemak lantzeko bide ezin hobeak baitira.
- * **Giroaren antolamendu egokia**, espazioak eta baliabide materialak antolatzea, denbora banatzea, hezkuntza-alorreko esperientzia aberasgarri ugariak bultzatzeko asmoz.
- * **Afektibotasunaren eta gizarte-harremanen garrantzia**, giro bero eta segurua sortzea, haurrek konfidantza osoz ingurunearen ezaguerari heltzeko, beti ere elkarreragina aurrerabide intelektual, afektibo eta soziala aisatzen duen oinarritzko metodologi baliabidea dela ahantzi gabe.
- * Irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuaren **ebaluazioa**, globala, jarraitua eta prestakuntzazkoa.

NOLA DAGO PLANTEATUTA ANIZTASUNAREN TRATAERA HAUR-HEZKUNTZAN?

Haur-eskolan haur guztiek dute lekua, gauzak horrela, gizarte-ingurunearen urritasunen eraginez nahiz arrazoi genetikoak edo bilakaera-alorrekoak direla bide sortutako hezkuntza-premia desberdinak dituzten neska-mutilak aurkitu ohi ditugu bertan. Garapen-erritmoen aniztasuna, interes, gaitasun, motibazio, jatorri, hizkuntza eta abarren aniztasuna dira Haur-Hezkuntzaren mamia. Etapa honetan, berez izaera **aurre-hartz ailea eta berdintz ailea** duenez, arestian aipatutako berezitasun horiek guztiak bateratzen saiatu beharra dago; hori dela eta, arretak berebiziko garrantzia du haurren eragozpenak edo eta garapen-arazoak areagotu daitezzen saihesteko.

Esan gabe doa, aipatu berri ditugun metodologi printzipioei jarraitzen dien eskolak edo eta hezkuntzak hezkuntza-premia desberdinei eta bilakaeraren une desberdinei erantzuteko gai izan behar dutela. Printzipio orokor horiek, bestalde, egokienak dira Haur-Hezkuntzan aurki daitezkeen berezitasunei erantzuteko eta horiek konpentsatzen saiatzeko.

Ikastetxearen Curriculum-Proiektuak, Ikasgelaren Programazioak, edo, hala badagokio, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak irakasle-taldeek ikasle guztien gaitasunak bultzatzeko erabiltzen diren tresnak eta estrategiak dira. III. kapituluan azalduko dugu luzezabal Haur-Hezkuntzan aurkitzen diren hezkuntza-premia desberdinei zer-nolako erantzunak eman diezazkiekegun.

Gehiago jakin nahi izanez gero

* *Haur-Hezkuntzako Oinarrizko Curriculum-Diseinua*. Gasteiz. 1992. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

* *Haur-Hezkuntzako Curriculum-Dekretua*. Gasteiz. 1992. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

* *Oinarrizko Curriculum-Diseinua. Zabalkunderako Agiriak. 1.zk.* Gasteiz. 1992. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Ikastetxean hausnartzeko

* Aniztasuna onartzen duen eskolari buruz gogoeta egin. Zer-nolako trataera dute bertan hezkuntza-premia bereziek?

* Hezkuntzaren Erreformen Haur-Hezkuntzarako proposatzen diren xedeak aztertu, gure ikastetxeko Haur-Hezkuntzako zikloaren ikuspegitik aztertu ere. Gure hezkuntza-zikloan egindako lanean kontuan hartzen ditugu xede horiek?

II. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK HAUR-HEZKUNTZAN

Honako kapituluaren hezkuntza-premia bereziak zer diren azaltzen da. Haur-Hezkuntzak bertan dabilen haurren bilakaera-etapan, aldaketa izaugarriak gertatzen ari diren unean, aurki daitezkeen hezkuntza-premiei aurrea hartzen eta konpentsatzen dituela azpimarratu nahi dugu berriz ere. Hezkuntza-premia bereziak, asko aldi baterakoak direlarik, zenbait faktoreren menpe daude, hala nola, testuinguruaren garrantziaren menpe, Haur-Hezkuntzako irakasleek bitartekari gisa duten eginkizunaren menpe eta eskolak adin horretako haurrekin betetzen duen gizarteratze-funtzioaren menpe, besteak beste.

Hezkuntza-premia esanguratsuenak berri azaltzen dira hezkuntzako ziklo honetako hiru esperientzi eremuen inguruan antolatuturik. Hezkuntza-premien deskribapenari dagokionez, bestalde, ahalik eta premia gehien biltzen saiatu gara, puntualestatik hasita benetan bereziak direnetaraino. Eskola-ihardunerako bereziki erabilgarriak izan daitezkeen elementuak aurkeztuko ditugu; ildo horretan, hain zuzen ere, hezkuntza-premia bakoitza aipatzerakoan, hezkuntzako zenbait egoeratan eskolak duen funtzioari buruz hausnartzeko baliagarriak gerta daitezkeen elementuak proposatuko ditugu eta irakasleen esku-hartzea gidatuko duten jarraipide praktikoak eskainiko.

ZER DIRA HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK?	13
ZER-NOLAKO EZAUGARRI PSIKOLOGIKOAK DITU HAUR-HEZKUNTZAK?	15
Hazkuntza prozesu gisa	
Haurren oinarrizko premiak	
Irakasleak bitartekari gisa	
Aurrea hartzeko, konpentsatzeko eta garapena bultzatzeko esku hartzea	
ZER-NOLAKO HEZKUNTZA-PREMIAK DAUDE HAUR-HEZKUNTZAN?	23
1. Nortasunaren eta Autonomia Pertsonalaren eremuarekin lotutako premiak	25
Desegokitzapen afektiboak eta emozionalak konpentsatzeko premia	
Inguruneari moldatzeko prozesuak konpentsatzeko premia	
Mugimenezko garapena bultzatzeko premia	
Eguneroko bizitzako azturak eskuratzeko premia	
2. Eremu Fisiko eta Sozialarekin lotutako premiak	34
Jolasaren garapena konpentsatzeko premia	
Gizarte-garapena eta gizarte-trebetasunak konpentsatzeko premia	
Kaltetutako gizarte-ingurunearen eraginez sortutako egoerei erantzuteko premia	
3. Komunikazio eta Errepresentazio-eremuarekin lotutako premiak	42
Komunikazio-prozesuak garatu eta bultzatzeko premia	
Hitzezko mintzaira garatu eta bultzatzeko premia	
Errepresentazio-trebetasunak garatzeko premia	
Bigarren hizkuntzen ikaskuntza konpentsatu eta bultzatzeko premia	
4. Curriculumerako sarbideekin lotutako premiak	54
5. Familiarik harremanak indartzeko beharra	57
↘ Gehiago jakin nahi izanez gero	59
? Ikastetxean hausnartzeko	59

ZER DIRA HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK?

Hezkuntzaren erreforman planteatutako printzipioetariko bat aniztasunari erantzutea da, hain zuzen ere. Printzipio hori guztiz garrantzitsua da hezkuntzako edozein unetan, baina are garrantzitsuagoa Haur-Hezkuntzan, haurrak etengabe bilakatzen eta arian-arian garatzen diren etapa izanik, aniztasuna guztiz berezko ezaugarria baitu.

Aniztasunak iturburu ugari du, hala nola, haur bakoitzaren garapen-erritmoak, familiarteko hizkuntza, bakoitzaren gaitasunak, giro soziokulturala eta familiako giroa, kultur aldetiko sustrai eta jatorriak, ezagutza-era desberdinak, etab. Hori dela eta, zera pentsatu behar dugu, ***aniztasuna ikastetxearen eta ikasgelaren osagai naturala dela*** eta faktore baten baino gehiagoren menpe dagoela, hots, ikasleen adinak ez ezik, haur bakoitzak eskolan hasterakoan duen errealitateak ere baldintzatzen duela, eta zenbait kasutan bestetan baino esanguratsuagoa izango dela.

Duten adin kronologikorako behar baino azkarrago edo polikiago ikasten duten haurrek, zentzumen-defiziten bat nahiz defizit fisiko edo psikoren bat dutenek, edo eta famili, gizarte edo kultur errealitate desberdinetatik datozenek, esate baterako, *"arauz kanpoko"* eredu osatzen zutela pentsatu izan dugu egundaino. Egia esan, hezkuntzako etapa honen arau erreal bakarria egoera-aniztasunarena da, egoera bakoitzari egokitzen zaion erantzun aproposa kausitzen saiatu beharra dagoelarik.

Hezkuntzako ziklo honetan aurkitu ohi ditugun egoera ugariak ***talde batek, neskatila bakoitzak eta mutiko bakoitzak izan ditzaketen hezkuntza-premien*** jatorri dira; gauzak horrela, ***aniztasuna kontuan hartzen duen*** eskola bultzatu behar dugu. Esparru horretan, hezkuntza-premia kontzeptuak premia ugari biltzen du bere baitan, txiki eta aldi baterakoetatik hasita, larrietaraino, hots, elbarritasun nahiz garapen-nahaste larrien ondorioz sortutako hezkuntza-premia berezietaraino.

Hezkuntza-premien gaineko ikuspegia zabaldu egin da Warnock-ek 1981. urtean ***"hezkuntza-premia bereziak"*** terminoa estrainekoz erabili zuenetik. Une horretatik aurrera haurren premiak ulertzeko era aldatu zen, eta baita hezkuntza-premiei erantzuteko modua ere.

Lehenik eta behin, normalizazioa bultzatzen zuen terminologia proposatu zigun, garai hartan erabiltzen ziren gainerako terminologiez bestekoa, *"ikasle urritu"* *"elbarritu"* eta horrelako deiturek eragozpenak betirako eta aldagaitzak zirela aditzera ematen baitzuten.

Warnock-en ustez, adin goiztiarren berezko *heltze-erritmo desberdinak* eta heltze-prozesuan bertan azaldu ohi diren eragozpen batzuen *aldibaterakotasuna* kontuan hartuta, *hezkuntza-premia* termino zabal gisa erabili beharko genuke. Hori horrela:

subjektu guztiek, pertsona gisa garatzen ari direla, hezkuntza-premiak dituzte, baina zera ere gerta daiteke, zenbaitek premia bereziak izatea..

Bestalde, "hezkuntza-premia bereziak" kontzeptua onartuz gero gauza bat aitortu behar dugu: eragozpenen *jatorria elkarreraginezkoa eta erlatiboa dela* eta, haur baten urritasunek eragindako gorabeheren menpe egon ez ezik, kanpoko zenbait faktoreren menpe ere badaudela, hala nola, ingurunearen menpe, taldeak eta helduak emandako estimulazioaren menpe, eskura ditugun baliabideen menpe, etab.

Talde jakin baten, mutiko baten nahiz neskatila baten hezkuntza-premia bereziez aritzerakoan, gainera, eskolaren planteamendua ere mugatu behar dela kontuan izan behar dugu. Zentzu horretan, Haur-Hezkuntza abantaila gutxien duten haurrei zuzendu behar zaie, modu *intentsional eta planifikatuan* zuzendu ere, berez eskuratzen nekezak izango liratekeen ikaskuntzak bultzatzeko asmoz. Hori dela eta, ikaskuntzak sustatu nahi izanez gero, hezkuntzako esku-hartzea burutzeko neurri eta irizpide bereziak finkatu behar ditugu aurrena, premien mailaren araberako neurri eta irizpideak, hain zuzen ere. Hori kontuan hartuta, ondokoak litzateke *hezkuntza-premia bereziak*:

ikasle guzti-guztien eskura dagoen hezkuntzako baliabide, metodologia eta estrategia-multzoa. Zenbait ikaslek aldi baterako beharko ditu baliabide, metodologia eta estrategia horiek; beste zenbaitek, berriz, jarraian edo etengabe erabili beharko ditu.

Alabaina, "hezkuntza-premia bereziak" kontzeptua ez dugu muturreko zentzuan soilik ulertu behar, hezkuntza-premia bereziak dituzte, ohi baino burutsuagoak diren haurrek ere. Ikasle bakoitzari behar duen oro eskaini behar zaiola dioen printzipioari estu-estu jarraiki, curriculum malgua osatu behar dugu, gailentzen diren arloetako gaitasunak zuzpertzeko

baliabideak eskaini ahal izateko. Bukatzeko, bistakoa dirudi ez dagoela inolako kontraesanik "hezkuntza-premia bereziak" kontzeptuaren teorizazioaren eta "Aniztasuna kontuan hartzen duen Hezkuntza" kontzeptuaren teorizazioaren artean -sarritan kontrakoa iruditzen bazaigu ere-, planteamendu biek proiektu bera eta pertsona eta hezkuntza ulertzeko modu berbera baitituzte.

Aniztasunean hezi beharraren filosofia onartzeak ondokoa esan nahi du: hezkuntza-premia guztiei erantzun behar zaiela. Izan ere, premia guztiei erantzun ahal izateko honako hauek hartu behar dituzte kontuan Haur-Hezkuntzako irakasleek:

- ❑ Haur guztiak dira bereziak; ez daude "*haur bereziak*" eta bereziak ez direnak.
- ❑ Haur guztiek eskuratu behar dituzte hezkuntzaren xede orokorrak.
- ❑ Ikastetxe bakoitzak aniztasuna errespetatu behar du, hots, ikasle bakoitzari behar duena eta garapen osoa eta egokia lortzeko modua emango dion oro eskaini behar dio.

ZER-NOLAKO EZAUGARRI PSIKOLOGIKOAK DITU HAUR-HEZKUNTZAK?

Haurren garapenari buruzko kontzeptu, hausnarketa eta ikerketa batzuek guztiz erabilgarriak gerta daitezke hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren ezaugarriak ulertzeko eta baita eskolako esku-hartzean dituzten ondorioez jabetzeko ere.



Hazkuntza prozesu gisa

Haurrak ingurunearekin duen elkarreraginean oinarritutako *prozesu* dinamikoa da haurraren garapena. Garapen hori ez da partziala edo espezializatua, aitzitik, garapen globala da, hots, haurraren nortasuna modu integralean eratzen dela da garapenaren ezaugarri nagusia. Jakin badakigu hazkuntza-prozesu horretan dinamika pertsonalaren eta nortasunaren oinarriak finkatzen direla. Halaber, badakigu prozesu hori ondoko hiru gauzek baldintzatzen dutela: alde batetik, ingurunearen ezaugarriek, bestetik, emandako estimulazioak eta, amaitzeko, helduen eraginak, guraso eta irakasleenak batez ere. Dena den, haurren garapena osatzen duten etapa guztiak errepikatu egiten dira nolabait; hau da, haur guztiak bereziak izanik ere, garapen-fase berberak dituzte denek eta faseek ordena jakin bat dute beti.

Garapen-faseak berdinak direlako, hain zuzen ere, haurren garapena kronologikoki ordenatzeko joera izan da oraino, trebetasunak zein hiletan edo eta urtetan eskuratzen diren zehaztu delarik. Gaur egun, ordea, irizpide kronologikoetan oinarritzen den azalpen hori nahiko motz geratu zaigu, honez gero badakigu-eta haur guztien hazkuntza-prozesuak desberdinak direla eta giroak berebiziko garrantzia duela prozesu horretan. Gauzak horrela:

- ❑ Haur guztiek ez dituzte aurrerapen berberak izaten hazkuntza-prozesuan, talde sozio-kultural berekoak izan arren; faktore indibidualen eraginez gertatu ohi da hori.
- ❑ Haur txikien inguruneak haien hazkuntzan eta garapenean funtsezkoa den eragina du haurrengan.
- ❑ Haur guztien garapenean etenak, aurrerapenak, atzerapausuak eta jauziak daude; adin jakin bateko haur bakoitzak dituen premia desberdinetan soma daitezke ezaugarri horiek guztiak.



Haurren oinarritzko premiak

Haur guztiek ahal bait lehen ase beharreko oinarritzko premia batzuk dituzte hazten ari diren bitartean, premia horiek bete gabe utziz gero garapena ez baita egokia izango. Gure gizartean, eskolak -eta baita familiak ere- arestian aipatutako premia horiek asebetzeko zeregina du haurren hazkuntza-prozesuak iraun bitartean. Gorabehera pertsonalak direla bide, haur batek bere premiak ase gabe daudela sentitzen badu, etorkizuneko garapena okerra izan daiteke eta hori saihesteko estimulazio goiztiarra bultzatzeko neurriak edo eta hezkuntzako errefortzuak prestatu beharko ditugu. Haur guztiek dituzte **oinarritzko premia** amankomun batzuk; zenbait kasutan bat etor daitezke beste premia bereziago batzuekin eta guztiak ase behar dira garapen-prozesuan zehar.

Egundaino, aditu ugari aztertu ditu haurrek garapen-prozesuan izan ohi dituzten oinarritzko premiak. Guk geuk Zabalzak² proposatutako zerrenda hartu dugu aztergai. Zerrenda hori Shirley-k haurrek hazkuntza-prozesuan aurkitzen dituzten

² ZABALZA, M. (1987), *Didáctica de la Educación Infantil*. Madril. Narcea.

funtsezko premiei buruz egindako ikerlanean oinarritzen da. Hona hemen gure bertsioa:

I. Nia-rekin erlazionatutako premiak

- *Nerbio-sitemak eta sistema endokrinoak nahiz inmulogikoak erregulaturiko premia somatikoak.*
- *Premia fisiologikoak, garbitasuna, lo egiteko premia eta segurtasuna.*
- *Autoafirmazio eta agresibitate-premia.*
- *Premia emotiboak eta sozialak.*
- *Maitasun eta afektu-premia.*
- *Menpekotasun-premia.*
- *Segurtasun eta konfidantza-premia.*
- *Bere indibidualtasuna onartzeko premia.*
- *Gero eta independentzia eta autonomia handiagoa izateko premia.*
- *Mugatua izateko premia.*
- *Autoritate-premia.*
- *Diziplina-premia.*
- *Autoerrespetu eta autoistimu-premia.*
- *Jolasteko, iharduteko eta arrakasta izateko premia.*
- *Eredu egokiak edukitzeko premia.*

2. Errealitatea ezagutu eta horri moldatzearekin zerikusia duten premiak

- *Defentsarako mekanismoak ezartzeko premia.*
- *Kontuan hartuak izateko premia.*
- *Fantasia eta sormena izateko premia.*
- *Esponenteitate-premia.*
- *Manipulatu eta aurkitzeko premia.*
- *Aditzera eman eta komunikatzeko premia.*

3. Baloreekin edo kontzientziarekin zerikusia duten premiak.



Elkarreraginaren garrantzia

Psikologi eta hezkuntza-alorreko zenbait adituk egindako ikerlanek erakusten digutenez, haurren garapena ez dago heltze-prozesuaren eta giroaren menpe soilik, hein handi batean subjektuak ingurune sozial eta kulturalarekin duen elkarreraginaren menpe ere badago. Izan ere, argi ikusten da hori "*garapen normala*" duen edozein haurrengan eta are argiago hezkuntza-premia bereziak dituztenengan.

Zentzu horretan, inguruneak izan beharreko ezaugarriak nabarmendu behar dira: ahalik eta normalizatuena izan behar du inguruneak, gizarteko estimulu aberasgarriak eskaini behar ditu eta elkarreraginak ahalbidetu. Gainontzeko haurrek, "kideek", funtsezko roposena dela, gizarteratzeari esker eta ikasgelako lanari esker bultzatuko duezeregina dute bertan, elkarreragin oparoak sortarazten baitituzte.

Hori horrela izanik, erraz uler daiteke eskola-ingurune normalizatuaren haurren garapena bultzatu eta hobetzeko modurik aplarik garapen hori, urritasun handienak eta, ondorioz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen garapen-ahalbideak areagotuz.




Ikaskuntza garapena bultzatzeko lagungarri gisa

Vygotsky-ren hitzetan, ingurunearekiko elkarreraginei esker eskuratzen dira ikaskuntzak, hortaz, ingurunea da garapenaren eragile eta dinamizatzailea. Vygotsky-ren ustez, bi garapen-maila daude: garapen errealak eta garapen potentzialak.

Garapen errealak haurrak bere kasa egiteko gai diren ihardueren multzoari dagokio.

Garapen potentzialak helduen laguntza edo eta trebeagoa den kideren baten laguntza izanez gero burutu ditzaketen ihardueren multzoari dagokio.

Garapen hurbileko zona ikaskuntzak planteatu beharreko zona da; maila errealaren eta maila potentzialaren arteko distantzia, hau da, haurrek beren kabuz egin dezaketenaren eta laguntza egokia izanez gero ikas dezaketenaren arteko distantzia.



Hori horrela, garapena eta ikaskuntza ez dira prozesu berdinak, ikaskuntzari dagokio garapen handiagoa eta hobe eragingo duten barruko bilakaera-prozesuak abiaraztea. Horrexegatik dira, hain zuzen ere, hain garrantzitsuak haurrentzat, alde batetik, ikasten dutena barnerratzeko modua eta, bestetik, ingurukoek ikastera bultzatzeko

duten modua, hots, kanpoko laguntzak eta berariazko edukin batzuen irakaskuntza sistematizatua baitira. Orain arte irakaskuntza garapenaren atzetik zioala zirudien arren, garapen-prozesuen eragile eta bultzatzaile dela ohartu gara. Hortaz, **garapena eragiten duen zerbait da ikaskuntza.**

Ikasi, ez dugu halako garapen-maila lortu dugunean soilik ikasten, ikaskuntzak berak ere bultzatzen du garapena.

Goiko printzipio hori hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren praktikan aplikatuz gero, erraz asko ulertuko dugu irakaskuntza-ikaskuntza iharduerak izango direla -beti ere, laguntzak aproposak eta baldintzak egokiak badira- garapena gehien bultzatuko dutenak eta heldu bilakatzen joateko ahalbide hobeak eskainiko dituztenak.

*(Adibidez): "Haur bat hiru pieza ahokatzeko gai da bere kabuz (garapen errealeko zona), baina ezin du gauza bera egin mahaiaren edo eta lurraren gainean sei pieza edo gehiago utziz gero. Hala ere, helduak, bitartekari gisa edo, piezak nolabaiteko ordenaz kokatzen dituenean edo banan-bana ematen dizkionean, eginkizuna burutzeko gai da haurra eta oso pozik burutzen du gainera (garapen potentzialeko zona)". Kasu honetan, haurrari aurrerapenak lortzen lagundu nahi badiogu, zenbait laguntza eta baldintza eskaini behar diogu: Alde batetik, badakigu haren **alboan izanda** iharduera burutzen lagunduko diogula (garapen hurbileko zona), halako euskarri afektibo bat eta segurtasuna ematen baitizkiogu; une horretako ikaskuntza ziurtatzeko balio du laguntza horrek. Bestalde, **zeregina egokituta** (piezak banan-bana emanda, etab.), eragozpenak dosifikatuko ditugu, hots, dakiena abiapuntutzat hartu eta gaindi ditzakeen oztopoak tartekatuko ditugu arian-arian, ...*



Irakasleak bitartekari gisa

Hezkuntzaren erreformaren oinarri diren teoriak eginkizun nabarmena ematen diete irakasleei haurren ikaskuntzaren prozesuko bitartekari gisa. Haur bakoitzaren ekarpenak eta premiak ezagutu ahal izateko, irakasleek gelan gertatzen dena behatu eta orain arte erabilitako eredu batzuk baztertu behar dituzte, hau da, haurren ezaugarri, premia eta interesak adinaren arabera direla pentsatzeari utzi behar diote eta haurrek une jakin batean dituzten eragozpenak aldagaitzak eta iraunkorrak direla burutik kendu, etab.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrei "garapen hurbileko" zonan zehar aurrera egiten laguntzeko, haurren garapen-ingurunea arras ongi ezagutu behar du irakasleak, kulturaren eta haurren bitartekari den heinean duen eginkizunaz jabetu behar du irakaskuntza-ikaskuntzarako baldintza ahalik eta bikainenak antolatzeko eta haurrak gidatzeko. Haur-eskolako irakasleei dagokie haurren ihardueren euskarri gisoakoa sortzea, kulturaren eta haurren arteko zubi izatea; alabaina eginkizuna ez dagokie soilik irakasleei, familiaren, auzakideen, adiskideen, komunikabideen eta abarren laguntza izango baitute lan horretan. Bitartekari eginkizuna are funtsezkoagoa da hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren kasuan, ezinbestekoa baita:

- beren kabuz egin dezaketenaren jakitun izatea
- ikasi behar dutenaren berri izatea
- haien gizarte eta kultur ingurunean benetan esanguratsuak diren ikaskuntzen berri izatea
- garapen-prozesuko une jakin batean dituzten gabeziak somatzea
- konpentsatu behar denari buruz erabakiak hartzea, etab.

Arazo horiek guztiak berebiziko garrantzia dute, taldearen hezkuntza-premiak - bereziak direnak barne-, haur bakoitzaren hezkuntza-premiak zehazteko lagungarri gertatzen direlako eta, gainera, irakasleak haur bakoitzarentzako garapen-testuinguru egokiak ahalbidetzeko estrategiak, metodoak, materialak eta laguntzak planteatzera bultzatzen dituztelako.

Haur-eskolaren eraginkotasuna haur-hezkuntzaren berezko funtzioak erreferentziatzen hartzen dituen definitu liteke. Berezko funtzio hauek hurrengo honen eskaintzan laburbiltzen dira:

HEZKUNTZA-ERANTZUNA

- * **aurre-hartzailea**
- * **berdintzailea**
- * **garapena ahalbidetzen duena**



Esku hartu, aurre hartzeko

Haurrek garapen-prozesuan aurkitu ohi dituzten eragozpenak, arinak zein larriak, goiz antzemateko eginkizuna du haur-eskolak; horri esker orientabide egokiak diseinatzeko eta esku-hartzerako neurriak finkatzeko modua dugu eskolaren programen bitartez. Behaketari eta diagnosi goiztiarrari esker, bestalde, arrisku handiko taldeak antzemateko eta konpentsazio-funtzioa abiarazteko modua dugu, arazoak sortu bezain laster konpontzen hasteko aukera dugularik halaber.

Sarritan eskola-eremuan somatzen dira aipatu eragozpenak, bai eskolako etapa horretako uneren batean azaltzen direlako edo baita familiak horien berririk ez zuelako, informaziorik ez zuelako edo eta seme-alaben arazoei aurre egiten ez zekielako. Normalean haur txikiei egiten zaizkien azterketa medikoetan eragozpenak antzematen dira -egonez gero, jakina-, bereziki eragozpen horiek garapen psikobiologikoaren arazoren batekin lotuta daudenean. Horrelakoetan, oro har, haurrak nolabaiteko estimulazio goiztiarren bat du dagoeneko, familiak orientabideak ditu eta irakasleek, informazio hori erabilia, haur jakin horrek dituen hezkuntza-premiak zehazteko modua dute. Haatik, eragozpen horiek garapen-prozesuan gertatutako aldaketa txikiak besterik ez direnean, ohiko azterketa mediko batean antzematen zailak dira, haurren portaeraren alderdi horiek taldean daudenean edo eta besteekiko elkarreraginak dituztenean soilik baitira somagarri.

Hori dela eta, haur-eskolak eta bertako irakasleek informazio aparta dute haurren eta haren famili ingurunearen gainean, **hezkuntza-premia bereziak eta gerta daitezkeen nahasteak antzemateko eta horiei aurrea hartzeko** aukera ematen dien informazioa, hain zuzen ere. Horretaz gain, hots, antzemate-lanetan duten eginkizunaz gain, **eskolaren programen bidez burututako errekupeazio-prozesuetan** ere garrantzi izugarria dute, hala badagokio, laguntza espezializatuagoak eskaintzen dizkien beste pertsona edo erakunde batzuekin lankidetzan aritzen direlarik.

Haur-eskolari gagozkiolarik, aurre hartzea ondokoa da: haur guztiekin plan baten arabera esku hartzea, lana orekatua, esanguratsua eta haurren gaitasunekin bat datorrena dela bermatuz, irakasleei ikasleengan nahiz kanpoko alderdietan antzemandako eragozpenei konponbideren bat bilatzeko bidea emango dieten

ihardueren bitartez, arestian aipatutako eragozpen horiek ikasle bakoitzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren osagai baitira.



Esku hartu, konpentsatzeko

Haur-Hezkuntzan planteaturiko helburu nagusienetariko bat da haur guztien gabeziak konpentsatzen saiatzea, guzti-guztiek garapenerako baldintza ahalik eta egokienak izan ditzaten. Gaur egun, badakigu haurraren bizitzako lehen urteetan ezinbestekoak direla estimuluak, motibazioak eta ekintzak, are, gerora izango duten garapenari eragiten diotela dakigu eta haur-eskola dela arazo horiei aurrea hartzeko eta konponbidea emateko biderik aproposena.

Zentzu horretan, haur-eskola normalizazioa bultzatzeko tresnarik eraginkorrena ere bada, haur guztiei aukera konstruktibo bat eskaintzen baitie, hots, bakoitzaren abiapuntua nolana hikoia izanik ere, bakoitzari ahal ***duen garapen pertsonal eta kognitibo handiena*** lortzeko bidea ematen dio, zeren eta, zenbat eta garapen-maila handiagoa eskuratu etapa honetan, gero eta aukera hobeak izango baititu aurrera egiteko. Konpentsazio funtzio hori erabat beharrezkoa da haur guztientzat, alabaina are gehiago garapen pertsonal, afektibo eta intelektual orekatu bat izatea eragotziko dien giroa nahiz gabeziaren bat duten haurrentzat.

Edonolako desberdintasunak konpentsatu nahi baditugu, haur bakoitzaren abiapuntuak arrespetatzen dituen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua diseinatu behar dugu, elkarreraginen bidez arian-arian garatzeko modua emango dion prozesua diseinatu ere. Haur bakoitzak garatzen dituen gaitasunak edo eta segurtasun handiena ematen dioten gaitasunak oinarri gisa hartuta ekingo dio ikasteari, eta ikasteko autonomia lortzeko prozesu horretan, bestelako gaitasun maila handituz. Praktikan, ***globalizazio-proposamenetan*** gauzatzen da gure esku-hartzea, haur bakoitzaren interesak abiapuntu ditugula, gaitasun desberdinei eta hezkuntza-premia desberdinei heltzeko behar diren egokitzapen guztial egiteko modua ematen digularik.



Esku hartu, garapena bultzatzeko

Lehen aipatutako funtzio biek, hau da desberdinatsunein aurrea hartzeak eta daudenak konpentsatzeak, haur-eskolak garapena eragiten duen tresna gisa duen eginkizuna zehazten dute. Gauzak horrela, haur-eskola **garapen-testuinguru** bat da, non haur bakoitzak bere garapen pertsonal, emozional eta kognitiboaren etapak ahalik eta hobetoen igarotzeko modua izan behar duen. Hezkuntzako esku-hartzeak **intentsionalki** bultzatu behar ditu hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren garapena eta ikaskuntzak, baina horretarako aproposak izango diren ihardueren jakitun izan beharra dago eta testuinguru apropos bat diseinatu, haurren eta ikasgaien topagune gisa.

Beraz, eta haurren ikasteko erarekin bat etorrira, garapena bultzatzea zera da, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren gaitasun eta interesen arabera garapen hurbileko zonak sortzea, garape eta ikaskuntza sustatuko dituzten esperientziak hezur-mamituz. Hori horrela, bi gauza erabaki beharko dira: alde batetik zer-nolako estrategiak erabiliko diren eta, bestetik, laguntzako neurriak haur guztien hezkuntza-premiei nola doituko zaizkion. Izan ere, hori guztia da III. kapitulu luze-zabal jorratuko duguna.

ZER-NOLAKO HEZKUNTZA-PREMIAK DAUDE HAUR-HEZKUNTZAN?

Hezkuntza-premia berezien elkarreraginezko izaera erreferentzi gisa hartuz gero, eta ikaslearen arabera izan ez ezik ingurunearen arabera ere badirela kontuan hartuz gero, begi bistan da haur-eskolak desberdintasunein **aurrea hartu eta konpentsatu** egin behar dituela ezinbestez. Hori dela eta, hezkuntzaren ziklo honetan ageri diren hezkuntza-premia bereziak beste modu batera ere uler daitezke, hots, haur-eskolako irakasleek ziklo honetan dauden eta hezkuntza-premia bereziak dituzten haur guztien garapena konpentsatu, sendotu eta bultzatzeko formulatu beharreko planteamenduak bailiran.

Ikuspegi horretatik begiratuta, hain zuzen ere, haur-eskolan aurki ditzakegun hezkuntza-premia bereziak deskribatzeko asmoz, eragozpenei nola **aurrea hartu**, desberdintasunak nola **konpentsatu** eta gaitasunak nola **bultzatu** azalduko dugu, hezkuntzako etapa honetako curriculum osatzen duten eremu bakoitzaren arabera antolatuko ditugularik gaitasunak.

Kontuan izan behar da hezkuntza-premia bereziak ez direla eremu bakar batean azaltzen eta ez dagozkiola soilik garapen-arlo bakar bati. Haur-Hezkuntzako eremuen artean harreman bat dagoen bezala, hezkuntza-premiak ere erlazonaturik daude elkarren artean, lotuta daude eta elkardepenteak dira; hori dela eta, eremu desberdinetan burututako lan desberdinen bidez erantzun eta konpentsatu daitezke.

Aurrerantzean azalduko dugun hezkuntza-premia berezien deskribapenean adibide ugari biltzen saiatu gara, haurren bilakaerako une jakin batean sor izan direnetatik hasita, ezaugarri bereziak dituztenetaraino. Premiak hezkuntzako etapa honetako berezko eremuen inguruan egituratuta daude, hala ere, kontuan hartu behar da batzuk eremu batean hobe kokatzen direla bestean baino, baina guztiak elkarren artean erlazonatuta daudela. Azken batean, eskolan, zehatzago esanda, ikasgelan, garapen-eremu desberdinei dagozkien ihardueren bidez burututako lan globala da premia guztiei eman beharreko erantzunak bateratzeko leku egokia.

Haur-Hezkuntzan ondoko hezkuntza-premia hauek aurki ditzakegu:

1.- Nortasunaren eta Autonomia Perstonalaren eremuarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak

- * Desegokitzapen afektibo eta emozionalak konpentsatzeko premia.
- * Inguruneari egokitzeko prozesuak konpentsatzeko premia.
- * Mugimenezko garapena bultzatzeko premia.
- * Azturak eskuratzeko eta konpentsatzeko premia.

2.- Ingurune Fisiko eta Sozialaren eremuarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak

- * Jolasaren garapena konpentsatzeko premia.
- * Gizarte-garapena eta gizarte-trebetasunen garapena konpentsatzeko premia.
- * Kaltetutako ingurune sozio-kultural batetik eratorritako egoerei erantzuteko premia.

3.- Komunikazio eta Errepresentazio-eremuarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak

- * Hizkuntzez kanpoko komunikazioa konpentsatzeko premia.

- * Hizkuntz komunikazioa garatu eta bultzatzeko premia.
- * Errepresentazio-trebetasunak garatzeko premia.
- * Bigarren hizkuntzen ikaskuntza konpentsatu eta bultzatzeko premia.

4.- Curriculumerako sarbideekin zerikusia duten hezkuntza-premiak

5- Familiekiko harremana bultzatzeko beharra

1. NORTASUNAREN ETA AUTONOMIA PERTSONALAREN EREMUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HEZKUNTZA-PREMIAK

Haurren garapenean anitz faktorek eragin ohi du: faktore intelektualek, sozialek, harremanen alorrekoek, zentzumenezkoek, psikomotrizeek eta, bukatzeko, emozionalek eta afektiboek. Faktore afektibo-emozionalek are indar handiagoa hartzen dute pertsonaren nortasuna eratzen den heinean eta eskolan hainbat egoeratan azaldu ohi dira, premia, gurari, beldur etab. gisa azaldu ere.

Garapenean nahasteren bat duten haur batzuek gainerako haurrak baino zaurgarriagoak dira nortasuna eratzen ari direnean, eta eragozpen handiagoak dituzte aski autonomia den funtzionamendua lortzeko. Haur horiek dituzten premiek, hots, euren autonomiaren garapena eta nortasunaren garapena tinkatu beharrak, arestian aipatutako eragozpenak konpentsatzeko eta saihesteko hezkuntza-programak planifikatzea justifikatzen du.

Hona hemen pertsonaren garapenarekin zerikusia duten premien berri:

1.1. Desegokitzapen afektiboak eta emozionalak konpentsatzeko premia.

Eskolan hasten diren haur batzuen kasuan, estatusun-uneetan -hala nola, eskolan hasteko unean bertan- are larriago bilaka daitezkeen desegokitzapen afektibo edo emozionalak konpentsatu beharra dagoela ohartzen gara sarritan.

Etapa honetan garrantzi izugarria du inguruneari egokitzeko eta segurtasun nahiz konfidantza-sentimenduak indartzeko lagungarria izango zaien doikuntza afektiboa eta pertsonala lortzea. Aipatu segurtasun eta konfidantza-sentimenduak haurren oinarritzko premiak ase izanarekin lotuta daude; sentimendu horiek are sendoagoak izango dira haurrak laguntza izan badu, ongi zaindu badute, elikatua izan bada, ordutegi erregularrak izan baditu, higiene egokia izan bada etab. Ordea, gaizki zaindu badute, gurasoek egindako arreta egokia izan ez bada, ospitaleratzea eragin duen nahasteren bat izan denean, etab., konpentsazio-ekintzen premia bizia izango du haurrak eta laguntza bereziak beharko ditu.

Barruko egoera horien ondorioak funtsezkoak dira haurren garapenean, egokitzapen-ereduei, eskolako lanari, harreman pertsonalei eta hazkunde

pretsonalari eragiten baitiete. Horrelako arazoak dituzten haur txikiak erreakzio bortitz eta globalen bitartez aditzera ematen dituzte euren sentimenduak (negar egiten dute, beldurra izaten dute, kasketaldiak izaten dituzte), oraindik ezin baituzte euren nortasunaren araberrako funtzionamendu-era desberdinen bitartez, inguruneari aurre egiteko estiloaren bitartez, eguneroko egoera gatazkatsuei irtenbidea emateko moduaren bitartez eta abarren bitartez adierazi. Horrelakoetan ondoko galdera egin diezaiokegu geure buruari:

Zer eginkizun du, bada, haur-eskolak premia horiek konpentsatzeko orduan?

- ✍ *Haurrek goian aipaturako sentimendu eta emozioak "lantzeko" esparru ezin hobea da haur-eskola, barruko zirrarak bide ugari erabilia komunikatzen ikasteko aukera ematen baitie, hala nola, hizkuntzaren, antzezpenen, mintzaira plastikoaren, jolasaren, musikaren eta abarren bidez komunikatzeko.*
- ✍ *Egokiagoak eta aberasgarriagoak diren funtzionamendu-moduak, gauzekiko eta besteekiko harremanetan autonomia-maila handiagoa ahalbidetzen duten funtzionamendu-moduak bultzatzeko eginkizuna ere badu haur-eskolak.*
- ✍ *Poza eta maitasuna edo areriotasuna, beldurra, tristura etab. modu egokian komunikatzen ikasteko leku aproposa da haur-eskola.*

1.2. Inguruneari egokitzeko prozesuak konpentsatzeko premia

Zenbait arrazoi dela bide, eskolaketari ekiterakoan eragozpenak dituzten haurrei agian bereziki nekeza egingo zaie hasierako egokitzapen-prozesua, hain ere nekeza non denbora gehiago beharko duten moldatzeko. Faktore jakin batzuen menpe dago hori, hala nola, haurraren adinaren menpe, ingurune berriak zirela-eta aurretik izandako esperientzien menpe (haurtzaindegiak, familiakoen etxeak,...) eta baita familiakoek seme-alaba autonomia handiagoa izateko modua emango dion ingurune berri batean ikustean duten bizipenaren menpe ere.

Eskolan hasteak ikasleei eragin ez ezik, hezkuntza-prozesuan inplikaturiko beste pertsoneri ere, hots, familikoei eta irakasleei ere eragiten die.

Nahasteren bat duten haurren ***familikoentzat*** artegarazlea izan daiteke eskolatzeneua, ondoko arazoak direla-eta kezkatuta egon baitaitezke:

- seme-alabei egingo zaien harrera
- haien integrazioa
- gainontzeko familiaekin sor daitekeen harremana edo
- seme-alabaren nahastearen izaera

Ikasleek ere eragozpenak ikus ditzakete:

- ❑ ezagutzen ez duten giro batean murgiltzear baitaude eta giro horrek hazkuntza pertsonala indartzeaz beste, segurtasun-ezazko sentimenduak ere sor ditzake.
- ❑ eskolan hasitakoan familiakoengandik aldendu beharra.
- ❑ eskolako iharduerak berak kezkatzen ditu, bertako elkarbizitza-arauetara, eta erritmoetara moldatu behar baitira.

Zer egin daiteke eskolan egokitzapen-prozesua errazagoa izan dadin?

- ✍ *Haur bakoitza onartuz, hots, bakoitzak dituen ezaugarri eta berariazko premiak onartuz.*
- ✍ *Familiekin haurren eta familikoen aldentzea nolabait emetuko duten harremanak ezarrituz, etorkizunean ere lankidetzan aritzeko oinarri izan daitezke eta.*
- ✍ *Haurrak arian-arian sartzeari lagungarri gerta daiteke, hasieran behinik behin, bakoitzak dituen premia afektiboak hobe erantzun ahal izateko.*
- ✍ *Ikasle bakoitzari moldatzeko lagungarrien izango zaizkion espazioak, iharduerak eta baldintzak diseinatuz, beti ere bakoitzaren berezitasunak errespetatu behar direlarik.*

Noiz esan dezakegu haurrak eskola-girora moldatu direla?

- ✍ *Euren sentimenduak adierazteko adinako segurtasuna dutenean, komunikazio-afektiboa eskaintzen eta onartzen dutenean.*
- ✍ *Iharduerak burutzerakoan, irakaslearen laguntza hainbeste eskatzen ez dutenean, hots, independenteagoak direla somatzen dugunean.*
- ✍ *Jolasetan, ihardueretan eta bestelako esperientzietan ikasgelako objektuak erabiltzen hasten direnean.*
- ✍ *Talde-gelan integratzen direnean.*
- ✍ *Eskola-testuinguruan esperientziak elkartrukatu eta famili testuinguruan erabiltzeko gauza direnean.*

1.3. Mugimenezko garapena bultzatzeko premia

Atal honetan mugimen eta ikaskuntza-alorrean eskolako kideek baino arazo larriagoak dituzten haurrez arituko gara. Multzo honetako haurren mugimen-defizitak aldi baterakoak ala iraunkorrak izan daitezke, hau da, ibiltzeko orduan edo motrizitate finaren alorrean atzerapenak izan dituzten haurrak sartzen dira bertan eta baita inolaz mugitu ezin daitezkeenak ere.

Kasurik larrienak ondokoak dira: gauzak oratzeko orduan, koordinazioan, ibiltzerakoan edo eta ahoskatzerakoan, besteak beste, azaltzen diren nahaste eta disfuntzioak, aipatu funtzioak ezinbestekoak baitira beste gaitasun eta trebetasun batzuk eskuratzeko, hala nola, trebetasun grafikoak edo mintzaira bera eskuratzeko.

Hona hemen goian aipatutako nahasten iturburuen berri ³

Nerbio-sistemako anomaliak:

- *garun-jatorrikoak: garun-paralisia, traumatismo kraneo-enzefalikoak*
- *ardatz-jatorrikoak: ardatz bifidoa, poliometitia, traumatismo medularrak*

Giharre-sistemako anomaliak:

- *miopatiak*
- *giharre-distrofia progresiboak*

Sistema osteo-artikularreko anomaliak:

- *malformazio kongenitoak.*
- *mugimen-urritasunak*

Elbarritasun horien ondorioz hezkuntza-premia berezi jakin batzuk sortzen dira, eta konpondu nahi baditugu curriculumerako sarbidea ahalbidetuko duten baliabideak erabili beharko ditugu; baina aurrerago hitzegingo dugu horretaz. Esanak esan, Haur-eskolan eta 3-6 urte bitarteko haurrengan normalean aurkitu ohi ditugun premiak aldi baterakoak izaten dira eta oinarrizko mugimen-azturak eskuratzekoan gertatutako atzerapenekin izaten dute zerikusia. Oro har, oinarrizko mugimen-azturak ondokoak egiteko ezinbestekoak dira:

- ingurune fisikoa menperatzeko
- gizarte-ingurunearekin harremanak ezartzeko eta, azkenik
- konplexuagoak diren beste ikaskuntza batzuk eskuratzeko.

Hasierako eragozpen psikomotrizak haurrek izaten dituzten mugimen-jokabide pobreetan nabari dira batik bat. Horrelakoetan, haurrek oinarrizko trebetasun eskas samarrak izaten dituzte eta ezin dira ingurunean ongi moldatu. Hona hemen horren arrazoiak:

³ ZENBAIT EGILE (1992) *Eragozpen motorikoak eta hezkuntza-premia bereziak*. Gasteiz. Gizarte Gaietarako Lehendakariordetza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- ❑ ez dute mugimen-esperientzia aberatsik
- ❑ beste haur batzuen ondoan erritmo motelagoa izan du haien garapenak
- ❑ garapenean atzerapenak dituzte, hor azaltzen da, hain zuzen ere, mugimen-jokabideen heldutasun-eza

Premia psikomotoreei erantzun egokia eman dakieke jolasen bidez edo eta psikomotrizitate-gelako ihardueren bidez. Alabaina, horrelako ekintzetan irakasleak ez du ikusle soila izan behar, aipatutako esperientziek duten hezkuntza-balioa eta elkarreraginerako baliagarritasuna galduko balita bestela.

Jolas psikomotrizak, haurrak jolasaren bitartez, mugimenduen bitartez eta objektuekiko nahiz kideekiko harremanen bitartez "esaten" duena "entzuteko" joera dagoen eskola-esparruan, ikasle bakoitzaren premien arabera iharduna planifikatzeko modua ematen die irakasleei. Bestalde, jolas psikomotrizeei esker, haur txikiek euren gorputz-eskemaz jabetzeko aukera dute, elkarrizketa tonikoaren eta jolasaren bidez jabetu ere, eta, halaber, euren nortasun pertsonala eraikitzeko aukera ere badute, errekonozimendu baloreak eskuratzekoa eta euren mugak onartzekoa, beti ere guztien arteko desberdintasunak onartuz eta errespetatuz.

Bestalde, atal honetan ezin ahantz dezakegu zenbait haurrek zentzumen-garapena indartzeko eta sustatzeko premia duela. Haur batzuek Haur-Hezkuntzako lehen zikloan izan ohi denarekin bat datorren garapen-maila dute alor horretan, bai jaiotzatiko arazoak direla medio eta baita garapenean izandako atzerapenak direla medio ere. Beste kasu batzuetan, berriz, garapen pertsonal egokia izan arren, ikusmen edo eta entzumen-defiziten bat duten haurren egoera ere izan daiteke honakoa. Kasu bietan dituzten defizitak nolabait konpentsatuko dituen zentzumen-estimulazioa eskaini beharko zaie haurrei. Hezkuntza psikomotrizak, jolasak, eta objektuen nahiz espazioaren araketa bide ezin hobeak dira horretarako.

Nola konpentsatzen ditu haur-eskolan eragozpen horiek?

- ✍ *Haurrei euren mugimenduak ulertzen, antolatzen eta kontrolatzen lagundu behar die, ingurunearen eskakizunak betetzeko modua izan dezaten.*
- ✍ *Korrika nahiz jauzi egiterakoan, gauzak jaurtitzerakoan, orekatzerakoan, mugikariak hartzerakoan, etab. ikasleek dituzten eragozpenak behatu behar dira, premiak antzeman ahal izateko.*

- ✍ *Haur bakoitzaren mailari egokitutako iharduerak diseinatu behar dira, esperientziak arrakastaz burutu, harremanetan dituzten oztupoak gaingitu eta mugimen-alorreko ikaskuntzak areagotzeko modua emango dieten iharduerak, alegia.*
- ✍ *Erabilitzen diren materialak, espazio fisikoak eta ikastetxeko baliabideak haur bakoitzaren mugimendu-premiei egokitu behar dizkiegu.*
- ✍ *Kontuan izan behar dugu mugimen-alorrean eragozpenen bat izanez gero, haurrek porrot ugari jasaten dituztela txiki-txikitatik ingurunearekin dituzten harremanetan. Hori dela eta, haurrak errazago eskura ditzakeen gaitasunak eta ikaskuntzak indartzen saiatu beharra dago.*
- ✍ *Alderdi psikomotrizak lantzeko eta jolasteko espazio eta denbora jakin batzuk antolatu behar dira. Espazio-arazoak baldin badaude, ikasgelan bertan JOLASTEKO TXOKO bat antola daiteke edo, kasurik onenean, PSIKOMOTRIZITATE-GELA bat prestatu.*

1.4. Eguneroko bizitzako azturak eskuratzeko premia

Eguneroko bizitza gertuen duten egoera egonkorrena da adin hauetako haurrentzat, azken batean eguneroko espazioan eta horren inguruko gertakariekin kontaktuan gauzatzen baita euren garapen-prozesua. Etapa honetan lanean diharduen irakasleak badaki eguneroko bizitza hezkuntzarako baliabide aparta dela eta, horrexegatik, adin hauetako haurrentzako curriculum-proposamenak "*ohiko esparrua*" eta errutinak kontuan hartuta egiten dira, eskola bizitzarako ezinbestekoak diren iraunkortasuna eta erregulartasuna eman ez ezik, garapen harmoniatsua izateko nahitaezkoak direlako.

Zenbait kasutan eguneroko bizitzarekin zerikusia duten hezkuntza-premiak autonomia, garbitasun edo elikadura-azturak eskuratzeko premia bilakatzen dira, normalean garapen-prozesuan zehar eskuratzen direlarik gaitasun horiek. Otorduak, atsedendiak, garbiketa-uneak, eguneroko topaketak, agurrak, etab. hurrei espazio-denborekin erlasionaturiko oinarritzko kontzeptuak berenganatzeko bidea ematen dieten "*ohiko esparruak*" dira. Lehenago gertatu denaren eta gero nahiz aldi berean gertatutakoaren kontzeptua, etengabekoa, leku jakin batean egiten dena, etab. ingurunea ezagutzeko oinarri-oinarritzko nozioak dira, gertatzeaz dagoena aurrikusteko eta iragartzeko ezinbestekoak eta, halaber, ingurune horretan murgilduta gauden gizaki garenaz jabetzeko guztiz nahitaezkoak.

Eguneroko bizitzarekin zerikusia duten "*bizipenak*", beraz, oso goiz eskuratzen dira; helduok bizipen horiek ikasteko programa berezi bat planteatzen ez badugu ere, haurrek erraz asko eskuratzen dituzte elkarreraginaren eta imitazioaren bidez.

Gainera, aztura horiek eskuratzen ari direla, estraineko harreman pertsonalak izan ez ezik, besteekiko lehen ulermen-gatazkak ere izaten dituzte. Otorduak, bainua hartzeko garaia, agurra, etab. ekitaldi sozial biziki garrantzitsuak dira haurrentzat.

Aditu ugarik hitzegin du azturak eskuratzeak garapen pertsonalean duen eraginaz eta aztura horiek adin hauetako haurrei irakatsi beharraz.

Hona hemen laburpen gisa eskuratu beharreko azturen berri⁴ :

Bitzitako bizipenekin zerikusia duten azturak:

a) *Autonomia pertsonala sendotzen duten azturak:*

- Elikadurarekin lotutako azturak.
- Higienearekin lotutako azturak.
- Atsedenarekin lotutako azturak.

b) *Norbere buruaren irudi positiboa indartzen duten azturak:*

- Norbere burua apaintzearekin lotutako azturak.
- Jokabide-arintasunarekin lotutako azturak.

c) *Norbere buruaren defentsarekin zerikusia duten azturak:*

- Suarekin eta kearekin lotutako azturak.
- Urarekin lotutako azturak.
- Tresnen eta produktuen erabilerarekin lotutako azturak.
- Trafikoarekin eta kalearekin lotutako azturak.

Lanarekin eta iharduerekin zerikusia duten azturak:

a) *Ordenarekin zerikusia duten azturak.*

b) *Lan intelektualarekin zerikusia duten azturak.*

c) *Ohiko iharduerekin zerikusia duten azturak.*

Komunikazioarekin eta elkarbizitzarekin zerikusia duten azturak:

a) *Autonomia pertsonalaren garapenarekin zerikusia duten azturak.*

b) *Pertsonarteko harremanak bultzatzeko azturak.*

c) *Taldeko esperientziak sustatzeko azturak.*

Garapen motelagoa duten haurrei, nahaste bereziren bat edo eta eskola-ingurunean ongi moldatzen eragozten dien desegokitzapen afektiboren bat dutenei eta gizarte zein famaliarengandik estimulazio eskasa jaso duten haurrei, toki eta une benetan apartak eskaintzen dizkie eskolak euren garapenerako guztiz funtsezkoak diren azturak intentzionalki konpentsatu eta bultzatzeko.

⁴ ZENBAIT EGILE, (1992). La educación Infantil (1.lib.) bartzelona. Paidotribo Arg.

Zenbait haurrentzat, arestian aipatutako "*ohiko egoerak*" bereziki nekezak gertatu ohi dira sarritan, estutasuna eta beldurra sentitzen dutelarik ingurunearen eskakizunen aurrean, konplexuegiak iruditzen zaizkie eta.

Hori gertatzen denean, hots, haurrek azturak eskuratzeko eragozpenak dituztenean:

Zer planteamendu har ditzakete Haur-Hezkuntzako irakasleek?

- ✍ *Haurrei eskatzen zaienarekin koherente izatea, egoera berdinetan gauza bera eskatzen diegula ziurtatuz.*
- ✍ *Iharduerak eta egitekoak banatzeko orduan erritmo egokiari eustea, ikasleei iharduerak burutzeko denbora nahikoa utziz. Haur bakoitzaren kasuan, erantzuteko behar duen denbora egokia errespetatzea.*
- ✍ *Aldi berean ikasi behar diren azturak zehaztea, kopuru txiki bat kontu handiz aukeratuz.*
- ✍ *Eginkizun horiek haur batzuentzat nekezak direla kontuan hartzea eta, halaber, alor horretan lortzen dituzten aurrerapenak baloratzea.*

Azturak eskuratu beharraz ari garela, ikaskuntzarekin zerikusia dutenak eta haur txikienen ikasteko moduarekin lotuta daudenak aipatu behar dira. Lanarekin eta ihardunarekin zerikusia duten azturak dira horiek, ordena izateko, arreta jartzeko eta eskolako zereginak buru-belarri egiteko lagungarriak gertatzen direnak.

Haur-Hezkuntzako bigarren zikloan, normalean, ikasleek ez dituzte oraindik arreta-azturak erabat garatu eta eskolan burututako lanen bitartez eskuratzeko dituzte. Horregatik, hain zuzen ere, zenbait kasutan, ikasleei eskolako hainbat zeregin burutzeko modu egokia emango dieten arreta-azturak konpentsatu eta bultzatu behar direla planteatu beharra dago.

Kasu horietariko batzuk D. Ross eta S.A. Ross-ek hiperaktibotasun deritzotenaren barruan sartzen dira. Adituen hitzetan ondokoa da hiperaktibotasuna: "*aktibotasun-maila altu eta iraunkorra, argi eta garbi desegokiak diren egoeretan ageri dena eta aktibotasun hori inhibitu eta menperatzeko gaitasun-eza ezaugarri nagusitzat duena*". Sarritan, haurren gehiegizko energiaren mutur-muturreko agerkaria besterik ez da hiperaktibotasuna edo, bestela, giroak ezarritako muga eta arauen aurkako erreakzio soil bat.

Alabaina, garapenean atzerapenen bat duten hurrek bereziki zailak iruditzen zaizkien eskolako egoeren aurrean duten jokabidea ere izan daiteke eta, hala bada, portaera gatazkatsuak nahiz besteekiko harreman sozial nahasiak eragin ditzake. Oro har, haur hiperaktiboek eragozpenak izaten dituzte ikasgelako arau eta jarraipide orokorrak onartzeko, txandak errespetatzeko; itxarotea eskatzen duten eskolako zereginen aurrean segurtasun-eza izaten dute eta ezin dute gertatzen zaiena edo euren sentimenduak adierazi inolako kontrolik gabeko ihardun baten bitartez ez bada.

Oro har, zera esan daiteke, goian aipatutakoak bezalako kasuak adin hauetako haur gehienek garapenean ageri direla, baina, zikloan zehar planteatutako lan arruntei esker arian-arian ingurunearen eskakizunak betetzen hasten direla. Hala izanik ere, zenbaitetan, hasieran somatutako eragozpen txikiei aurrea hartu beharko diegu, gerora konpontzen konplikatua diren jokabide-arazo bilakatu baino lehen.

Zer egin behar du eskolak horrelakoetan?

- ✦ Hurrei mugitzeko aukerak eman, jolasaren bidez, mugimenezko ihardueren bidez eta antzezpenen bidez, besteak beste.*
- ✦ Iharduerak prestatzerakoan, ikasle batzuek dituzten arreta-arazoak kontuan izan.*
- ✦ Esan nahi zaiena eta eskatu nahi zaiena haur guzti-guztiek ulertu dutela ziurtatu.*
- ✦ Ikusizko euskarriak erabiltzea, hala nola, grafikoak, marrazkiak, argazkiak, etab. eta ahozko azalpenekin konbinatzea, haur txikiei iharduera burutzeko tokiari, denborari eta moduari buiruzko orientabideak emateko asmoz.*
- ✦ Jokabide oldartsuak direla-eta, gelako beste hurrekin sor daitezkeen gorabeheriei buruz hitzegin.*
- ✦ Haurren aurrerapenak baloratu eta arrakastatsuak diren iharduerak proposatu, oso zailak diren egoerak alde batera utziz.*

2. INGURUNE FISIKO ETA SOZIALAREN EREMUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HEZKUNTZA-PREMIAK

Eremu honetako hezkuntza-premiak gizarte-elkarreraginezko egoeren edo eta gizarteko eta famili alorreko narriaduren ondorioz gertatzen dira. Batzuetan gelako ikasle bakar bati eragiten diote, baina, sarritan, ikasle-talde bati dagozkie, are, beste kasu batzuetan ikastetxe bateko ikasle gehienek horrelako egoerak bizitzea gerta daiteke. Egoera horiek direla bide, zenbait hezkuntza-premia sortzen da.

2.1. Jolasaren garapena konpentsatzeko premia

Jolasa da haur txikiek euren gurariak, esperientziak eta sentimenduak adierazteko duten modurik naturalena. Haurtzaroko funtsezko eginbeharra dela esan dezakegu, etapa horretako funtsezko iharduera, espontaneo eta borondatzekoa, neska-mutikoei berez atsegingarria gertatzen zaiena. Jolasa haurren garapenarekin estu lotuta dagoenez, haur-eskolan haur gehienek jolasen hainbat alderdi behatzeko abagadune ugari dugu, eta baita hezkuntza-premia bereziak eragingo dituzten ezintasunak dauzkaten haurren jolasak behatzeko ere, jakina.

Irakasleari dagokio ikasleen gaitasunen adierazgarriak antzematea eta jolasa tresna benetan egoki eta baliagarria da lan horretarako. Jolasean dabiltzanean, dituzten gaitasun eta trebetasunak erakusten dizkigute, eta helduen laguntza profesionalari esker garatzen joaten dira, nortasuna eratzeko lagungarri zaien heldutasun afektiboa eskuratzen, alegia.

Alabaina, haur guztiek ez dute jolasteko gaitasun bera. Haur batzuek beste kideek baino jolas-teknika atzeratuagoak dituzte, ezintasun baten erruz edo eta teknika horiek eskuratuak izatea eragozten dien atzerapenen bat dutelako garapenean. Horrelakoetan, "*jolasten irakatsi*" behar diegula planteatu beharra dago, hezkuntzako beste edozein helburu bailitzan, objektuak arakatu eta ezagutzeko gai izan daitezen, beste haur batzuekin harreman egokiak izan ditzaten, jolaserako estrategia desberdinak eskura ditzaten, etab. Baina, horretarako, irakasleak eta gelako gainerako haurrak izan behar dituzte lagun eta baliabide egokiak behar dituzte, hala nola, egokitutako jolasak etab. Jolasten irakasteak ondoko hiru helburuak ditu:

- ❑ haurra ingurunean integratzea
- ❑ astialdirako iharduera eta eginkizun atsegingarriak burutzea
- ❑ beste berariazko arlo batzuk garatzea, hala nola, motrizitatea, lagunkoitasuna, autolaguntza, komunikazioa, ezagutza, etab.

Goian aiptautako helburuak egokiak dira komunikazio eta elkarkoitasun-alorrean atzerapen larriak dituzten ikasleentzat, hizkuntz alorreko nahasteak dituztenentzat edo zentzumen-defizitak dituztenentzat. Ezintasun fisikoak dituzten haurrentzat ere egokiak dira, baina azken kasu honetan, denbora gehiago beharko dute bakoitzaren mugimen-arazoak kontuan hartuta landu ditugun jolasak ezagutzeko eta jostailuak erabiltzen ikasteko.

Txikiak direnean haur askok bakar-bakarrik jolasteko ohitura dute, luzaroan iharduten dira bakarrik, gizarteratze-jarraipideak ikasten dituzten artean. Bakarrik jolastea ere beharrezkoa da; are, haurrak duen kontzentrazio-gaitasunaren eta irudimenaren berri ematen digute bakarkako jolasek, ingurune hurbileko objektuak arakatzen eta aurkitzen ari delako seinale dira. Gauzak horrela, egoera hori guztiz normala da haurren garapenean eta, printzipioz behintzat, ez dugu zertan kezkatu beharrik.

Alabaina, kezkatu egin behar gara beti bakarrik ibiltzen badira edo besteekin jolasten ez badira; arduratu egin behar gara jolastu ezin direnean -bai inhibizioaren erruz edo eta jolasean lasai ibiltzen uzten dieten bestelako ihardueraren bat dutelako-, eta ingurunearekiko elkarreraginei erantzun mugatuak ematen dietenean eta horretarako estimuluren bat behar dutenean.

Jolasten ikasteko eta ikasten jolasteko toki bat eskaini behar diegu ikasleei. Lan hori **intentzionalki** egin behar da hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren kasuan, **jolasten lagunduz eta irakatsiz**. Bestalde, ikasgelaren programazioaren barruan bildu behar da horren berri, denbora eta espazio jakin batzuk finkatu behar direlarik nahitaez, psikomotrizitate-gelan edo eta ikasgelako txokoan.

Zein da haur-eskolaren eginkizuna?

✍ *Haur-eskolan berez sortzen dira jolaserako aukera benetan aberasgarriak, haurren elkarreraginak eta gizarte-garapena bultzatzen duten aukerak, hain zuzen ere.*

- ✍ *Haur-Hezkuntzako eskoletako ikasgelak jolaserako aproposak izateko moduan antolatu daitezke, jolas sinbolikoak eta simulazioak egiteko txokoak prestatu daitezkeelarik bertan.*
- ✍ *Haur txikiek nola jolasten duten behatu behar dute irakasleek, oinarrikoa baita bakoitza zein unetan dagoen jakiteko eta jolasteko modua izan dezaten behar diren materialak eta egoerak proposatu ahal izateko.*
- ✍ *Kideekin jolastera bultzatu behar dituzte haurrak, eredu bilakatuz behar izanez gero.*
- ✍ *Jolasten ez dakiten haurrei "jolasten irakatsi" behar diete, objektu eta jostailu berriak erabiltzen irakatsi, hots, nola erabiltzen diren, arauak, txandakako jolasak etab. zertan diren azalduz.*
- ✍ *Zenbait haurrek ezarritako jolas-fasea eta erritmoa errespetatu. Haur gehienek besteek nola jolasten duten behatu behar dute parte hartzeko estimulu gisa edo, arian-arian aktiboagoak bihurtzen direlarik besteek nola jolasten duten behatuta (jolas periferikoa), edo kideekin jolasean, harik eta jolas erreal batean sartzeko gai diren arte.*
- ✍ *Jostailuak aukeratu eta egokitu, eta ezintasunen bat duten haurrentzat erabilgarrien gerta daitezkeenak hautatu. Jostailuak aukeratzeko orduan kontuan izan behar dira haurren premiak.*
- ✍ *Jostailuak egokitu, ezintasun desberdinak dituzten ikasleek erabiltzeko modukoak izan daitezzen, bai fisikoki eta baita mekanikoki ere.*

2.2. Gizarte-garapena eta gizarte-trebetasunak konpentsatzeko premia

Garapen sozial eta afektiboak funtsezko eragina du haurren garapen globalean, garapeneko gainontzeko prozesuak bultzatzen eta indartzen baititu, hala nola, mugimenezko garapena, hizkuntz garapena eta garapen intelektuala, besteak beste. Haur txikien gizarte-mundua gizarteratze-agente desberdinak medio eratzen da; izan ere, agente horien multzoaren barruan, familiak, eskolak eta kideek eragin bereziki garrantzitsua dute gizarteratze-prozesuan.

Haur-eskolan sartzen diren une berean gizartean sartzen dira haur txikiak, hots, "besteen giroarekin", famili esparrutik at dagoen munduarekin topo egiten dute. Gizarteratu bezain laster, familian ezagutu dutenarekin alderatuta guztiz bestelakoa den ingurune bat aurkitzen dute, askoz igurune zabalagoa, printzipioz ezagutzen ez dituzten arau eta irizpide batzuek gidatutako ingurunea, afektibotasunean baino gehiago ihardueretan ardaztuta dagoena. Hala izanik ere, ez dugu ahaztu behar afektibotasunak berebiziko garrantzia duela hezkuntzako etapa honetan.

Aldi berean, haur-eskolan hasterakoan, adin bereko kideen taldean parte hartzen hasten dira haurrak; esperientzia berriek eta ikaskuntzek osatutako testuinguru berri bat aurkitzen dute, gizarte-egoera berriak ezagutzen dituzte, bertara moldatu behar direlarik. Adin honetako haurrek jarrera desberdinak hartu behar dituzte, hau da, egoerak besteen ikuspuntuaren arabera hautematen ikasi behar dute, besteak pentsatzen duena kontuan hartu behar dute eta gainerakoekin emozioak onartu, gizarte-egoera egokietan kokatuz. Bestera esanda, beste pertsonekin harremanetan hasteko trebetasunak eskuratzeko gai izan ez ezik, euren burua ororen gune dela aherentzi behar dute. Hori ez da bapatean gertatzen, arian-arian baizik.

Haur-eskola gizarte-alorreko ikaskuntzak eskuratzeko aukerarik apartena da, ingurune berria, helduekiko harreman berriak, kideekin harremanak izateko aukerak eta harremanetarako eredu berriak eskaintzen baitizkie haurrei, gizartean moldatzeko teknika eraginkorrak berenganatzeko bidea ematen dielarik; eta teknika horiek ezin dituzte beste edozein lekutan ikasi.

Hona hemen eskolak eskaintako gizarte-estrategien berri:

- talde-ihardueretan parte hartzeko modua ematen die haurrei.
- gizarte-harremanen kopurua areagotzea eta aniztea ahalbidetzen du.
- menpekotasun-jarrerak murrizten ditu eta haurrek berria edo eta arrotza denaren aurrean duten beldurra txikitzen.
- aztura pertsonalak (lo egitea, jatea, apaintzea, etab.) hobetzen laguntzen die.

Talde guztietan dago besteekin harremanak izateko arazoak dituen haurren bat. Adina, sexua, gizarte-testuingurua eta iharduera edo egoera alde batera utzita, zenbait haurrek, noizean behin edo beti, arazoak izaten ditu besteekin harremanetan hasteko eta jada hasitako erlazioak iraunarazteko, eta haur horiek sufritu egiten dute beste pertsonekin elkarreraginak dituztenean.

Gizarte-harreman behar bezain aberasgarriak ez dituzten haurrek ingurunearekiko, objektuekiko, espazioekiko eta pertsonetikiko interesa galdu ohi dute. Haur batzuek besteekin baino eragozpen handiagoak izaten dituzte gizarte-harreman irekiak izateko, zenbait bizipen pertsonalen erruz, hain zuzen ere, hots: gaisotasunen bat izan dutelako, haien famili giroan aldaketa handiak gertatu direlako edo eta besteekin harremanak izatea eragozten dien elbarritasunen bat nahiz atzerepenen bat dutelako.

Horrelako egoeraren bat jasan dutenak berekoitasuna eta menpekotasuna nagusi diren bilakaera-fase batean daude oraindik, jarrera elkarkoiak, altruistak eta lankidetzazkoak eskuratzen uzten ez dien fase batean, alegia.

Esanak esan, harreman-eredu edo estilo ugari dago, haur bakoitzaren nortasunaren, heltze-prozesuaren eta haurrak hezteko moduaren arabekoak. Azken kasuan haurrak menpekotasun-jarraipideak aintzat hartuta ala autonomia nahiz ekimen-maila handiz heziak izan ote diren hartzen da kontuan, autonomia eta ekimena indartu badira askoz errazagoa gertatuko baitzaie kideekin harremanetan hastea eta taldean integratzea. Gauzak horrela, txikiak direnetik, haur batzuek aitzindaritzarako joera dute, beste batzuek, berriz, menpekotasunerako joera, proposatzen zaienari jarraitzeko joera, alegia, edo eta bakartzeko nahiz inhibitzeko joera.

Taldean integratzeko prozesua arrakastatsua izatea ala ez ondoko hauen menpe dago:

- haurrak familian izandako bizipenen menpe eta ikasitako harreman-ereduen menpe.
- taldearen ezugarrien menpe, arian-arian eskuratzen dituzten onarpen-ereduen menpe bereziki.
- bitartekari lana egiten duten helduek emandako laguntzaren menpe, eta, batez ere, irakasleen laguntzaren menpe.

Nahaste indibidual larriak baldin badaude, gizartean egokiak ez diren jokabideak edo eta jokabide eskasak azal daitezke, ondokoak besteak beste: gainerako haurrekin inolako elkarreraginik ez izatea, besteak hurbiltzen direnean erantzuteko gai ez izatea, besteekin ez hitzegitea, talde-egoeretan bakartzea, edozein arazo txikirekin topo egiten den bakoitzean helduren bati laguntza eskatzea, jolasteko eragozpenak izatea, objektu eta jostailuak apurtzea, etab. Beste kasu batzuetan, ordea, jokabide benetan erasokorra eta agresiboa izaten dute neska-mutil batzuek ahulekiko, eta haur ahulek, beldurrez edo herabez, besteek esaten dietena onartzen dute.

Gelako kideek baztertu egiten dituzte maiz hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak eta, horrexegatik, nolabaiteko gabeziak eta desegokitzapenak izaten dituzte besteekiko portaeran. Hori dela eta, bultzatu egin behar da harremanen arloa, gizarte-alorreko desegokitzapenak gerta ez daitezen.

Horrelako egoerei aurre egiteko asmoz, gizarte-hezkuntza eta taldean moldatzeko erabilgarriak diren gizarte-trebetasunen garapena ahalbidetuko dituzten estrategiak

sartu behar dituzte irakasleek curriculumean, hori eginez gero izugarri aisatuko baitute eragozpen intelektual edo eta sozialen bat duten haurren garapena. "Gizarte-ingurukoak" irakastea helburutzat duen planteamendu horrek, intentzionala izan behar duelarik, gizarte-trebetasunak eskuratzeko modua eman nahi die hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei, baina lan horretarako ere, beste eremuetan bezalatsu, helburuak eta esku-hartzerako estrategiak planteatu behar dira.

Zer funtzio du haur-eskolak aipatu ikaskuntzetan?

- ✍ *Haurraren hezkuntza pertsonala eta soziala ahalbidetzeko moduko giro eta aukera egokiak esnaintzea haurraren harremanak eta gizarte-bizitza aberastu eta bideratu egin behar dituelarik.*
- ✍ *Eskolako lanen bitartez komunikazio-gaitasuna areagotzea, ikasleei autoadierazpenerako nahiz besteekiko komunikaziorako gaitasunak emango dizkieten trebetasunak landu behar dira, besteekin sintonizatzeko eta elkarrizketak izateko gauza izan daitezzen, bai hitzezkoak eta baita "keinu edo jarrera bidezko elkarrizketak" ere.*
- ✍ *Haur txikiek jadanik euren familian ikasitako harreman-estiloak osatzea eta harreman-eredu aberasgarriagoak ahalbidetuko dituzten egoerak sortu.*

Jarraian, haur guztientzat egokiak izan daitezkeen iharduera eta ideia batzuek azalduko ditugu iradokizun gisa. Ideia horiek intentzionalki eta ikasle bakoitzarekin praktikan jarritz gero, lagungarri gerta dakizkieke hezkuntza-premia bereziak dituztenei gelako beste kideen jolas eta ihardueretan parte hartzen ikasteko.

Nola lagun diezaiokegu eragozpenak dituen haur bati taldean parte hartzen?

- ✍ *Komenigarria da irakasleak berak ere ihardueran parte hartzea eta haurrari taldean integratzen laguntzea. Haurra taldean parte hartzen hasitakoan ez dio laguntza gehiago eman behar. Adibidez: ikaskideak dendaritan jolasten ari badira, haurrari erosketak egitera laguntzen dion lagun batena lagun batena egin dezake irakasleak.*
- ✍ *Besteen ihardueretan zer-nolako ekarpenak egin ditzaketen erakustea. Hobe da zerbaitetan jolasteko proposatzen hurbiltzea, "ibil naiteke?" galdezka inguratzea baino.*
- ✍ *Objektuak eta jostailuak integrazioa bultzatzeko bitartekari apartak dira. Neskato batek besteekin jolastu nahi badu eta besteek behar duten edo nahi duten objektu bat baldin badauka, errazagoa gertatuko zaio taldean sartu eta jolasten hastea. Estrategia hori eragozpenak dituzten haurren partaidetza bultzatzeko erabil daiteke.*
- ✍ *Prestatutako ihardueretan, haur bakoitzari bere mundu indibidualaren berri azaltzeko aukera ematea: familiako eta etxeko gorabeherak, euren kontuak adierazi ahal izateko aukera ematea, alegia. Horretarako zer egin duten kondatzera eta galdetzerara bultzatu behar ditugu, zer gertatu zaien edo zer atsegin zaien azaltzera.*
- ✍ *Euren gauzak ikasgelara eramaten utzi behar diegu haurrei, bertan erabiltzeko, besteek uzteko, babesteko, etab.*

✍ Irabazten eta galtzen, arauak eta txandak errespetatzen, norbere agresibitatea kontrolatzen, etab. irakatsiko dizkien jolasak landu behar ditugu.

2.3. Kaltetutako ingurune sozio-kultural batetik eratorritako egoerei erantzuteko premia

Haur guztiek, oinarrizko irakaskuntzan hasterakoan, baldintza berberak dituztela bermatzea da Haur-Hezkuntzaren eginkizunetariko bat, eta horretarako, araututako irakaskuntzari heltzeko trebetasun eta abildadeak eskuratzeko denbora-epe jakin bat behar dute haurrek eskolatzeko formala hasi aurretik. Kaltetutako ingurune sozio-kultural batetik datozen haurrek ez dute esperientzia jori eta anizturik burutzeko aukerarik izan, ziurrenik baliabide egokirik izan ez dutelako, eta, ondorioz, eskolatzeari ekiterakoan, nekez izango dute ezarritako ikaskuntzak eskuratzeko aukera. Baliabide arazorik ez badute, eskolan arruntak direnez besteko baloreak eta azturak ikasiak izatea gerta daiteke; horrelako kasuetan ere eragozpenak izaten dituzte haurrek ikaskuntzak eskuratzeko, guk gabezia horiek ezabatzeko modu egokirik jarri ezean behinik behin.

Kaltetutako ingurune sozio-kultural bateko partaide izateak ez du esan nahi gurasoek arreta egokirik eman ez dietenik edo eta famili arazoak dituztenik. Aitzitik, baliabide material eskasak dituzten familia askok eta askok seme-alabei ongi hazteko behar duten afektu, arreta eta babesa ematen dizkie. Hala ere, zenbait kasutan, baliabide eskasak izan ez ezik, famili arazoak ere izatea gerta daiteke, hau da: gurasoak langabezian egon daitezke ala gaisorik, drograzaleak izan daitezke, famili gunea egiturarik gabekoa izatea gerta daiteke, tratu txarrak egon daitezke, etab. Horrelakoetan arazoak hain dira ugariak eta handiak non haurrei, eta, ondorioz irakasleei ere, eguneroko bizitza guztiz hankazgora dagoela iruditzen zaien.

Oro har, aurkako ideiak adierazten dituzten oinarri-oinarrizko kontzeptuak, hala nola, gaua-eguna, garbia-zikina, jatea-iraiztea, barrukoa-kanpukoa, etab. famili giroan ikasten dituzte haurrek, edozein familietan ongi bereizirik eta erabat markaturik dauden kontzeptuak baitira horiek, haur txikien nortasuna eratzeko guztiz ezinbestekoak. Goian aipatutako arazoren bat duten familietan, ordea, kontzeptu horiek, egunerokoak izan arren, ez daude hain ongi bereizirik edo markaturik, sarritan eguneroko bizitzan ez baitute erritmo edo errutina zehatzik, otorduetarako, garbitzeko eta lotarako ordutegi aldrebes samarrak baitituzte eta inolako azalpenik eman gabe etorri eta joan egiten baitira gurasoak.

Bizi-kalitatearen narriadura anitz modutara ager daiteke haurren garapen-prozesuan zehar; oro har ondokoetan nabari da batik bat:

- ❑ haurrak besteekin dituen harremanetan, inhibizioa, mesfidantza, agresibitatea, oldarkeria, etab. baitira nagusi.
- ❑ bere buruarekiko harremanean, bere buruarekiko autodesbalorizazio-sentimenduan.
- ❑ hizkuntza eta bestelako ezagutzak garatzeko eran.

Horrelako arazoak dituzten haurrak direla-eta, ez dugu pentsatu behar adimenean, motibazioan, gaitasunetan edo eta garapenean urritasunak dituztela, oro har, kultur jarraipideek, interesek edo eta gaitasunak adierazteko moduak eragindako berezitasunak besterik ez dira eta.

Zer eskatzen zaio haur-eskolari horrelako kasuetan?

- ✍ *Egoera horiek aberastu eta orekatu behar ditu eskolak, funtzio didaktiko, berdintzaile eta hezitzailearen bitartez portaera horiek guztiak aldatzeko modua baitu.*
- ✍ *Kontua ez da haurrak ezagutzen ez dituzten hizkera edo eta adierazpen-jarraipideak erabiltzera behartzea, baizik eta esperientzia-multzoa ahal bait gehien zabaltzea, aurrerantzean baliagarriak izango zaizkien pertzepzio, adierazpen eta erabilpen-baliabideak trebatu ahal izateko.*

Zer behar dute kaltetutako ingurune sozio-kultural batetik datozen haurrek?

- ✍ *Helduekin eta eginkizunekin harreman berriak ezartzea, ingurune argia, iraunkorra eta aurrikusgarria izateko.*
- ✍ *Haurraren, taldearen eta irakaslearen arteko harreman afektibo sendoa ezartzea, ingurunearekin duen erlazioa arian-arian aldatu ahal izateko. Guztiz positiboa da hori, halaber, ezagutzak bultzatzeko eragile gisa: haurraren nortasun-zentzua areagotzen du, pasibotasuna aktibotasun bihurtzen, esperientzia pertsonal positiboak metatzeko lagungarria da, etab.*
- ✍ *Ingurunea dela-eta, aktiboki iharduteko ahalik eta aukera gehien ematea; horrek zera esan nahi du, irakasleek gogor lan egin beharko dutela eta haurren jolas eta ihardueretan parte hartu beharko dutela.*
- ✍ *Bakoitzaren ezaugarrien araberako sarbide-prozesu malgu eta egokia bultzatzea. Aldez aurretiko ezagutzak aberastu ez ezik, haurren mundu emozional eta afektiboa ere jorratu behar da -aurrekoa baino gehiago, behar bada-, nortasun pertsonalean, bestekin harremanak ezartzeko ohiko estiloan, eginkizun intelektualei heltzeko moduan, arreta-azturetan eta abarretan izugarritzko eragina baitu.*

3. KOMUNIKAZIO ETA ERREPRESENTAZIO-EREMUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN HEZKUNTZA-PREMIAK

Komunikazioaren bitartez, euren sentimenduak aditzera eman eta besteek adierazitakoak ulertzeko modua izan ez ezik, ingurunearekin harremanetan egoteko bidea ere badute haurrek; hori horrela, zenbat eta komunikatzeko bide jori eta ugariagoak ezagutu, hainbat eta errazagoa gertatuko zaie komunikatzea. Haur txikienean espontaneoki ematen diete zaindariei sentitzen dutenaren berri; hazi ahala eta errepresentazio zein komunikazio-modu desberdinak ikasi ahala, askoz aberatsagoa bilakatzen da ingurunearekin duten harremana.

Leku ezin hobea da eskola komunikatzeko eta adierazteko bide berriak ezagutzeko, eta adierazpenak gero eta landuagoak diren edukinez transmititu ahal izateko, bertan eskuratzen baitira komunikaziorako trebetasunak. Eremu horrek haurrek komunikatzeko erabiltzen dituzten adierazpen eta errepresentazio-modu guztiak barnebiltzen ditu. Hitzeko komunikazioa soilik aipatuko bagenu, garrantzia kenduko genieke hitzeko komunikazioa baino lehenago erabili ohi ditugun komunikatzeko moduei, eta modu horiek ere komunikatzeko aukera zabal eta ugariak eskaintzen dizkigute. Ezin alboratu ditzakegu, beraz, hitzekoaren aurreko komunikazioa, keinu bidezkoa eta gorputz bidezkoa eta, era berean, arte, adierazpen, musika edo antzezpenen bidez ditzera emandakoa. Errepresentazio-moduak ere ezin ditugu ahaztu.

Komunikazio eta errepresentazio-eremuan ondoren aipatuko ditugun alderdiei dagozkien hezkuntza-premiak sor daitezke.

3.1. Komunikazio-prozesuak garatu eta bultzatzeko premia

Komunikazioak, zentzu zabalean ulertua, haurrek edo eta helduek beste pertsona batzuen jokabidean edo pentsamoldean eragina izateko intenzionalki erabiltzen dituzten jokabide guztiak barnebiltzen ditu, besteei euren gurari eta sentimenduen berri emateko eta zerbait egitera bultzatzeko erabili ohi dituzten jokabideak, hain zuzen ere. Haurraren eta helduen artean haren bizitzako estraineko urteetan gertatu ohi diren elkatrueen emaitza da ikaskuntza, baina ikaskuntza hori erabat gauzatu ahal izateko, bata bestearen komunikazio-trebetasunei egokitu beharra dago, lagunak dioena ulertzeko eta norberak nahi duena aditzera emateko.

Komunikazioa hitzegitea edo besteek diotena ulertzea baino gehiago ere bada. Komunikazioa izatekotan, ondoko elementuak behar ditugu nahi eta nahi ez: talde bateko kide guztiek ulertzen dituzten hitzez edo eta keinuz osatutako zeinu-sistema bat, besteei zerbait komunikatzeko gogoia, helburu bat edo komunikatu nahi dugun zerbait, eta, azkenik, errealitatea -begien aurrean izan gabe ere- irudikatzeko modua. Haur garenean garatzen da prozesu hori; une berean eratzen dira, halaber, komunikazio-funtzio garrantzitsuenak. Hona hemen funtzio horien berri:

- ❑ Funtzio erregulatzailerak. Komunikazioaren zati handi batek gizarte-jokabidea erregulatzeko balio du. Gurariak azaltzen ditugunean erabiltzen dugu komunikazioaren funtzio erregulatzailerak, ingurunean dauden objektuak eskuratzeko, solaskidearen arreta gureganatzeko edo eta hark ekintzaren bat betetzeko.
- ❑ Funtzio deklaratorikoa. Askotan, komunikazioaren helburua informazioa jakinaraztea eta elkartrukitzea da: objektuak identifikatzea, gertakariak deskribatzea, emozio edo eta sentipenak adieraztea, arrazoiak, zergatiak azaltzea, justifikatzea, etab.
- ❑ Funtzio interrogatibo edo heuristikoa: Funtzio hori esker, errealitatea arakatzeko modua dute haurrek, informazioa eskatzen diote solaskideari, etab.

Funtzio erregulatzailerak agertzen da lehenbizi haurren garapen prozesuan eta, segidan, funtzio deklaratorikoa. Funtzio horien bien aurrekariak garapen-arazo larriak dituzten haurren hitzezkoaren aurreko etapan aurki ditzakegu. Aipatu fase horretan begiradaren, keinuen, gorputzaren mugimenduen eta abarren bidez eskatzen dituzte haurrek nahi dituzten gauzak; ez bairik gabe komunikazio-jokabide horiek aprobetxatu eta zabaldu egin behar dira.

Hizkuntza azaldu baino lehen, bestelako komunikazio-jokabide batzuk garatu behar dira, hala nola: ikusizko kontaktua, aitzinapen-jokabideak, imitazioa, keinu eta adierazpen bidezko erantzunak, mimika, indikazioak, objektuak seinatzea, aurpegikerak eta gorpuzkerak, jolasak, etab., hitzezko mintzairaren aurrekariak baitira guztiak. Bilakaera-prozesu normal batean, arestian aipatutako komunikazio-prozesuak hizketa baino lehenago agertzen dira, horrexegatik, hain zuzen, deritzogu hitzezkoaren aurreko komunikazio adierazpide horiek osatutako multzoari. Bizitzako estraineko urteetan, hots, 0 urte dituztenetik 3 urtera bitartean eskuratu dituzte

haurrek. Gauzak horrela, eskolan hasten direnean guztiz finkaturik daude jadanik hitzezko mintzaira lantzeko bidea emango dieten komunikazio-jokabideak.

Dena den, zenbait haurren komunikazio-jokabideak direla-eta, oso zaila da jakiten benetan zerbait komunikatzeko asmoa ote duten. Haurrak zenbat eta txikigoak izan eta haien adierazpenak zenbat eta zehazgabeagoak izan, orduan eta zailagoa da komunikatzeko asmoa dutenentz jakitea. Komunikazio-jarraipideak behatu eta bereizteko eragozpenak sortzen dira, halaber, garapenean komunikazio-gaitasunari eragiten dion atzerapen larriren bat duten haurren kasuan, ez baitute argi erakusten noiz eta nola ari diren besteekiko elkarreraginean. Bigarren eraskinean hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren komunikazio-jokabideak behatzeko eskala bat aurkeztuko dugu.

Esan dugunez, garapen-prozesuan atzerapen larriren bat duten haurrek eragozpenak izan ohi dituzte komunikazio-arloan ere. Sarritan, eskolan hasteko zorian daudela, ez dute hitzezko mintzaira garatu eta hitzezkoaren aurreko jokabideak erabiltzen dituzte komunikatzeko, are, zenbait kasutan, hitzezkoaren aurreko jokabideak erabat garatu gabe daude oraindik eta ezin dituzte erabili ezagutzen ez duten ingurune batean komunikatzeko bide gisa. Honelako eragozpenak izaten dituzte horrelako haurrek:

- ❑ besteekin harremanak izateko edo taldeak proposatutako forma landuagoei erantzuteko interesik ez dute, hots, ez diete elkarreraginezko jolasei, abestiei, mimikari eta abarri erantzuten.
- ❑ jolasetan, imitazioetan eta abarretan ez dute inolako interesik, irudimenik eta sormenik erakusten.
- ❑ aurrean ez dutenaz, iraganaz edo eta etorkizunaz aritzeko eragozpenak dituzte.

Nola bultzatu komunikazio-prozesuak?

- ✍ *Komunikatzeko arazoak dituzten haurrek gehiago eta hobe komunikatzeko aukerak behar dituzte; hori horrela, komunikatzeko abagadune egokiak sortu ez ezik, beste ikasleekiko askotariko elkarreragin naharo eta aberasgarriak ere bultzatu behar ditugu.*
- ✍ *Haur bakoitzaren komunikazio eta hizkuntz trebetasunak aintzat hartu behar ditugu. Horrek ez du esan nahi eragozpenak dituzten haurrekin komunikazioak pobrea izan behar duenik; aitzitik, dituzten komunikazio-ahalbideak kontuan hartuta ingurunean gertatzen diren gertakariak interpretatzen lagundu behar diegu.*
- ✍ *Komunikazioa sor dadin, dioguna ulertarazteko bide guztiak erabili behar ditugu: aurpegikerak, keinuak, gorpuzkerak, objektuak seinalatu, grafikoak egin, etab.*

- ✍ *Lantzen ari garen iharduera edo gaia azaltzeko, ikusizko irudiak erabili. Grafiak, marrazkiak, sinboloak, argazkiak, etab. baliabide zinez baliagarriak dira egoerak aditzera emateko eta haurrek komunikatzeko bide gisa baliatzeko.*
- ✍ *Eguneroko bizitzako egoerak oinarritzat hartuta, elkarreraginezko jokoak prestatu eta erabili behar ditugu, jateak, lo egiteak, sukaldaritzan aritzeak eta abarrek komunikazioa eta mintzamina lantzeko aukera paregabeak eskaintzen baitizkigute.*
- ✍ *Ikasgelaren programetan OBJEKTUAK, IMITAZIOA ETA JOLASA, bai objektuekin burututako jolasak eta baita jolas sinbolikoak ere, lantzeko iharduerak sartzea.*
- ✍ *Haurrekin batera arreta lantzeko iharduerak burutu behar ditugu, hala nola: irudiak dituzten liburuak begiratu, jolas didaktikoak edo egunerokotasuna oinarri duten jolasak egin, esate baterako, kopinei janaria eman, bainatu, etab, oso egokiak baitira haur inhibitituak edo eta adierazpen-eragozpenak dituzten haurrak komunikatzera bultzatzeko.*

3.2. Hizkuntz komunikazioa garatu eta konpentsatzeko premia

Ziklo honetan beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta harremanak izateko bide nagusia bilakatzen da ahozko mintzaira, ingurunearekin, gainontzeko haurrekin eta inguruan dituen pertsonekin burututako elkartruke indibidual ugarietarako eskuratzen duelarik haurrak. Hizkuntzak haurraren pentsamenduak, ekintzak eta, azken batean, nortasuna egituratzen ditu nolabait eta gizarte-jokabideak arautzen, hain da garrantzitsua non informazioa eta kultura eskuratzeko komunikazio-tresna nagusia den.

Guztiok dakigunez, haurrek ez dute hizkuntza erritmo berean eskuratzen eta logikoa da mintzamina eskuratzen dauden une horretan aldakin indibidual ugari sortzea. Aldakin horiek direla-eta, sarritan desfase kronologikoak gertatzen dira, oro har bilakaeraren jarrapide normala errespetatzen dutenak, hala nola, hizkuntzaren atzerapen sinpleak edo eta ahoskera-akatsak. Desfase horiek jarraipide normalaren aldakinak besterik ez dira eta desagertu egiten dira haur-hezkuntzako ikasgeletan eskaintako eta ikasgelaren programazioan bildutako laguntza eta errefortzuei esker.

Eskuarki, adin hauetako haurren kasuan, hizkuntzaren estimulazio-aldia hasi berria dutenean, erabiltzen dituzten edukin edo hitz-motak ez dute aparteko garrantziarik, garrantzitsuena zera da, elkarrizketa hasteko gai izatea, galderak egitea, euren interesei jarraitzeko prest dagoen eta hizkuntz eredu aberasgarri eta zuzenak irakasten dizkion solaskideren bat izatea. Atzerapen arin gehienak iragankorrak dira

eta berez desagertzen dira eskolan hasi bezain laster, curriculum arruntean hizkuntza estimulatuta eta aberasteko programei heldu bezain pronto.

Alabaina, atzerapen larriak ere badaude, nahaste fonetikoak eta egokitzapen nahaste orokorrak eragiten eta, ondorioz, hezkuntza-premia bereziak sortarazten dituztenak. Alde horretatik, ondoko kasuetan esplorazio espezializatuagoa egitea komeni ote den pentsatu behar dugu:

- ❑ haurrak, 12-24 hilabete inguruan izan arren, jerga espontaneorik ez duenean eta hitzak nahiz agindu errazak ulertzen ez dituela dirudienean.
- ❑ 24 hilabete bete eta lehen hitzak esaten hasi ez bada eta nahi duena seinalatzen edo aditzera ematen saiatzen ez bada.
- ❑ 3 urte izan arren, bizpahiru hitzez osatutako perpausak eratzeko gauza ez denean.
- ❑ 42 hilabete igaro ondoren inguruan dituen pertsonen ulergaitza iruditzen zaien hizkera erabiltzen duenean.
- ❑ atzerapen horrekin batera jolasekiko interes-eza, besteekin elkarreraginak izateko gogo-falta, bakartzeko joera, besteek egiten dutena imitatu edo jarraitzeko asmorik eza,... ere nabari baldin badira.

Oro har, haurren garapen normalean ageri ez diren anomalien eta hizkuntz jarrapideen erruz gertatu ohi dira hizkuntza eskuratzeko atzerapenak; izan ere, disfasia eta afasien erruz, entzumen-urritasunen erruz edo eta komunikazio-ezaren erruz, besteak beste, sortzen dira arestian aipatutako atzerapenak. Horrelakoetan, haur-eskolan ahozko mintzaira estimulatzeko erabiltzen diren jarraipide orokorrean gain, motelegia den bilakaera hori bizkortuko duten lan indibidualak praktikan jarri behar dira ikasgelan, hori egin ezean arriskutan baileudeke haurraren eskolatzea eta integrazioa. Hona hemen haurtzaroan azaldu ohi diren hizkuntzaren nahasteetariko batzuen berri:

- ❑ Entzumen-urritasunak. Hizkuntza eskuratzeko orduan berebiziko garrantzia dute; hori dela eta, ikasgelan emandako laguntza nolabait indartzeko, laguntza espezializatuagoak eman behar zaizkie horrelako arazoak dituzten haurrei, hots, helduek eta beste haurrek diotena ulertzeko aukera gehiago eman behar zaizkie, inguruan gertatzen direnak ongi ulertzen dituztela bermatu behar delarik. Horretarako, hain zuzen, ohiko laguntza tekniko eta komunikatzeko sistema alternatiboak erabiltzeaz gain, ikasgelaren programazioko elementu batzuk aldatu behar dira, hala nola, materialak, iharduerak, haurrarekiko

komunikazio-jarrera, etab. Horretaz guztiaz aurrerago hitzegingo dugu, IV. kapituluan *"Entzumena-defizita duten haurrak"* atalari dagonion fitxan.

- ❑ Haur-disfasia. Hizkuntza eskuratzeko orduan sortzen den berariazko nahastea, hitzeko jokabide anomaloak eta eskuratze-pozesu normalen desbideraketa eragiten dituena. Gutxitan gertatzen da eta ondokoan datza: haurrek ez dute ahozko mintzaira garatzen edo gauzak adierazteko gaitasun mugatua dute 3-4 urte dituzten arren. Hizkuntza ez jakiteko zergatia ez da entzumen edo mugimen-urritasunak dituztela, ez urritasun intelektualak edo lesio organikoren bat dutela ez eta ingurunearen deprezioaren eragine ere gertatzen. Irakasleak garrantzi berezia du, irakasleak bultzatu behar baitu haurra eskuratzen dituen komunikazio-trebetasunak (keinuak, mimika, grafikoak, etab.) egunero praktikan jartzera. Gainera, heziketa logopedikoa ere beharko du ziurrenik ikasgelan jasotako estimulazio globala indartzeko eta, zenbait kasutan, komunikazio-sistema aldatiboak ere ikasi behar ditu, gerora eskolatzea eta gizarteratzea zalantzan jar dezakeen bilakaera motelegia bizkortzeko asmoz.
- ❑ Haur-afasia. Garuneko lesio bat, traumaren bat, tumoreren bat, istripu baskular bat, infekzio-prozesuren bat etab. direla medio hizkuntz funtzioak nahastu egiten dira. Aipatutakoren bat gertatuz gero, noizbait, lehendik ikasia genuen hizkuntza ahaztu egiten zaigu, etzumenezko ulermenean arazoak ditugu eta gauzak izendatu eta deskribatzeko problemak ditugu, besteak beste. Lesioa txikitzen bada, orduan eta errazago osa daiteke eta, nahiz eta berandu samar, lehen genituen hizkuntz funtzio guztiak berreskuratzeko aukera dugu. Afasiak sendatzeko orduan, izugarritzko eragina dute berezko osaketaren aldaketa neurologikoen; lagungarri dira, aldi berean, lesioa sortu bezain laster burutu beharreko esku-hartze pedagogiko eta logopedikoaren errefortzuak.
- ❑ Mututasuna. Besteekiko harremanetan gertatzen diren nahasteen ondorioz sortzen da mututasuna, harreman-nahasteek komunikazio-gaitasunari eragiten diote eta, beraz, mintzamenari. Eskola-inguruneari moldatu ezinak eragin ditzake horrelako nahasteak, hori da, esate baterako etxean edo eta ezagunekin soilik hitzegiten duten haurren kasua. Ikasgelan horrelako arazoak dituen ikasleren bat egonez gero, irakasle eta familiakoek elkarlanean aritu beharko dute, nahaste horren inguruan kaltegarriak izan daitezkeen gutxiagotasun sentimenduak, angustia, hitzegiteko esijentziak etab. sortzen baitira.

Saihesteko, integrazioa ahalbidetuko duen balorazio-jarrera bat kontrajarri behar zaie aipatu sentimenduei.

Nola bultzatu hizkuntz komunikazioa haur-eskolan?

- ✦ *Gure jarrerarekin benetan funtsezkoa den zerbait, komunikazioa, alegia, albora ez uztea lortu behar dugu. Haurrek gaizki hitzegiten badute ere, komunikatu nahi digutenaren nondik-norakoak ulertzen saiatu behar dugu.*
- ✦ *Taldearen aurrean ez diogu nahasteaz hitzegin behar edo ez dugu gaizki ahoskotatuko hitzak behin eta berriz errepikatzera behartuko; gainerako haurren erreakzioak kontrolatzen saiatu behar dugu, negatiboak izan daitezke eta. Ikasle bakoitzarekin bakarka lan egiteko uneak, talde txikitik ihardutekoak edo eta jolastekoak oso aproposak dira laguntzeko eta hizkuntz eredu zuzenak aurkezteko.*
- ✦ *Zuzenketak zaindu behar dira. Haurrek egindako akatsak azpimarratu behar dira, baina diotena eten gabe; esaten ari zirena bukatutakoan berriro errepika dezakegu esaldia, modu zuzenean errepikatu ere, esandakoaren eredu zuzena aurkezteko asmoz.*
- ✦ *Arrakastak nabarmendu. Sarritan, hizkuntz eragozpenak dituzten haurrek halako porrot-sentsazio bat izaten dute eta oso gutxitan txalotzen zaizkie ongi egindako lanak, hori dela eta ongi egiten dutena nabarmendu behar dugu bere buruarekiko autoestimua eta segurtasun pertsonala hobetzeko.*
- ✦ *Ikasgela antolatzeke orduan, haur bakoitzarekin hitzegiteko denbora apur bat utzi behar dugu. Denbora gutxi izanda ere, eragin izugarria du haurren afektibitate eta motibazioan, bereziki eragozpenen bat duten haurren kasuan. Hona hemen elkarrizketak izateko une apropos batzuk: gelara sartu eta bertatik ateratzerakoan, ikasgelako txokoetan daudenean, jolasgaraian, edo jantokian. Izan ere, egoera horiek ematen dizkigute informazio oparoenak eta ikasle bakoitzaren premiei hobe egokitzen zaizkien eredu berri.*
- ✦ *Ikasgelaren programazioan arreta eta diskriminazio-jolasak sartu behar ditugu: hotsa, isilunea, aho-aurpegiak mugitzeko jolasak: putz egitea, puxikak putzea, kandelak itzaltzea; imitazio-jolasak: hotsak imitatzea; denbora egituratzeko jolasak: hotsen ordena, loto-jolas fonetikoak,...*

3.3. Errepresentazio-trebetasunak garatzeko premia

Sinboloak erabilia errealitatea irudikatzeke gai izatea haurren heltze-prozesuaren amaierako lorpenetariko bat da. Marrazteke gaitasuna, sinbolo grafikoak antzematekoa, irakurtzea edo idaztea heltze-prozesuaren ibilbideko ondar urratsak dira; hori egiten ikasi aurretik inguruneaz jabetu, objektuak ezagutu, espazio eta denborari buruzko nozioak eskuratu, elementuen dimentsioez ohartu etab. egin dute haurrek. Zerbitu errepresentatzeko, bestalde, oroimena landu beharra dago, kanpoko errealitatea begi bistan izan gabe irudikatzeke aukera ematen baitigu oroimenak; praktikan moldatzeko modua ematen digu, azken finean. Adibidez, oroimenari

esker, neskato batek etxe bat marraz dezake imaginatuz gero, etxea begien aurrean ez izan arren.

Errepresentazio-gaitasuna azken emaitza gisa duen prozesua luzea denez gero, irakur-idazketaren ikaskuntzari hurrengo etapan heltzea planteatu da, haurrak heldu eta garatuagoak dira etapa horretan eta ikaskuntza intelektual formalagoak burutu ditzakete. Haatik, ezin ahantz dezakegu errepresentazio-trebetasunak Haur-Hezkuntzan hasten direla eta haur-eskola oinarri-oinarrizkoa dela trebetasun horiek eskuratzeko, bertan dabilzan haurrak erralitatea irudikatzeko gai baitira, imitazioaren bitartez, hizkuntzaren bitartez, jolas eta marrazkien bitartez, erritmoen interpretazioaren bitartez, musika-adierazpenaren bitartez, antzezpene bitartez eta abarren bitartez; adierazpide horiek guztiak berebiziko garrantzia dute haur-eskolan dabilzan haurrentzat, komunikatzeko bide apartak eta garapen afektiboa eta intelektuala bultzatzeko eragile paregabeak baitira. Hori dela eta, etapa honetan irakur-idazketaren ikaskuntza formalari helduko ez diogun arren, haurren errepresentazio-trebetasunak estimulatzea komeni da -batez ere eragozpenak dituzten haurrenak-, ondoko iharduerak eginda estimulatu ere: sinbolo grafikoekin zerikusia duten iharduerak burututa, letrak edo marrazkiak bereizita edo sailkatuta, hitzak ikusi ahala diskriminatuta, etab.

Prozesuak iraun artean, zenbait hurrek bere barruko mundua errerepresentazeko, kanpoko gertakariak adierazteko, eta gertakizunak sinbolizatu eta irudikatzeko arazoak izan ditzake. Haurren garapenean gertatzen diren berariazko nahasteek, hala nola, autismoak edo burutiko atzerapen larriak, traba handiak jar diezazkiokete funtzio sinbolikoaren garapenari, jolastea, hitzegitea eta komunikatzea eragotziz. Kasu arinagotan, berriz, heltze-prozesua moteldu besterik ez dute egiten nahasteek, eta haurrek ez dute eragozpen berezirik prozesu sinboliko eta errerepresentazionalak eskuratzeko, arazo bakarra zera da, prozesu horiek beranduago agertzen direla.

Kasu bietan kontuan hartu behar da komunikazioa konpentsatu eta bultzatu behar dela, hau da, sinbolizazio eta errepresentazio-gaitasuna sustatu behar direla. Gauzak horrela, kasu horretan ere baliagarriak izango zaizkigu aurreko ataletan azaldutako jarraipideak. Dena den, errealitatea sinboloen bidez errerepresentatzeko gaitasuna bultzatzeko baliagarriak izan daitezkeen berariazko orientabide batzuk adieraziko ditugu jarraian.

Nola bultzatu eta garatu daitezke errepresentazio-trebetasunak?

- ✍ *Ikasle bakoitzak astean bere kargu dituen eginkizunen berri ematen duten horma-irudiak erabiliz, horrela, marrazki edo sinboloen bidez, bakoitzari dagozkion lanak zeintzuk diren jakingo dute haurrek. Izan ere, guztiz egokia da bide hori eragozpen handienak dituztenek errepresentazioa lantzeko. Asteko lanak izan gabe, eguneroko eginbeharrak, ordutegia, etab. irudikatu daitezke.*
- ✍ *Haurrek egunero erabiltzen dituzten objektuen berri adierazten duen marrazkia, anagrama edo hitza bereiztuz esate baterako, jogurta, cola-caoa, txokolatea, esnea, etab.*
- ✍ *"Irakurketa" landuz ezagunak egiten zaizkien dendetako errotoletako sinbolo edo marrazkien bidez: okindegia, botika, arrandegia, etab.*
- ✍ *Norbere izena identifikatuz argazkiaren laguntzaz. Argazkia eta izena ikasleek euren objektu pretsonalak gordetzen dituzten tokian jar daitezke.*
- ✍ *Ikasgelako elementuei edo eta jantokian jaten dituzten elikagaiei letra edo eta sinboloz osatutako etiketak jarritz, adibidez, haurrek sinbolizazioari heltzeko iharduera sinple eta errazak dira.*

3.4. Bigarren hizkuntzen ikaskuntza konpentsatu eta bultzatzeko premia

Gure Autonomi Elkarteetan eskolan hasten diren haurren familia ugari hezkuntza elebiduna aukeratzen du. Normalena ondokoa izan ohi da: haurrek etxean gaztelania ikastea eta erabiltzea, hots, ama-hizkuntza gaztelania izatea, eta eskolan euskara erabiltzea, D edo B eruedetan murgilduta egotea, alegia. Kontrakoa ere gerta daiteke, hau da, gaztelania zenbait haurren bigarren hizkuntza izatea, etxean euskara hutsez aritzen direlako edo. Hirugarren aukera bat ere badago, beste kultura bat eta beste hizkuntza bat duten familiena, alegia, kasu horretan eskolan gaztelania edo euskara erabiltzen baitute bertako seme-alabek. Nolanahi izanik ere, haur gehienek kasuan, eskolan hastearekin batera etxean erabilitakoaz besteko hizkuntza batekin hasten dira kontaktuan.

Oro har, 3-5 urte bitarteko haurrak eskolara heltzen direnerako, ama-hizkuntzaren mekanismo, gaitasun eta egitura gehienak eskuratuak dituzte jadanik, eta bigarren hizkuntza ikasterakoan tresna horietaz baliatzeko gauza ere badira. Ildo horretan, hurbileko hezkuntza-errealitatean egindako esperientziek eta haurrek hizkuntza nola eta eskuratzen duten aztertzen duten teoria desberdinek erakutsi digutenez, bigarren hizkuntza ikasteari ekiteko unean, ama-hizkuntzaren bidez ezagutu eta bizitako esperientzia nahikoa badute haur txikiek, bertan erabil ditzaketan hizkuntz

errepertorioak barneratuta ditzuzte eta baita euren munduan esku hartzeko modua ematen dieten kultur alorreko ezagutzak ere; are, bigarren hizkuntza hori eskuratzeko bidea aisatzen dieten frogatutako estrategiak ditzuzte.

Alabaina, tresna horiek guztiak eskura ditzuztela jakinaren gainean gaudenez, ama-hizkuntza ikasterakoan eskuratutako komunikazio eta hizkuntz estrategiak nola aplikatu ditzaketen interesatzen zaigu orain. Gaur egun ezagun da, bigarren hizkuntza modu naturalean eskuratzen dela, lehen hizkuntza eskuratu sen den antzeko eran, zenbat eta txikiagotan hasi, orduan eta modu naturalagoan eskuratzen da gainera. Izan ere, hori da haur-eskolan elebitasun egoeratan gertatu ohi dena.

Esanak esan, zenbait talde, zenbait haur jakin lehen hizkuntza eskuratzeko bidean daudela eta lehen aipatutako baldintzak bete gabe heltzen dira eskolara. Bistan da horrelako kasuak -batzuk, bederen- ikasgelaren programa lantzerakoan kontuan izan behar direla, egoera nolabait konpentsatzeko eta haurrak estimulatzeko errefortzuak aurrikusi beharko baititugu.

Hona hemen errefortzuak finkatuko dituzgunentz erabakitze kontuan hartu beharreko zenbait faktoreren berri:

- ❑ Kultur estimulurik izan ez duten edo arreta egokiak izan ez dituzten haurren gizarte eta famili arloko giroarekin zerikusia duten faktoreak, hizkuntza motelago ikastea eragiten dutenak. Horrelakoetan, inguruarekin komunikatzeko gaitasuna eta horren funtzionalitatea ez daude deusezturik; nahikoa izaten da adierazpen-gaitasunak areagotzea, berez pobreak eta tajugabeak baitira. Oro har, lehen aipatutako konpentsazio eta errefortzurako programak erabilia hobera egin dezake haurren adierazpenak. Era berean, beste kultura eta hizkuntza batzuk dituzten haurrentzat ere lagungarriak izan daitezke errefortzurako programak, agian ikaskideek baino denbora gehiago beharko dute eta eskolako egoera berrira moldatzeko.
- ❑ Faktore intelektualak. Gaitasun mugatuak dituzten haurrek berariazko errefortzuak behar ditzuzte komunikazio-trebetasunak garatzeko. Gaur egun badakigu lehen hizkuntzako komunikazio-gaitasuna bigarren hizkuntza batean ere eskura dezaketela eta urritasun intelektualen bat duten haurrek ere egin dezaketela hori, beti ere eskolako giroa eta ikaskuntza egokituta egonez gero, jakina. Eskola-ihardunean lehentasuna eman behar zaio komunikatzeko

gaitasunari, haur bakoitzak hobe erabiltzen duen komunikatzeko bideari, hain zuzen, gelako gainerako kideek bezalatsu, arazo intelektualen bat dutenek ere hitzezkoaz besteko komunikatzeko era ugari erabiltzen baitute. Era berean, kontuan izan behar da garapeneko beste arloetan bildutako helburuak ez ezik, bigarren hizkuntza ikasteko bete beharko dituzten komunikazio-helburuak ere egokitu behar direla. Horretaz gain, hizkuntzaz kanpoko laguntzak beharko dituzte errefortzu gisa eta, horrenbestez, sinboloak eta grafikoak landu beharko dira eta ikaskuntza-egoera erreal eta esanguratsuak aukeratu. Oro har zera esan dezakegu, horrelako hurrekin erabili beharreko errefortzuak haur guztien ikaskuntzan erabili ohi diren berberak direla, alabaina, kasu honetan egokitu egin behar direla, hurrek hizkuntza eskuratzeko behar duten denbora eta dituzten gaitasunak aintzat hartuta egokitu ere.

- Hizkuntza eskuratzekoan gertatzen diren berariazko nahasteak. Hizkuntza eskuratzeko orduan berariazko nahasteren bat gertatuz gero, hots, gorreria edo disfasia izanez gero, haurrari pentsamendua osatzeko, ezagutzak eskuratzeko eta ingurunearekin komunikatzeko modua emateak izango du lehentasuna. Hori horrela, hitzezko komunikazioa bultzatzeko egokiak izan daitezkeen estrategiak lantzeko baliagarriak gertatuko zaizkigun metodo alternatibo eta auzentatiboak erabaki behar ditugu aurrena eta haurrari zer-nolako laguntza emango diogun ebatzi. Ondoren, ustez egokien iruditzen zaigun eskolatzemodalitatea aukeratu eta bigarren hizkuntzaren oinarrizko ezagutzak nola egokitu ditugun pentsatu behar dugu.

Goian aipatutako egoera guztietan bigarren hizkuntzaren ikaskuntza konpentsatzeko eta estimulatzeko planteatu ditugun neurriak komunikazioari eta hizkuntza eskuratzeko prozesuari buruzko teoriak aditzera emandako estrategietan oinarritzen dira. Teoria horiekin bat etorriaz, beraz, ama-hizkuntzan burututako komunikazioa indartzeko modua ematen duten estrategiak baliagarriak izango dira, halaber, bigarren hizkuntzaren ikaskuntza bultzatu eta konpentsatzeko.

Nolanahi izanik ere -gure asmoa ez baita bigarren hizkuntza eskuratzeko prozesuak luze-zabal aztertzea, arlo horretan estimulazio-programaren bat behar duten egoerak orekatzeko modua kausitzea baizik-, hizkuntza nola eskuratzen dugun jakin nahi dutenek Ruiz, U. eta Sierra J.ren lanak⁵ irakur ditzakete; bertan aurkituko dute bigarren hizkuntzak txikitzen ikasteko moduen berri.

⁵ RUIZ, U, *La segunda lengua en preescolar*. CL&E, 1990, 57-68. orr.

Ondoren, ikasgelan bigarren hizkuntzaren ikaskuntza bultzatzeko errefortzuak programatzeko erabilgarri gerta daitezkeen metodologi estratergia batzuk azalduko ditugu. Hona hemen:

Nola konpentsatu eta bultzatu bigarren hizkuntzaren ikaskuntza?

- ✍ *Haur-hezkuntzan dabilzan ikasleek lehentasun bat dute, hots, besteekin KOMUNIKATZEA. Ideia horrek izan behar du, hain zuzen ere, gure esku-hartzearen ardatza. Kontuan hartu behar ditugu haurren premiak: zenbaitek entzutea besterik ez du behar, beste batzuek, ulertu arren, ama-hizkuntzan hitzegiten jarraituko dute eta besteei dakiten hizkuntzan hitzegin beharko diegu.*
- ✍ *Haur guztiak onartzeko moduko giro afektiboa sortu behar da gelan, bakoitzak eskolara heldu denean dakien hizkuntza zein den kontuan hartuz eta bakoitzaren komunikatzeko erarekin jasankor izanez, esaldiak zuzen nola esaten diren adierazteko hizpidea eten gabe, etab.*
- ✍ *Ikasgelan, normalean gertatzen diren testuinguru eta egoerez baliatzea, erraz iragar baitaitezke. Adibidez ondoko egoerak erabil daitezke: otorduak, agurrak, bata janzteko unea, biribilean eseritzea, komunera joatea, etab. **Testuinguru errealak** erabili behar dira, ez asmatutakoak, ezagutzen dituzten lehen hizkuntzako estratergiak erabili ahal izateko bertan.*
- ✍ *Irakasleek egoera erreal eta ezagunak sortu behar dituzte nolabait, funtzionalak eta haurren afektibotasuna bultzatzeko esanguratsua direnak. Hona hemen zenbait: Gelara heldu gara, goazen lotara, goazen komunera, goazen panpinei jaten ematera, goazen sendagilearengana, otartekoa jateko ordua da, jolasean-jolasean erori egin gara, goazen erosketak egitera, gauza bat izkuta dezagun, etab.*
- ✍ *Haur bakoitzak bigarren hizkuntzan zerbait esan aurretik behar dituen "isiluneak" errespetatu behar dira. Kontuan hartu behar da bigarren hizkuntzan mintzatzeko eta eta egoera bakoitzean esaten zaiena ulertzeko gai izan arren, aditzera eman nahi dutena pentsatzeko denbora nahikoa eman behar diegula.*
- ✍ *Haur bakoitzak komunikatzeko duen heldutasunaren araberako helburuak planteatzea. Haur batzuen kasuan nahikoa izango da egoerak ulertzea, beste batzuk, ordea, esamolde berriak erabiltzeko gai izango dira, galderak egiteko edo zerbait eskatzeko gauza izango dira eta, agian, beste batzuk ideia bat adierazteko gai ere izango dira.*
- ✍ *Garrantzi izugarria dute ikaskuntza-egoerak egoera bakoitzaren berezko elementuez jantzeko erabil daitezkeen hizkuntzaz besteko laguntzek, hala nola, aurpegikerak, gorpuzkerak, afektibitateak, ikusizko zeinuek, hots, marrazkiek eta grafikoek, mozerroek, gela iharduera desberdinak burutzeko aukera emango diguten txokotan zatitzeak, etab.*
- ✍ *Haurrei igorritako hitzezko mezuak zaindu behar dira, bai edukinari dagokionez eta baita formari dagokionez ere, kalitate onekoak izan behar baitute. Irakasleak argi eta garbi hitzegin behar du, entonazioa aurkeztutako egoerei moldatu eta haurraren arreta piztuko dituzten mezuak adierazi.*

4.- CURRICULUMERAKO SARBIDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN HEZKUNTZA-PREMIAK

Curriculumerako sarbidea ondokoa da: ezintasunen batek eragindako hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bati ikasle guztientzat proposatutako curriculumean parte hartu ahal izateko ematen zaizkion laguntza pertsonal, tekniko edo materialen multzoa.

Kasu askotan lanerako materialak edo metodoak egokitzea nahikoa izaten da, eta horregatik, haur-eskolan dauden baliabide material gehienak baliagarriak izaten dira, beraz, ez dago zertan material berezirik landu beharrik, hori eginez gero normaltasuna ekarriko ez luketen egoerak sortzeko eta curriculum nahiz iharduera paralelo batzuk garatzeko arriskua bailegoke.

Dena den, beste zenbait kasutan, laguntza bereziagoak behar izaten dituzte ikasleek eta material edo elementu jakin batzuk moldatu eta prestatu behar dira curriculum beste ikasleek bezalatsu bete ahal izateko. Mugimen-arazoak eta zentzumen-defizitak, hots, entzumenezkoak edo ikusmenezkoak, dituzten haurren kasua da hori; horrelako arazoak dituzten haurren hezkuntza-premiak ase nahi izanez gero, curriculumerako sarbideak osatzen dituzten elementuak egokitu beharko ditugu. Egokitzapen horiek txikiak izango dira kasu batzuetan, alabaina besteetan laguntza espezializatuagoak behar izango ditugu eskolako egoera normalizatzeko, eta, ziurrenik, tresna espezializatu horiek erabiltzen ikasteko denbora ere beharko dugu.

Curriculumerako sarbideei dagozkien neurriak ondoko egoera hauetan hartu behar dira, besteak beste:

- ❑ Arazo fisikoak daudenean: garun-paralisia, traumatismoak, mokor-okerdurak, arazo medularrak, etab. daudenean. Horrelakoetan, autonomia pertsonalari, mugikortasunari, garraioei eta eskolako espazio fisikoak erabiltzeko gaitasunari dagozkien hezkuntza-premiak sortzen dira. Ikasleei laguntzeko oztopo arkitektonikoak ezabatu behar dira, arrapalak eraiki, aulki egokiak erosi, komunak egokitu etab. eta, zenbaitean, laguntzako langileen laguntza ere beharrezkoa izango da.
- ❑ Komunikazioaren garapenarekin zerikusia duten arazoak daudenean. Zentzumen-defizitak, hala nola, entzumenezkoak eta ikusmenezkoak dituzten haurrek ezin dute hezkuntzako hainbat esperientzia garrantzitsuetan parte

hartu, esperientzia horiek bestelako zentzumen-kanalen batera aldatzen ez badira edo curriculumerako sarbidea ahalbidetuko dieten laguntza teknikoak ematen ez bazaizkie, behinik behin. Entzumen-urritasunen bat duten haurren kasuan, ahozko komunikazioarekin zerikusia duten hezkuntza-pemiak aurkitu ohi ditugu batik bat. Oraindik zerbait entzun badezakete, komunikazio-sistema aumentatiboak edo alternatiboak planteatu daitezke: zeinuen hizkuntza, sistema bimodala, laguntza teknikoak, entzuteko protesiak, egokitutako materialak, etab.

Garun-paralisia edo bestelako mugimen-ezintasunen bat duten haur batzuei dagokienez, bestalde, ahozko mintzaira eskuratu ezin dutenez, oztopo arkitektonikoak ezabatu ez ezik, komunikatzeko sistema alternatiboak eta behar diren laguntza teknikoak ere prestatu behar dira.

- Ikusmen-urritasunak dituzten ikasleen kasuan, berriz, eragozpenak sortzen dira ikusizko informazioa lortu ezin dutelako; konponbide gisa edo, beste idatzizko kode batzuk erabili beharko dira, hala nola, Braille idazketa, materialen egokitzapenak, laguntza teknologikoak, etab.

Curriculumerako sarbidea ahalbidetuko duten balibideak egokitu edo prestatzeko orduan kontuan izan behar da bi irizpide orekatu behar direla. Alde batetik, balibide arrunt orokorrei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzea komeni da, normalizazioa bultzatzen duten elementuei lehentasuna emanez eta behar diren egokitzapen guztiak eginez, eta, bestetik, horrelako balibide arruntak aparteko balibideak baino gehiago indartu behar dira -neurri bereziak guztiz ezinbestekoak ez badira, bereden-. Hori horrela, agian ez ditugu material bereziak beharko balibide arrunt orokorrei ahalik eta errentagarritasun handiena ateratzen badiegu.

Bestalde, kontuan izan behar dira handicap edo defizit bakoitzak eragindako ezaugarriak eta hezkuntza-premia bereziak, sortutako eragozpenak nolabait orekatzeko eta curriculumerako sarbidea ahalbidetzeko zein balibide edo elementu egokitu behar dugun erakutsiko baitigute. Aipatutako bi printzipio horiek, hots, normaltasunaren printzipioak, balibide arruntak erabiliz, eta pertsona bakoitzaren hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia eman behar zaiela dioenak haur-eskolan curriculumerako sarbideak direla-eta hartu behar diren erabaki guztien gida izan behar dute.

Zer egin dezakegu, bada, haur-eskolan?

Curriculumerako sarbidea errazteko asmoz, hezkuntza-egoera osatzen duen elementu bat baino gehiago alda daiteke, planteatutako arazo bereziak aintzat hartuta, noski. Gauzak horrela, ondokoak egin beharra sor daiteke:

IKASTETXEAN egin beharreko egokitzapenak:

- ✍ Oztopo arkitektonikoak ezabatzea, hau da, ikastetxera nahiz bertako gela desberdinetara sartzeko harmailak dauden lekuetan zurezko arrapalak jartzea, gurpil-aulkietan igo eta jeitsi ahal izateko.
- ✍ Halaber, paretetan heltzeko barrak jartzea, jolasteko lekuetara, lan egiteko tokietara, komuntera eta abarretara joan-etorriak egin ahal izateko.
- ✍ Ateetan balanka tankerako eskutokiak ipintzea, sakatzeko edo eskumuturra jiratzeko arazoak dituzten haurrek erraz erabili ahal izateko.
- ✍ Oro har, ikastetxera sartu eta bertatik ibiltzea, pasabide, patio, komun, jantoki eta geletan zehar mugitzea aisatuko duten baliabide guztiak praktikan jartzea.

IKASGELAN egin beharreko egokitzapenak:

- ✍ Arazoren bat duten haurrek ere gainerako kideek erabiltzen dituzten bezalako mahai-aulkiak erabiltzeko modua izatea, haurrak gelan integratu eta parte hartzeko egokitzapen txiki batzuk egin behar izan arren. Nahikoa izanez gero, altzari arruntak erabiltzea komeni da, egokituta egonik ere, integrazioa eragoz dezakeen material espezializatuagoa erabili beharrean.
- ✍ Mahaietan ertzak jartzea, objektuak ez erortzeko.
- ✍ Laneko mahaietan, jantokikoetan eta abarretan material irristagaitza erabiltzea, plater, edalontzi, jolasak eta abarrak alde batetik bestera ibil ez daitezten.
- ✍ Gorputzaren jarrerak kontrolatzeko arazoak dituzten haurrek iharduera jakin batzuk egin behar dituztenean gerrikoak erabiltzea, egonkortasuna bermatzeko.

MATERIAL DIDAKTIKOETAN egin beharreko egokitzapenak:

- ✍ Puzzle, domino eta beste hainbat jolasetan lodiera eta tamaina desberdineko piezak erabiltzea, hobe oratu ahal izateko.
- ✍ Puzzleetako pieza eta irudi zulodunak kartoia erabilita igotzea, hobe erantsi ahal izateko.
- ✍ Txartel, lamina, argazki marrazkiak eta abarrak eusteko euskarriak eta atrilak erabiltzea.
- ✍ Erraz oratzen diren guraizeak erabiltzea.
- ✍ Puzzle, argazki nahiz marrazkien euskarrietan, eraikuntza-jostailuetan, kikara, plater eta erabilera aurteko antzerako materialetan oinarri irristagaitz bat jartzea.

✍ *Mugimendu asoziatuak edo kontrol-falta duten haurrek lan egiteko orriak eusteko kortxozko oholak erabiltzea, batez ere zulatze, garfiak idazteko eta horrelako ihardueretan.*

KOMUNIKAZIOA lantzeko materialetan egin beharreko egokitzapenak:

✍ *Grafikoen, marrazkien, txartelen eta hiztegiko lotoen euskarri gisa kartulinazko edo zurezko oholak erabiltzea, mugimen, ikusmen edo entzumen-defiziten bat duten haurren kasuan.*

✍ *Komunikazio-panelak egokiak dira: sinbolo-txartelak, Bliss sinboloak marrazteko plantilak, etab., komunikazio-sistema alternatibo bat ikasi beharko duten ikasleekin lan egiteko.*

✍ *SPC materialak, hala nola, ipuinak, piktografoak etab. oso egokiak dira komunikatzeko arazo larriak dituzten haurrekin mintzaira alternatibo gisa erabiltzeko.*

✍ *Komunikazio Signatuzko mintzaira gorrieria sakona duten haurrekin erabil daiteke.*

✍ *Braille materialak: pertzepzio-jolasak, asoziazio-jolasak, etab., haurren adinetara egokituta egonez gero, oso baliagarriak dira ikusmen-defizita duten haurrekin erabiltzeko.*

Horretaz gain, goian aipatutako laguntza espezializatuak ez ezik, ikasgelaren programazioan egindako egokitzapen asko guztiz ezinbestekoak dira eragozpenak dituzten haurrek curriculumean jasotakoak lortu ahal izateko. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haur batzuek laguntza berezia behar dute, laguntzako langileak behar dituzte alboan curriculumean gainerako kideek bezala parte hartzeko. Haurrek curriculum arrunteko edukinak landu ahal izateko sartu behar diren aldaketa guztiak Ikasgelaren Programazioan, eta hala badagokio, Curriculum-Egokitzapen Indibidualetan bildu behar dira, hurrengo kapituluan azalduko dugunez.

5.- FAMILIEKIKO HARREMANA BULTZATZEKO BEHARRA

Familiaren eraginak haurren garapena baldintzatzen du, hots, bultzatu egiten du eta, zenbaitetan, eragotzi. Familiaren eta eskolaren helburu amankomuna haurrei prestakuntza betea eta harmoniatsua ematea da eta, bistan denez, biek norabide berean egin behar dute lan haurren egonkortasuna, egokitzapena eta aurrerapenak bermatu nahi badituzte.

Gurasoek oinarri-oinarrizko eragina dute haurraren nortasuna eratzeko, hasiera-hasieratik. Eskolan hasi bezain pronto aldatu egiten da haurraren ingurune fisiko, sozial eta afektiboa, beste pertsona batzuk, bestelako objektuak eta elkarbizitza-arauak ezagutzen dituelako une horretan, eta esperientzia berri horiek ere guztiz aberasgarriak dira haurren nortasuna eratzeko orduan. Haur-eskolak esperientzia berriak eta haur bakoitzaren bizipen

pertsonalak eta familian ikasitakoak bateratu behar ditu, ongi moldatuko dela eta garapen harmoniatsua izango duela bermatu nahi badu behinik behin.

Irakasleen eta familiakoen artean harremanak izan behar dira eskolatzearen hasieratik, eskola baita leku egokiena haur bakoitzaren integrazioari buruzko informazioa elkartrukatzeko, familien interesak eta informazioa biltzen dituzten hezkuntzako esku-hartzeak proposatzeko eta ikasle bakoitzaren ibilbidea ebaluatzeko. Familiarekiko lankidetzan aritu beharraz hitzegiterakoan zera esan nahi dugu, gurasoek eta irakasleek berezko funtzioak bereziak dituztela eta batak ezin duela bestearen lekua hartu; hezkuntza-lanetan kide izateak ez du esan nahi bakoitzak dituen eginkizunez haztu behar garenik, aitzitik, bakoitzak bere funtzioa bete behar du, baina bestearen informazioak kontuan hartuta.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren kasuan, are garrantzitsuagoa da eskolaren eta familiaren artean harreman estua egotea, leku bietan -hots, eskolan eta familian-burututako berriazko iharduerak koordinatu ahal izateko. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haur askok estimulazio goiztiarreko lana garatzen ari dira edo garatu dute eta horien familiei behar ziren orientabideak adierazi zaizkie; gauzak horrela, lankidetzan aritu beharra dago ekintzak bateratuak eta koordinatuak izan daitezten. IV. kapituluaren xeheago jorratuko dugu eskolaren eta hezkuntza-premia bereziak dituen seme-alabaren bat duten familien arteko harremana.

Nola erraztu familiekiko harremana?

- ✍ *Familiarekin etangabeko komunikazioa izanda, batak besteari haurrei buruzko datuak adierazteko eta ezarri beharko diren hezkuntzako jarraipideak finkatzeko asmoz. Egokiak dira oso elkarrizketak eta taldeko bilerak.*
- ✍ *Eskolan hasitakoan edo eta ikaskurtearen hasieran betetako formulario edo galde-sorta burokratiko-pedagogikoak ere egokiak izaten dira informazioa elkartrukatzeko eta familien ikuspuntu nahiz kezken berri jakiteko. (5. Eraskina)*
- ✍ *Haur-eskolan, normalean, zenbait iharduera pedagogiko burutu ohi da, hala nola, topaketak, irtenaldiak, txangoak, etab., guztiz egokiak baitira eskolaren eta familiaren arteko elkartrukeak modu naturalean gertatzeko, haurrek integrazioa dela-eta izandako aurrerapenen gaineko informazio baliagarriak eskaintzen dituztelarik.*
- ✍ *Familiak parte hartzera bultzatuta, gurasoen elkarrekin bidez, eskola-kontseiluaren bidez,... zenbait arazo dela-eta dituzten interesen berri bilduz, hitzaldiak eta mintegiak antolatuz, etab. Izan ere, horrelako ekintzak bide aparta izan daitezke ikasleen hezkuntza-premia jakin batzuei konponbideren bat aurkitzeko.*

✍ **Gehiago jakin nahi izanez gero**

- * *Eskola muinbakar eta integratzailea*. Gasteiz (1990). Eusko Jarlaritzako Hezkuntza-Batzorde bereziaren txostena. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza.
- * ARRIBAS, T. (1992). *La educación Infantil*. Bartzelona. Paidotribo Arg.
- * MARCHESI, A.; COLL, C.; PALACIOS, J. (1990). *Desarrollo Psicológico y Educación, III. lib: Necesidades Educativas Especiales*. Madril: Alianza.
- * MOLL, B. eta beste batzuk. (1988) *La escuela infantil de 0 a 6 años*. Madril. Anaya Arg.
- * MONJAS, M^a I. (1993). *Habilidades de interacción social para niños y niñas en edad escolar*. Valladolid. TRILCE Arg.
- * MORALEDA, M. (1992). *Psicología en la Escuela Infantil*. Madril: Eudema Universidad.
- * ORTEGA, R. (1992). *El juego infantil y la construcción social del conocimiento*. Sevilla : Alfar.

❓ **Ikastetxean hausnartzeko**

- * *"Haur bakoitzaren garapen psikikoaren ezaugarri berezi eta indibidualak izan behar dituzte kontuan irakasleek"* Zer eragin du horrek ikasgela planifikatzeko orduan? Eta Haur-Hezkuntzako 2. zikloari dagokionez?
- * Gure ikastetxeko Haur-Hezkuntzako bigarren zikloan ageri diren hezkuntza-premia nagusien zerrenda egin (psikomotrizak, afektiboak, hizkuntzari dagozkionak, autonomiari dagozkionak, gizarte elkarreraginarekin zerikusia dutenak,...).
- * Zer-nolako laguntzak ematen dizkiegu ikasleei ikasgelan premia horiei erantzuteko asmoz?
- * Nola biltzen dira Zikloko Curriculum-Proiektuan Haur-Hezkuntzako hezkuntza-premia bereziak?
- * Zer iharduera antolatzen dira ikastetxean familiekin harremanetan jartzeko?

III. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEI EMAN BEHARREKO ERANTZUNA

Honako kapitulu honetan Haur-Hezkuntzan hezkuntza-premia bereziei eman beharreko erantzunak ikusiko ditugu eta bertan burutu beharreko hezkuntzako esku-hartzea proposatuko, planteamendu normalizataileak abiapuntu gisa hartuta, hain zuzen ere, nolabait kaltetuta dauden haurrek aurkitu ohi dituzten eragozpenei aurrea hartzeko, daudenak konpentsatzeko eta haien garapena bikaintzeko asmoz.

Gelan aurki ditzakegun hezkuntza-premia bereziei erantzun nahi diegunez gero, Zikloaren Curriculum-Proiektuan eta Ikasgelaren Programazioan kontuan izan behar diren aldagai eta irizpideak aztertuko ditugu eta, beharrezkoa bada, Curriculum-Egokitzapen Indibidualak egiteko jarraipideak adieraziko. Aldi berean, hezkuntza-praktikan usu aurkitzen diren adibideak eta tresnak ere azalduko ditugu, hezkuntza-premiei erantzun ahal izateko hartu beharko diren erabakien gida edo laguntza gisa.

NOLA ERANTZUN HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEI?	61
HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK ETA IKASTETXEAREN CURRICULUM-PROIEKTUA	63
HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK ETA IKASGELAREN PROGRAMAZIOA	67
Nola diseinatu Ikasgelaren Programazioa?	
Proposamen globalizataileak egiteko beharra	
Edukinak hautatu eta antolatzeke orduan hartu beharreko erabakiak	
Ebaluazioa dela-eta hartu beharreko erabakiak	
Hezkuntza-ingurunearen antolamendua dela-eta hartu beharreko erabakiak	
Ikasleak taldetan antolatzeke orduan hartu beharreko erabakiak	
Baliabideak hautatu eta antolatzeke orduan hartu beharreko erabakiak	
Haurrekiko harremana dela-eta hartu beharreko erabakiak	
CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUALAK HAUR-HEZKUNTZAN	76
Haur-Hezkuntzan geratzeko irizpideak	
Curriculum-Egokitzapen Indibidualak egiteko prozesuak	
↘ Gehiago jakin nahi izanez gero	88
? Ikastetxean hausnartzeko	88

NOLA ERANTZUN HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEI?

LOGSEk aniztasuna onartzen duen eskola muinbakarra aldarrikatzen du; hots, kultura amankomuna eskaini nahi duen eskola, hiritar guztientzako eskola, eta, aldi berean, ikasleek dituzten ezaugarri bereziei -alderdi pertsonalei, sozialei eta kultur arlokoiei- erantzuteko gai den eskola.

Hori horrela, eta batik bat Haur-Hezkuntzako bigarren Zikloari dagokionez, hezkuntza-premia bereziei erantzun nahi izanez gero, galdera bat egin behar diogu gure buruari, hau da: ***Zer-nolako baldintzak bete behar ditu haur-eskolak hezkuntza-premiak dituzten haurrei arreta egokia emateko?*** Galdera horren erantzunak bide okerretan barrena eramán gaitzake haurrak bi taldetan bereiz daitezkeela pentsatuz gero, batzuk "normalak" eta besteak "hezkuntza-premia bereziak dituztenak" direla pentsatuz gero, alegia. Kasu gehienetan, hezkuntzako ziklo honetan bereziki, ezin dugu bien arteko muga garbirik ezarri. Haurtzaroa hazkuntzaren aroa da, eta izaugarritzako garrantzia dute bertan ardura pertsonalekin, haur bakoitzaren izaera psikobiologikoarekin, ingurunearen estimulazioarekin, gizarte-harremanekin, ikasteko espazioen diseinu eta antolamenduarekin eta abarrekin zerikusia duten alderdiek. Izan ere, alderdi horien guztien arabera une jakin batean larriak iruditzen zaikigun premiak eta desegokitzapenak aldatu egin daitezke eta bestelako bilakatu estimulazio egokia izanez gero.

Garapeneko nahaste jakin batzuk dituzten haurren kasuan, bestalde, hezkuntza-premia iraunkorrak izango dituztela pentsa dezakegu. Neskato gor batek edo garapeneko nahaste larriren bat duen mutiko batek halako egokitzapenak egitea eskatuko digutela badakigu, komunikazio-bide egokiak erabili beharko ditugula horiekin. Dena den, haur horien hezkuntza-premiak ez dira hain bereziak izango haur horiekin erabilitako baliabideak metodo arruntetan eta irakasleen eguneroko zereginetan integratuz gero. Hori dela eta, zera esan dezakegu, zenbait kasutan oso zaila izaten dela bereziak diren hezkuntza-premien eta bereziak ez direnen artean muga garbi bat ezartzea.

Haur-eskolan eskainitako hezkuntza-erantzunak bat etorri behar du gure ihardunaren xede nagusiarekin, hots, ikasle bakoitzaren aukerak bikaintzearekin eta horien hezkuntza-premiei erantzutearekin -nolanahikoak izanik ere-, aniztasun terminoari zentzua emanaz hezkuntzako esku-hartzea gidatu behar duten printzipioetariko baten bitartez: ***irakasleen iharduna indibidualizatze beharra, guztiek modu berean ikasteko aukera izateko.***

Arestian esan dugunez, kasu gehienetan aurkitzen ditugun *hezkuntza-premiak* edozein haurren garapeneko edozein unetan ager daitezke. Gauzak horrela, zera pentsatu behar dugu, ez dagoela "*guztiz normalak diren haurrei*" aplikatzeko curriculum arrunt bat eta nolabaiteko eragozpenak dituztenei aplikatzeko beste curriculum berezi bat. Etapako Curriculum-Diseinuak haur guztien hezkuntza-premiei erantzuten die lehenbizi, ikasle guztien aukeraberdintasuna bermatzen duelarik. Dokumentu ireki eta malgua denez, testuinguru desberdinei eta hezkuntza-premia desberdinei egokitzeko modua dugu. Laburbilduz, curriculum bakarra dago etapan, erreferentzi eredu den curriculum, hain zuzen ere, eta, aldi berean, curriculum horren egokitzapenak ere badaude, sortzen diren hezkuntza-premia desberdinei erantzuteko modua ematen digutenak.

Hezkuntzaren ikuskera horrek hezkuntza-proiektua indartzeko *erabakiak* hartzera bultzatzen ditu zikloko profesionalak eta ikastetxeko klaustroa, ikasle guztien *hezkuntza-premiei* erantzuteko asmoa baitute bertan. Hona hemen egin beharrekoak:

- ❑ bakoitzak egin beharreko lanak planteatu, haur guztiek dituzten premiak asetzeko moduko arreta egokia izan dezaten.
- ❑ bakoitzari dagozkion eginkizunak beste profesional batzuen laguntzaz burutu eta koordinazio estua izan, Ziklo berean ari baitira guztiak.
- ❑ zikloko eta klaustroko kide guztiek ikasleen aurrerapenak baloratzeko eran halako adostasun bat izan behar dute, erabiliko diren baliabideak, hezkuntza-estrategiak etab. erabakitzerakoan bat etorri behar dutelarik.

Hezkuntza-premia bereziei erantzun nahi izanez gero, tresna eta estrategia jakin batzuk erabili beharko ditugu. Irakaskuntza-ihardunaren praktikari dagokionez, ondokoa esan nahi du horrek: haur-hezkuntzako profesional bakoitzak bi maila desberdinei dagozkien erabakiak, bata bestearekiko koherenteak eta osagarriak direnak hartu beharko dituela: alde batetik, ikastetxean aniztasunari emango zaion trataerari buruzkoak eta, bestetik, ikasgelan aniztasunari emango zaion trataerari buruzkoak. Prozesu hori dela-eta ondokoa esan daiteke:

Ikastetxean erabakiak hartzerakoan aniztasuna kontuan izaten bada, are argiagoak izango dira ikasgelako erabakiak eta ez hain beharrezkoak eta garrantziarik gabekoak curriculum-egokitzapen indibidualak.

Esanak esan, ikasleen hezkuntza-premiei erantzun nahi izanez gero, ondokoak egin beharko dituzte irakasleek:

- * ***Ikastetxearen Curriculum-Proiektuan*** argi eta garbi ***finkatu*** behar dute aniztasunari emango zaion trataera, zentzu zabalean hartua eta hezkuntza-premia bereziak kontuan izanda.
- * ***Ikasgelaren Programazioan zehaztu*** behar dituzte taldearen nahiz haur bakoitzaren hezkuntza-premiei erantzuteko beharrezkoak diren egokitzapen guztiak.
- * ***Curriculum-egokitzapen indibidualak egin beharko dituzte,*** aurrean adierazitako neurriak motz geratzen direnean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko asmoz.

HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK ETA IKASTETXEAREN CURRICULUM-PROIEKTUA.

Ikasturtean zehar erabaki ugari hartzen dute Haur-Hezkuntzako irakasleek: Ikasle-taldeak antolatzen dituzte, edukinak hautatu eta banatzen dituzte, edukin horiek haurrei aurkezteko modua bilatzen dute, haurren interesei buruz gogoeta egiten dute, baldintza ahalik eta onenetan lan egiteko motibatzen saiatzen dira, gaitasunak eta ikasteko gogoak eragiteko asmoz, hurrekiko harremanak izaten dituzte egokien deritzoten eran, gurasoekin hitzegiten dute, informazioa luzatzeko eta datuak eskuratzeko, ikasleen bilakaera ebaluatzen dute, eta lankideekin hori guztiari buruz hitzegiten dute, gainerako irakasleek espazio berberetan egiten baitute lan eta, sarritan, ikasle talde berarekin iharduten baitira...

Garapen-prozesuan hezkuntza-premia jakin batzuk izan ditzaketen ikasle berberekin lan egiten dutenez, sortuko diren egoera desberdin guztiei erantzuteko modua emango dieten jarraipide eta printzipio batzuk bateratu eta ezarri behar dituzte ikastetxeko irakasleek. Izan ere, jarraipideak eta horiek gidatzen dituzten printzipioak **METODOLOGIA** zehatz batean gauzatzen dira.

Demagun irakasleen klaustroan gaudela eta gure Curriculum-Proiektua osatzeko metodologiari buruzko erabakiak, hezkuntza-premia desberdinei erantzuteko modua emango digutenak, hartu behar ditugula. Metodologi aldetiko ihardunbideen nondik-norakoak bateratu nahi baditugu -daukagun denbora eta bakoitzak izan ditzakeen iritziak kontuan hartuta, jakina-, irizpideren bat ezarri eta multzo handitan sailkatu behar ditugu ihardunbide horiek, erabaki egokiak ahal bait lehen hartu ahal izateko.

ALDAGAI METODOLOGIKOAK landu beharreko gaiak bateratzen dituzte eta curriculum osoa modu koherentean garatzea ahalbidetzen dute, bakoitzean hartutako erabakiek eragina izango dutelarik besteetan, eta guztiek, halako zentzu jakin bat emango diotelarik gure iharduteko erari.

Zer aldagai metodologikoen biltzen dute aniztasunari eman beharreko erantzunaren berri?

- Landuko diren edukinak nola hautatzen diren, haurren interesak eta edukinen tipologia kontuan hartuta.
- Edukinak nola antolatzen diren, ikasleei nola aurkezten zaizkien: proposamen globalizatzaileen bitartez, berariazko ikaskuntzen bitartez, etab.
- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta lortutako emaitzak nola ebaluatzen diren.
- Espazioa, denbora eta ikasle-taldeak nola antolatzen diren: talde handiak, talde txikiak, bakarkako lanak.
- Baliabide eta material didaktikoak edo eta giza baliabideak nola antolatzen diren.
- Hurrekin nola erlazionatzen garen eta prozesu didaktikoan nola esku hartzen dugun, haurren arteko harremanak bultzatuz, bakoitzaren berezitasunak errespetatuz, bultzatuz eta konpentsatuz.

Gure lanean burutu dezakegun edozein ekintza goian aipatutako aldagaietariko batek barne bilduko du ziurrenik, eta hori lagungarria da iritziak bateratzeko eta klaustroko erabakiak ahalik eta bizkorren hartzeko. Alabaina, demagun beste klaustro batek lanerako jarraipide gisa arestiko sei aldagai metodologikoen hartu dituela eta irakasle bakoitzak aburu bat duela aniztasuna dela-eta. Nola bateratu ditzakegu irizpideak?


Gure ustez, profesional orok, dituen argumentu pertsonalak alde batera utzita, bere iharduna justifikatzeko gai izan behar du, alabaina ez edonolako teoria batetik abiatuta, baizik eta gure lanbide-arloan guztiek onartzen duten eta ustez hezkuntza-premiei

erantzuteko bikainena den teoria bat oinarri gisa hartuta. Horrek eragingo ditu klaustroko erabaki egokienak. Irakaskuntza-ikaskuntza bikaindu ahal izateko, **nola ikasten den** azaltzen duen teoria gidatzat hartu behar du profesional bakoitzak eta ondoko **PRINTZIPIOAK** kontuan hartu:

- ❑ Guztiek ez dugu modu berean ikasten; bakoitzak bere berezitasunak ditu, ikasteko estiloarekin, gaitasunekin, motibazioarekin eta abarrekin zerikusia dutenak eta ikaskuntzari eragiten diotenak.
- ❑ Gauza guztiak ez dira modu berean ikasten; ez baita gauza bera kontzeptu bat lantzea eta prozedura bat eskuratzen laguntzea edo jarrera bat hartzen laguntzea. Edukin bakoitza modu desberdinean landu behar da, eta bakoitza lantzeko talde-mota desberdinetan banatu behar dira ikasleak, era desberdinean antolatu behar da denbora eta modu desberdinean erabili behar dira espazioak, ikasitakoaren ezaugarri bereziei moldatzeko.
- ❑ Norberak bere kasa eratzen duen prozesua da ikaskuntza.
- ❑ Ingurunearekin elkarreaginean gaudela ikasten dugu, hau da, besteekin eta inguru fisikoarekin elkarreaginean gaudela.
- ❑ Zerbait ikasi ahal izateko, guk proposatzen dieguna eta alde aurretik dakitena lotu behar dute hurrek. Guk, gure aldetik, alde aurretiko ezagutzen berri izaten saiatu behar dugu.
- ❑ Aurkezten ditugun edukinek haurren garapen hurbileko zonaren barruan egon behar dute; ezagutzeko interesa pizteko adina "*errazak*" edo "*zailak*" izan behar dute, hala izanik, ikasteko gai izateko modua emango dien ezagutzaren egituratze-prozesu batean murgildurik ikasiko baitute hurrek.
- ❑ Hurrek zerbait ikasteko, irakatsi nahi zaienak koherentea izan behar du eta burutu beharreko lan guztiari zentzua emango dion modu logikoan aurkeztuta egon.
- ❑ Irakasleen ihardunak sormenezkoa, aktiboa eta gogoetazkoa izan behar du. Izugarrizko garrantzia dute irakasleek bitartekari gisa, aurreko kapituluetan esan legez.

Hona hemen klaustroan egin beharrekoen berri: lehenik eta behin aldagai metodologiko bakoitzari dagozkion erabakiak hartu behar dira -guztiak zehazten dituzten printzipioak aintzat hartuta, jakina- eta, ondoren, ikastetxean somatutako hezkuntza-premien arabera, hezkuntza-egoera desberdinei erantzuteko moduko akordio koherenteak iritsi.

Ondoko eskeman ageri dira laburbildurik Ikastetxearen Curriculum-Proiektua hezur-mamituko duten printzipio eta aldagai metodologikoak.



HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK ETA IKASGELAREN PROGRAMAZIOA.

Curriculum-Proiektuan aldagai metodologiko bakoitzari buruz hartutako erabakiak jasota daudenean, irakasle bakoitzak edo, kasurik onenean, zikloko irakasle taldeak ikasgelan lan egiteko proposamena finkatzeari ekin behar dio, beti ere lehen aipatutako aldagai edo printzipioekin bat datozen puntuak jaso behar dituelarik bertan.

Profesional bakoitzak ikasgelako lanetan islatu behar ditu haur-eskolak zehaztutako funtzioak. Esan bezala, haur-eskolaren funtzio nagusiak ondokoak dira: berezitasunei eta desberdintasunei *aurrea hartzea* eta haurren *garapena bultzatzea*. Horrenbestez, ikastetxe bakoitza eta bertako gela bakoitza haurrek garapen egokia lortzeko tokiak direla ulertu behar da. Ikasgelaren programazioa diseinatzeko, programazioa osatzen duten elementuak egokitze eta ikaskuntza-erritmoak, gaitasunak, premiak eta motibazioak kontuan hartzeko era desberdinen arabera, haur guzti-guztiek garapen egokia erdiesteko espazio aproposak sortzea lortuko dugu.

Nola diseinatu Ikasgelaren Programa?

Ikasgelan bertako hezkuntza-premiei erantzun egokienak ematea ahalbidetuko diguten metodologi erabakiak zehazteko orduan, irakasteko eta ikasteko modurik bikainena zein den erakusten diguten printzipioak izan behar ditugu gidari. Haur-Hezkuntzari dagokionez, globalizazio-printzipioa hartu behar dugu abiapuntu gisa, horrek baldintzatzen baititu aurrerantzean hartu beharreko erabaki guztiak. Gauzak horrela, lehenik eta behin:



Proposamen globalizataileak egin behar dira.

Ikaskuntzak burutzeko moduak, Globalizazioak, alegia, baldintzatuko du Ikasgelaren Programazioa. Haur txikiek prozesuaren protagonistak eta edukinak antolatzen dituzten agente nagusiak beraiek direlarik ikasten dute. Oro har, alde batetik, ingurunearekin izan ohi ditugun elkarreraginen bidez ikasten dugu eta, bestetik, ikaskuntzek ingurunea ezagutzeko, interpretatzeko eta horrekin elkarreragin konstruktiboak izateko aukera ematen digute. Gauzak horrela, proposamen globalizatailea gure asmoak betetzeko, hots, ikaskuntzak bultzatzeko erabil dezakegun proposamenik egokiena da. Alabaina, elkarreraginei buruz esandakoaz

gain, ikaskuntzak aldaketak eragin behar ditu ezagutzen egituran, ikasten jarraitzeko modua emango diguten beste ezagutza batzuk sortu behar dituelarik bertan. Hori horrela izanik, proposamen globalak aurkeztu beharko ditugu eginkizunak burutzeko orduan arlo guztiak naturaltasunez bateratu ahal izateko, hori baita estrategia didaktiko egokiena. Globalizazioa horrela ulertuta soilik, eta ez gai nagusi baten inguruan egituratutako jakintzagai-multzo bat bailitzan, izango dugu aniztasunari erantzuteko aukera. Ikuskera horren arabera, edukinak antolatzeko orduan zenbait gauza izan behar dugu gogoan, hala nola, hezkuntzako esku-hartzeak indibidualizatu egin behar direla, interes eta gaitasun desberdinak dituzten ikasleei gai jakinak lantzeko modua emango dieten espazioak sortu behar direla ikasgelan bertan, eta beren kasa burutu ditzaketen iharduera interesgarriak prestatu behar ditugula.



Edukinen hautaketa eta antolamenduari buruzko erabakiak hartu behar dira.

Hezkuntza-premiak gehien errespetatzen dituen edukinen antolamendua ingurunea abiapuntutzat hartu eta hurrei ingurune hori ezagutzeko, interpretatzeko eta bertan elkarreraginak izateko bidea ematen dieten proposamen globalizatzaileek osatutakoa da. Praktikan, gehienetan erabiltzen diren metodo globalizatzaileak ondokoak dira: interes-guneak, laneko proiektu txikiak, gai bati buruzko unitate didaktikoak..., hezkuntza-premia desberdinak barne biltzen dituzten iharduerak diseinatzen direlarik bertan. Haurren premiak abiapuntu gisa hartu ez ezik, jada dakitena eta ikasi nahi dutena, ikasteko duten modua eta haur bakoitzaren gaitasun-maila ere hartu behar ditugu kontuan. Ondoren edukinak sekuentziatu behar ditugu, ondoko irizpideak aintzat hartuta sekuentziatu ere:

- ❑ Aldez aurretik egindako sekuentziazioa eta hurrek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan egindako ekarpenak.
- ❑ Edukin bakoitzak, duen tipologiaren arabera, eskatzen duen sekuentziazioa. Ez da gauza bera kontzeptu bat irakastea edo ikastea eta prozedura bat nahiz jarrera bat irakastea edo ikastea. Edukin bakoitza lantzeko, taldeak, espazioak eta denbora modu desberdinetara antolatu behar ditugu, kasuan-kasuko edukina erabat eskuratuko dela bermatu nahi badugu behinik behin.
- ❑ Hurrek dituzten ikasteko erritmo desberdinak. Alor horretan, sinpleenetatik hasi eta konplexuenera jo behar dugu, globalenetatik xehetasun hadiagoko edukinetara eta prozedurazko edukinetatik kontzeptuzko edukinetara.

1 Berariazko ikaskuntzak eta errefortzuak programatzea

Zenbaitetan, errefortzu bereziak planteatu beharko ditugu ikaskuntza-prozesuan haur bakoitzaren garapen-mailarekin eta proposatutako ihardueren zailtasun-mailarekin bat datorren ikasteko autonomia bultzatzeko asmoz. Errefortzuez ari garenean ez dugu esan nahi tutoreak edo laguntzako irakasleak hezkuntza-premiak dituen haurrekin zuzenean lanean aritu behar duenik, horretaz gain, edukinak edo eskolako giroa antolatzeko modua, espazio-denboren banaketa, ikasle-taldeak, ebaluatzeke era, material eta baliabideen hautaketa eta egokitzapena ere irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aisatzen duten laguntzako eta errefortzurako elementuak dira. Ikasgela modu jakin batean antolatuta edo zuzeneko laguntzaren bat emanda esku hartuz gero, haurrek dituzten gaitasun, ideia eta ezagutzen berri izango dugu, helburu bera lortzeko, konplexutasun-maila desberdinetako iharduerak proposatzeko aukera izanik.



Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioari buruzko erabakiak hartu behar dira.

Ebaluazioa aldagai bat da, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren beste zati bat besterik ez, prozesu hori bideratzeko erabili ohi den tresna, hain zuzen ere. Ebaluazioak ondoko funtzio biak bete behar ditu:

- laguntza pedagogikoa haur bakoitzaren ezaugarriei doitu
- eta proposatutako helburuak zenbateraino betetzen ari diren adierazi.

Estraineko funtzioak erakusten digu zenbateraino dagoen ebaluazioa irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan integraturik eta zer neurritan zaigun baliagarria gure esku-hartzea ikasleen garapen-mailari eta gaitasun desberdinei egokitzeko. Zentzu horretan, ebaluatzeak zera erakusten digu, haurrek ikaskuntzan dituzten "erroreak" gauzak ezagutzen joateko eta beren kabuz ikasteko bide bat izateaz gain, gure esku-hartzea gidatzen duen jarraipide antzeko bat direla.



Hezkuntza-ingurunearen antolamenduari buruzko erabakiak hartu behar dira, espazioak, denborak eta taldeak nola antolatuko diren erabaki behar da, alegia.

Hezkuntza-iharduna espazio-denborak osatutako koodenatu batzuen barruan gertatu ohi da beti, hurrek osatutako talde jakin batzuen bidez. Hezkuntza-ingurune elementuak modu egokian antolatuz gero, hurrei askoz errazagoa gertatuko zaie irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan murgiltzea. Hona hemen elementu horiek antolatzerakoan kontuan izan beharrekoen berri:

- ❑ Hurrek dituzten gaitasun eta interesen arabera, lan globalizatzaileak burutzeko uneak eta berariazko ikaskuntzarako uneak errespetatu behar dira.
- ❑ Kontuan izan behar da arreta indibidualizatua emateko aukera, agian laguntza emanda ikasle bakoitzaren erritmoaren araberako berariazko ikaskuntzak indartzeko modua izango baitugu.
- ❑ Kontuan izan behar da, halaber, integrazioaren printzipioa. Printzipio horrek dioenez, guztiek parte hartu behar dute ihardueretan, bakoitzaren erritmoa errespetatu behar delarik.

Espazioak eta denbora banatzea

Espazio eta denboretan sor daitezkeen hezkuntza-premiak hartuko ditugu kontuan:

1 Jantokia

Elikatzeko tokia eta denbora garrantzi handiko elementuak dira hezkuntzan, zenbait hurrek autonomi alorreko eta egokitzapen-alorreko azturak eskuratzeko arazoak azaltzen baitituzte bertan. Elikadurarekin zerikusia duten une horietan osasun-azturak eskuratzen dituzte eta besteekin elkarreraginak izateko ohitura hartzen dute hurrek; batik bat otorduetan eurekin erlazionatzen diren pertsona helduen jarrerak imitatuz eta nagusiek adierazitako jarraipide eta gogoetei esker. Giroak ere egokia izan behar du; hots, eroso eta atsegina izan behar du jantokiak, zenbait hurrek dituen eragozpen eta mugei erantzuteko eta konponbideren bat kausitzeko. Alde horretatik, Haur-Hezkuntzan dabilzan

haurrentzako ordutegi eta espazio bereziak finkatzea komeni da, halaber, ondokoak planteatu behar dira: bazkal osteko iharduerak, atsedena eta higienerako uneak, nork -ikasle nagusiagoek, gurasoek...- lagunduko gaituen haurrak zaintzen, etab.

☛ 2 Jolastokia

Jolastokiak eta jolasgaraiak ere garrantzi izugarria dute hezkuntzan. Jolasten ari diren bitartean, duten autonomi mailaren berri ematen digute haurrek, hortaz, benetan momentu aparta da jolasgaraia ikasleak hobe ezagutzeko modua emango digun behaketa kritiko eta zorrotza burutzeko. Espazio zabal eta ezezagunek, jolastokiak eta gimnasioak, besteak beste, halako kontrol eta segurtasun-ezazko sentsazioa sortzen dute haurrengan, erasoak jasan, zirikatua izan edo eta lagunak erasotzeko aproposak direla uste baitute. Irakaslearen esku dago jolasak modu egokian antolatzea, haurren premien eta bertan egin daitezkeen jolasen arabera banatu behar dituelarik jolastokiko espazioak. Guztiek ezagutzen eta errespetatzen dituzten arau argi batzuk ezarri gero, gainera, segurtasuna eta bata bestearenganako konfidantza nagusituko dira, eta helduak ez du zertan jokabide arbitrarioak gaitzesten edo haurrak kontrolatzen ibili beharko.

☛ 3 Psikomotrizitate-gela

Psikomotrizitate-gelak haur bakoitzaren izaera agerian jartzeko ongi egituraturako eta planifikaturako esparrua izan ez ezik, irakasleak ikasleek dituzten berezitasunen eta iharduteko moduen arabera esku-hartzeak burutzeko, hau da, dagozkion bitartekari-lanak egiteko leku aproposa ere bada. Aipatu esku-hartzea burutu ahal izateko, hurrei oinarritzeko nozioak berenganatzeko eta adierazpen sinboliko edo grafikoa ahalbidetuko duen sinbolizazio-lana garatzeko aukera emango dizkieten espazio eta denbora batzuk planifikatu behar dira aurrena. Lan psikomotrizitate guztiz funtsezkoa da haur guztientzat, eta arestian esan legez, nagusiki hezkuntza-premia bereziren bat dutenentzat. Psikomotrizitate lantzeko gela ikaskuntza-prozesuak ahalbidetzen dituzten espazio desberdinetan zatitu daiteke; espazio horiek eta jolaserako espazioak, **txoko** izenekoak, bat etortzea gerta daiteke. Aipatu berri ditugun espazioak ondokoak izan daitezke besteak beste:

- jolas sentsomotoerako espazioa
- jolas sinbolikoerako espazioa
- eraikuntzak egiteko espazioa.

☞ 4 Ikasgelako *txokoak*

Proiektuak edo interes-guneak modu globalizatuan lantzeko espazio bat antolatu behar da ikasgelan, eskuratze-modu eta erritmoen arabera berariazko ikaskuntzak landu ahal izateko. Haur-Hezkuntzako ikasgelak antolatzeko erabiltzen den erarik arruntena eta ezagunena lanerako *txokoak* dira. Biderik arruntena izanik ere, hori ez da gaitasunak eta berariazko ikaskuntzak lantzeko bide bakarra. Haur-Hezkuntzan ager daitezkeen oinarrizko premiak direla-eta, ikasgela antolatzeko proposamen batzuk aurkeztuko ditugu ondoren. Gelako ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzunda, hezkuntza-premia bereziak dituztenei behar duten arreta eman diezaiekegu, hezkuntza-premia berezi horiek ikasgelaren programazioan hartutako neurri arrunten bidez erantzuten saiatuko garelarik.

Hona hemen haur guztiek izan ohi dituzten premia arruntenen berri:

- Premia fisiologikoak: garbitzea, lo egitea, etab. Konketaren *txokoa*,...
- Jolasteko premia: etxearen eta mozorroen *txokoa*, garajea etab.
- Atsedenerako hartzeko premia: bakarkako jolasak, irakurketarako *txokoa*, atsedenerako *txokoa*,...
- Gauzak adierazi eta komunikatzeko premia: hizkuntzaren *txokoa*, ahozko jolasak eta antzezpenak, ipuinen *txokoa*,...
- Aurkikuntzak egiteko premia: aurkikuntzen *txokoa*, behaketarako *txokoa*,...
- Espazio eta denbora-alorreko alderdiak barneratzeako premia: eraikuntzak, puzzleak, etab. egiteko *txokoa*
- Manipulatzeko premia: objektuen *txokoak*, eskulanak, urarekin, hondarrarekin eta lurrarekin jolasteko *txokoak*,...
- Sortzeko premia: eskularen *txokoa*, collagea, hondakinak,...

Berriz ere errepikatu beharra dago *txokoena* ez dela premiei erantzuteko bide bakarra; edukinak modu globalizatuan biltzen dituzten iharduerak, nor bere kasa jolasteko iharduerak, psikomotrizitate-gela, etab. ere egokiak baitira helburu

horretarako. Bestalde, ikasgelan izango den *txoko*-kopurua eta horien banaketa finkatzeko, irizpide malguak aintzat hartu behar dira eta ondokoak kontuan izan: ikasgelaren eta ikastetxearen ezaugarriak, lehentasuna duten helburuak, haurren berariazko premiak, interesak, etab. Horretaz gain, beti izan behar dugu gogoan haur-ikaskuntzak duen izaera globala.



Denborak banatu behar dira.

Iharduerak burutzeko zenbat denbora erabiliko dugun erabakitzeke orduan nahi eta nahi ez kontuan izan beharreko zenbait irizpide dago. Batzuk azaldu ditugu dagoeneko, espazioak nola antolatu daitezkeen azaldu dugunean, hain zuzen ere, hortaz, honako atal honetan izendatu besterik ez ditugu egingo. Denborak banatzerakoan, beraz:

- Lan globalizatzailea egiteko uneak eta berariazko ikaskuntzarako uneak errespetatu behar dira.
- Talde handitan burutzeko iharduerak eta bakarka nahiz talde txikitan egin beharrekoak txandakatu behar dira.
- Zenbait haurrek lanean duten erritmo irregularra eta bakoitzak gai jakin bati denbora-epe batez arreta jartzeko duen gaitasuna errespetatu behar dira.
- Haurrak eskolan estrainekoz hasten direnean bertara egokitzeko behar duten epea errespetatu behar da, kontuan hartu behar delarik zenbait gorabeheren eta pertsonalitate-arazoen erruz luzeagoa izan daitekeela.
- Erregulartasunez burutzen diren iharduera batzuen kasuan, *errutinak* edo *ohiko esparruak* sortu behar dira, haurren ihardunei nolabaiteko zentzua emateko asmoz. Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei dagokienez, bereziki erabilgarriak gerta daitezke ondoko une hauek: ikasgelan biribilean eseritzeko uneak, sartu-irtenak egiteko modua, otorduak, atsedenerako garaia, garbiketarako garaia, etab., komunikatzeko egoera ezin hobeak eskaintzeaz gain, parte hartzera bultzatzen baitituzte.



Ikasle-taldeei buruzko erabakiak hartu behar dira.

Haurrek elkarren arteko harremanak eta irakaslearekiko harremanak ezartzeko aukerak nahiz irakaskuntza eta ikaskuntza indibidualizatzeko aukerak mugatu edo

areagotzen ditu aukeratutako talde-motak. Gauzak horrela, ikasleak nola banatuko ditugun erabaki aurretik kontuan izan behar dugu haur guzti-guztien hezkuntza-premiak ase behar ditugula. Oro har zera esan daiteke:

- ❑ Taldeak handiegiak izanez gero, eguneroko iharduna oztopatu dezakete, eta haurrak nolabait sakabanatu daitezten eragin.
- ❑ Oso homogeenak diren taldeek urritasunak sortarazi ditzakete.
- ❑ Talde heterogeenok, berriz, integratzeko aukera ezin hobeak ematen dizkiete hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrei, eta indibidualizazioa bultzatzen dute.
- ❑ Talde txikiak, besteekin elkarreraginak izan ezean, ez dira oso dinamikoak eta ez dituzte gizarte-estimulu aberasgarriak eskaintzen.
- ❑ Taldeak malguak izanez gero, positiboan iruditzen zaizkien egoerak bilatzeko modua dute haurrek, bai ikaskideei eta baita helduei dagokienez ere.

Ikasgelako kideak talde desberdinetan banatu eta hezkuntza-premiei erantzun nahi badiegu, ondoko jarraipideak hartu behar ditugu kontuan:

Talde handiak:

- Jarraipide eta informazio sinpleak adierazteko modua ematen du; alabaina, desegokia gerta daiteke hitzezko edo arreta-alorreko eragozpenak dituzten haurren kasuan.
- Iharduera amankomunak planifikatzeko, eginkizunak banatzeko, azalpenak emateko eta ereduak aurkezteko aparta da talde handia, baina kontuan izan behar da iharduera osagarriak planteatu behar direla arretari eutsi ezin diotenentzat.
- Elkarrizketetan oinarritutako iharduerak burutzeko orduan, esku-hartzea doitu beharra dago, haur guztientzat egokia izan dadin.
- Iharduera luzeak edo eta hitzezko gehiegizko edukinak dituztenak moldatu egin behar dira haur guztien arreta gureganatzeko, horrela guztiek izango dute eta iharduera burutzeko aukera.

Talde txikiak:

- Ikasle jakin batzuen premiei behar adinako arreta egiteko modua ematen dio irakasleari.
- Elkarreraginak ahalbidetzen ditu eta ikuspuntu desberdinak eztabaidatzeko aukera ematen du.
- Lankidetzan aritzeko modua eman ez ezik, laguntzearen aldeko jarrerak bultzatzen ditu.
- Haurrak berak eredu bilakatzea eta ereduak imitatzea errazagoa da talde txikietan.
- Iharduera norbere erritmoari egokitzeko modua ematen du.
- Ikasleen autonomia indartzen du.
- Elkartasunezko jarrerak eratzeke egokia da talde txikia, taldean sortzen diren gatazkak elkarrizketaren bidez konpontzeko bidea ematen baitu.

Bakarkako lanak:

- Haur kaotizak ikasteko duen estiloari eta bere ezaugarriei moldatzeko aukera ematen digu.
- Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukin jakin batzuk ikasteko eta barneratzeko baliagarriak diren iharduerak egiteko egokia da bakarkako lana.

- Tresnabidezko ikaskuntzak bultzatzen ditu.
- Ikasteko orduan behar den autonomia areagotzen du.



Zein baliabide hautatuko diren eta hautatukoak nola antolatuko diren erabaki behar da.

Baliabideak ondokoak dira: irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesua modu planifikatuan garatzeko erabiltzen dituen curriculum-materialak, tresnak eta bestelako bide guztiak. Ikasgelan erabiliko diren baliabideak eta materialak hautatzeko orduan, ondoko irizpideak izan behar dira gogoan:

- Haurren hezkuntza-premietara egokitu behar dira, beharrezko aldaketak eginda, curriculumerako sarbidea ahalbidetzeko.
- Irakasleentzat lagungarriak izan behar dute, ez dira sekulan irakasleen ordezkotzat jo behar.
- Erabiliko diren testuingururako egokiak izan behar dute, haurren ezaugarri psikoebolutiboekin bat etorri behar dutelarik.
- Proposatutako laneko planarekiko koherenteak izan behar dute eta hartutako aukera metodologikoekin bat etorri.



Haurrekiko harremanari buruzko erabakiak hartu behar dira.

Dagoeneko, aski argi utzi dugu dokumentu honetan, elkarreraginen kopuruak eta kalitateak berebiziko garrantzia dutela ikaskuntzak burutzeko; hala ere, laburpen gisa edo, bi ideia nabarmendu nahi ditugu oraindik, esanguratsuak iruditzen baitzaizkigu. Alde batetik, irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan duten eginkizunaz hitzegin nahi dugu eta, bestetik, lankidetzazko ikaskuntzak duen garrantziaz. Irakasleak bitartekari aktibo eta sortzailea izan behar du irakaskuntza-ikaskuntza prozesu osoak iraun artean. Edonolako iharduera bat burutu *aurretik, bitartean eta ondoren* gogoeta egin ez ezik, ongi planifikatu behar du bere esku-hartzea. Bestalde, irakaslea ez da ikaskuntzak bultzatzen dituen laguntza bakarra. Kideen arteko elkarreraginak ere izugarritzko garrantzia du hezkuntzako helburuak eskuratzeko prozesu horretan; izan ere, askoz garrantzitsuagoa da hezkuntza-premiak dituzten haurren kasuan; honako arrazoiak direla bide, hain zuzen ere:

- ❑ Kideen arteko elkarreraginak ikaskuntza bultzatzen du, haurrei imitatzen errezagoak diren ereduak (kideenak) eskaintzen baitizkie.
- ❑ Haurrak aniztasunean hezteko ezinbestekoa da, horren eraginez ikuspuntu desberdinak alderatzen baitituzte, rol desberdinak hartu, amankomuneko lana kontrolatu eta laguntza eskaini eta jaso.

Ondoko eskeman ageri dira laburturik ikasgelaren programazioan landu eta horren bidez hezkuntza-premiei erantzuteko kontuan izan behar diren aldagaien berri.

Ikasgelaren Programazioaren bidez HPBei erantzuteko kontuan izan behar diren aldagaiak

- **Proposamen globalizatzaileak egin.**
- **Edukinak hautatu eta antolatzeke erabakiak hartu.**
 - Ikaskuntzak eta berariazko errefortzuak programatu.
- **Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren ebaluazioari buruzko erabakiak hartu.**
- **Hezkuntza-ingurunearen antolamenduari buruzko erabakiak hartu:**
 - Espazio-denborak banatu:
 - 1 Jantokia
 - 2 Jolastokia
 - 3 Psikomotrizitate-gela
 - 4 Ikasgelako txokoak
 - 5 Biribila
 - Denborak banatu.
 - Ikasleak taldetan banatu.
- **Baliabideei buruzko erabakiak hartu.**
- **Hurrekiko harremanei buruzko erabakiak hartu.**

CURRICULUM-EGOKITZAPEN INDIBIDUALAK HAUR-HEZKUNTZAN

Hezkuntza-eskaintza amankomuna haur bakoitzaren premia eta ahalbide desberdinetara moldatzeko prozedurak dira **curriculum-egokitzapenak**. Haur batek nahiz haur-talde batek lehen aipatutako neurriak erabilia, hots, Ikastetxearen Curriculum-Proiektua eta Ikasgelaren Programazioa erabilia ase ezin daitezkeen premiak dituzten bakoitzean erabili behar dira curriculum-egokitzapenak.

Aurreko kapituluetan ikusi dugunez, Haur-Hezkuntzaren ezaugarrietariko bat da hezkuntza-premiei *continuum* bat osatzen dutela, orokorrenetatik hasita bereziagoak direnetaraino, eta premia horien arabera burutzen dira hezkuntzako esku-hartzeak; esku-hartzeek ere *continuum* bat osatzen dute, hezkuntzako estrategietan egin ohi diren doikuntza txikietatik hasita, edukinak eta helburuak nolabait aldatzen dituzten egokitzapen esanguratsuagoetaraino. Doikuntza horien izaeraren arabera, bi motako Curriculum-Egokitzapen Indibidulak daudela esan dezakegu: oso esanguratsuak ez diren egokitzapenak eta oso esanguratsuak direnak.

Egokitzapen ez oso esanguratsuak: curriculumeko elementu bati edo gutxi batzuei eragiten dizkieten egokitzapenak dira, erreferentzi gisa haurra eskolatuta dagoen zikloa hartzen delarik.

Egokitzapen ez oso esanguratsuen bitartez haur bakoitzak dituen hezkuntza-premiak asetzeko arreta egokia izango duela ziurtatu nahi da. Horrelakoetan, oso esanguratsuak izan gabe ere Haur-Hezkuntzan berebiziko garrantzia duten curriculumeko elementuak soilik aldatzen dira, hala nola: ikaskuntzen sekuentzia, proposatutako iharduerak, edukinen hautaketa, materialak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko laguntzak, haurren arteko elkarreaginak, ebaluatzeko moduak, etab. Aldaketa horien guztien xedea zera da, ikasgelako haur gutzi-guztien hezkuntza-premiak ***intentsionalki*** konpentsatzea.

Oro har, irakasleek askotan egiten dituzte goian aipatutakoak bezalako aldaketak haurren ikaskuntza-erritmo eta estilo desberdinei eta ikasleek dituzten eragozpenei erantzuteko asmoz. Behar bada, hasierako ebaluazioari ekiteko unean bertan intentsionalki konpentsatu beharreko egoeraren bat antzematea gerta daiteke, hezkuntza-premiei aurrea

hartzeko beharra sortzen delarik hezkuntza-iharduna eraginkorra izan dadin. Gauzak horrela, aldaketak ez dira "*a posteriori*" egiten, taldearen curriculum-a planifikatzerakoan baizik, ikasleen eta testuinguruaren ebaluazioa eta haurren hezkuntza-premia bereziak abiaputu gisa hartuta.

Arestian esan dugunez, hezkuntzaren ziklo honetan hezkuntza-premia ugari aurkitu ohi dugu eta asko iragankorrak izaten dira, haurrak bilakatzen ari diren etapa baita aztertzen ari garena. Horrek zera esan nahi du, ikasle bakoitzari testuinguru natural eta arrunt batean, hau da, eskolan eta ikasgelan eman beharko diogula arreta, eta ikastetxeko beste profesionalek, laguntzako irakasleek, aholkulariek, beste maila bateko hezitzaileek, laguntzaileek eta abarrek tutoreekin batera lan egin beharko dutela, hezkuntzako esku-hartzea planifikatzen lagunduz edo, bestela, zuzenean esku hartuz.

Egokitzapen ez oso esanguratsuak egin eta hezkuntza-premia bereziei erantzuna ematen saiatze hori bat dator haur-eskolan ikaskuntzari buruz nagusi den ikuskera globalizatzailearekin, ondokoak ahalbidetzen baititu:

- ❑ *errealitatearekin eta haurren interesekin zerikusia duten iharduerak planifikatzea*, iharduerak, materialak eta, are, edukinak lantzeko uneak aldatuta.
- ❑ *zailtasun-maila desberdineko iharduerak gai baten edo eta ardatz amankomun baten inguruan egituratzea*, haurrentzat esanguratsuak diren ikaskuntzak burutzeko modua ematen dutelarik.
- ❑ azkenik, *edukinak haurren alde aurretiko ezagutzei moldatzea*, eta kasu bakoitzean *egokien iruditzen zaigun laguntza programatzea*.

Garapena konpentsatu eta bultzatzea helburu duten neurri horiek estrategia baliagarriak izan beharko lukete berez, zenbait kasutan Haur-Hezkuntzan azaltzen diren hezkuntza-premia bereziei erantzun egokia emateko nahikoak ere izan beharko lukete. Eragozpen larriak dituzten haurren kasuan, ordea, urritasunen bat duten edo eta ingurune sozio-kultural berezi batetik datozen haurren kasuan, alegia, neurri horiek ez dira nahikoak, halako *intenzionalitate* batez planteatu ezean behinik behin, bestela haur ezinduenak edo hezkuntza-premia handienak dituztenak ikasgelako ihardunaz kanpo geratuko dira eta.

Berriz azpimarratu beharra dago Haur-Hezkuntzan gertatu ohi diren hezkuntza-premia gehienei erantzuteko erabiltzen den funtsezko bidea *curriculum-egokitzapen ez oso esanguratsuak* direla. Haur-Hezkuntzako bigarren zikloan planteatzen da haur guztiek

helburu eta gaitasun berberak garatu behar dituztela, antolamenduan, ihardueretan, laguntzetan, edukinen hautaketan eta denboralizazioan eta abarretan aldaketak egin behar badira ere. Aldaketa horiek Ikasgelaren Programazioan azaldu behar dute.

Haatik, zenbait kasutan hezkuntza-premia berezi larriak eta iraunkorrak dituzten haurrak ere aurki ditzakegu, artean lehen zikloko (0tik 3 urtera bitarteko zikloa) helburuak eta edukinak eskuratu gabe dituzten haurrak, alegia. Kasu horietan curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuak egin behar ditugu, ikasgelaren programazioan egindako aldaketa eta moldaketa guztiez gain.

Curriculum-egokitzapen esanguratsuak helburuak edo eta edukinak aldatu behar direnean egingo dira. Horrelakoetan aurreko zikloko helburu eta edukinak hartu behar dira erreferentzia gisa.

Curriculum-egokitzapen esanguratsuek eragin izugarria izaten dute ikasleen eskolako bizitzan eta gizarte-bizitzan; horrexegatik hain zuzen ere kasu benetan berezietan egin behar dira. Curriculum-egokitzapen esanguratsu bat egin aurretik, curriculumeko elementu ez oso esanguratsuak (metodologia, antolamendua, edukinak aurkezterakoan jarraituko den sekuentzia) aldatu behar dira eta haur jakin baten hezkuntza-premia bereziei erantzuteko nahikoa ote den ikusi. Azken konponbide gisa soilik, aurreko neurriak baliagarriak ez direnean, helburu edo eta edukinak kentzeari edo ordezkatzeari ekingo diogu, beste ziklo bateko curriculumarekin erreferentzia gisa hartuta.

Curriculum-egokitzapen esanguratsuak beharrezkoak eta positiboak dira hezkuntza-premia berezi larriak dituzte haurtzat, baina kaltegarri eta baztertzaila bilakatu daitezke ikasgelaren programazioan egin beharreko egokitzapen ez hain esanguratsuen lekuan eginez gero, hots, metodologia, ikasgelaren antolamendua, edukinen sekuentziazioa, eskuratzeko erritmo desberdinei egokitzen zaizkien ihardueren proposamenak eta beste hainbat neurri hartu beharrean egiten badira. Horrekin zera esan nahi dugu, Curriculum-egokitzapen esanguratsua egiteko Ikasgelaren Programazioa egokitu behar dela, bertan Curriculum-egokitzapen indibidualean egindako aldaketen berri biltzeko.

Hori dela eta, iraunkorrak diruditen hezkuntza-premia bereziak dituzten eta laguntza bereziak behar dituzten haurren kasuan, curriculumean sartzeko esku-hartze berezia behar

duten haurren kasuan, neurri horiek ez dira curriculumetik kanpo kokatzen; aitzitik, curriculumean bertan sartzen dira, ikasgelako curriculum-egokitzapena osatzen dutelarik. Haur-eskola muinbakar eta integratzailea lortu nahi izanez gero, ezin dugu planteatu curriculum zurrun bat "normaltzat" jotako haurrentzat eta egokitzapenak edo baliabide zehatz batzuk "integratu beharreko" gisa oker izendatzen ditugun haurrentzat. Gauzak horrela, ezin pentsa dezakegu curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuak ikasgelaren programaziotik at dagoen zerbaite direla.

Adibidez: "Ikusmen-defizitak dituen neska batek hizkuntza aberasteko programa eta ikusmenezko pertzepzioa nahiz pertzepzio kinestesikoa garatzeko programa bat behar izatea gerta daiteke. Era berean, hasieran behintzat, espazio hurbila arakatzen eta ezagutzen lagunduko dion norbaiten laguntza behar izatea ere gerta daiteke. Aparteko laguntza horiek ikasgelaren programazioan sartu behar dira, iharduerak egokitu behar direlarik, zentzumenen garapena bultzatuko duten materialak prestatu, arreta indibiduala eman eta ikasgelaren programa hitzezko eta zentzumenezko erreformaturako nahiz erreformatu psikomotorerako iharduerekin joritu behar delarik".

Haur-Hezkuntzan garatzeko irizpideak

Haur-Hezkuntza bukatutakoan Lehen Hezkuntzan hasten dira haurrak, Lehen Hezkuntza derrigorrezkoa da 6 urtetik gorako haurrentzat, Haur-Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza Ezartzeari buruzko Aginduan jasotakoaren arabera (EHAA 1992/8/13). Agindu horretan aurikusita dago Lehen Hezkuntzan hasteko adina atzeratu egin daitekeela, ebaluatu ondoren beharrezkoa dela irudituz gero eta haur jakin batek hezkuntza-premia berezi benetan larriak baditu, kasu horretan beste urte betez gera baitaiteke Haur-Hezkuntzan.

Aparteko neurri hori hartu aurretik, aldagai guztiak ebaluatu eta baloratu behar dira. Haur-Hezkuntzan jarraitzeak ekarriko dituen abantailak eta derrigorrezko eskolaketa atzeratzeak eta erreferentzi taldeetik aldentzeak eragin ditzakeen eragozpenak edo arazoak balantzan jarri behar dira.

Ez dago zertan beti atzeratu beharrik hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrak Lehen Hezkuntzan sartzeko adina; curriculum-egokitzapenerako ezinbestekoa denean soilik hartu behar da neurri hori. Bestera esanda, hezkuntza-premia bereziak izatea ez da arrazoi nahikoa derrigorrezko etapan hasteko unea atzeratu behar dela proposatzeko.

Lehen Hezkuntzan hasteko unea atzeratzea eta beste urtebetez Haur-Hezkuntzan geratzea komeni ote den baloratzeko orduan zenbait irizpide aintzat hartu behar da. Ondokoak gertatzen direnean atzeratuko da Lehen Hezkuntzan hasteko adina:

- ❑ Haur jakin baten hezkuntza-premia bereziak direla-eta, Curriculum-Egokitzapen Indibidual (CEI) esanguratsu bat egin behar izan dugunean, hau da, Haur-Hezkuntzako lehen zikloko (0tik 3 urte bitarteko zikloa) helburuak eskuratu gabe daudenean edo eta oraindik lantzen ari direnean.
- ❑ Haurren baten arazo organikoek, garapeneko arazoek edo eta osasun-arazoek eskolatzea eta gizarteratzea atzeratu duten medikuntza-premiak eragin dituztenean, hezkuntza-premia bereziak ere egonez gero, jakina.
- ❑ Ustez Haur-Hezkuntzak eskainitako hezkuntza-testuingurua Lehen Hezkuntzako baino aproposagoa denean haurren garapen psikologikoa, afektiboa, soziala eta ezagutzakoa bultzatzeko. "Testuinguru" diogunean zera esan nahi dugu, giroa, metodoak, hezkuntza-estrategiak eta bestelako hurrekin, helduekin eta familiekin dituzten elkarreraginak.

Azpimarratu beharrekoa da hezkuntza-premiak izatea ez dela Haur-Hezkuntzan bete beharreko epea luzatzeko arrazoi nahikoa; aitzitik, praktikak erakusten digunez, hezkuntza-premia bereziak dituzten haur askoren kasuan guztiz egokia izan da Lehen Hezkuntza zegokien adinarekin hastea, ohiko taldean barruan murgilduta, beti ere, behar zituen laguntza pedagogiko guztiak eman bazaizkio. Bestalde, ezin dugu aipatu gabe utzi arestian adierazitako irizpideak solte hartuta ez direla berez elementu nahikoak Haur-Hezkuntza beste urtebetez luzatzea komeni ote den erabakitzeko. Irizpideen konbinaketak soilik eman diezaguke Lehen Hezkuntza noiz hastea komeni den jakiteko informazio egokia eta zer egin behar den erabakitzeko oinarria.

Curriculum-Egokitzapen Indibidualak egiteko prozesua

Haur jakin batzuen hezkuntza-premia bereziei erantzun ahal izateko Curriculum-Egokitzapen Indibidualak egin behar direnean, curriculum arrunta egokitu beharko dugu. Egokitzapen-prozesuak ondoko faseak ditu:

CEI bat lantzeko prozesua osatzen duten faseak

1. FASEA *Ikaslearen eta testuinguruaren hasierako ebaluazioa*

2. FASEA *Ikasleei eta testuinguruari buruzko erabakiak hartzea*

3. FASEA *Ikaslearen curriculumaren plangintza*

1. FASEA *Hasierako ebaluazioa. Hezkuntza-premia bereziak antzematea.*

Hezkuntza-premiak identifikatzeko prozesuaren lehen urratsa **hasierako ebaluazioa** da. Hezkuntzaren ziklo honetan haurra **behatzean** datza urrats horrek; behatu ondoren, garapen-prozesuan somatutako berezitasunak antzeman behar dira, haurren bilakaerak erritmo desberdinak eta nolabaiteko alde handiak izaten dituela ahaztu gabe.

Behaketak ikasleen ingurunean egin behar dira, beste haurrekiko elkarrekin gertatzen diren tokian, material desberdinak erabilita eta ikasi beharrekoa kontuan izanda, ezinbestekoa delarik tutoreen lana hezkuntza-premiak antzeman, egokitu eta aurre-hartzerako neurriak ezartzeko.

Behaketak hezkuntza-premiak identifikatu eta zehazteko burutu behar dira irakaskuntza eta ikaskuntzari buruzko erabakiak orientatzeko asmoz (zer, nola, noiz irakatsi, ikasi, ebaluatu), horrela eragozpenak dituen haurrari ikasteko eta egokitzeko eman beharko dizkiogun laguntzak eta erabili beharko ditugun baliabideak finkatzeko modua izango dugu eta.

Adibidez: Ahozko ulermena ebaluatu nahi badugu eta "Agindu eta argibide sinpleak" ulertzen ote dituen ikusi nahi badugu, ez da nahikoa BAI ulertzen ditu edo EZ ditu ulertzen esatea; horretaz gain noiz uler dezakeen eta noiz ez azertu beharko dugu: "Argibide bat eman aurretik arreta handiagoa jar dezan lortu behar dugu" edo eta "Gauza bat egiteko, non egin behar duen adierazi behar zaio", "Kideekin dagoenean hobe erantzuten du, imitatu egin ditzakeelako", etab.



Hona hemen ebaluazio-prozesuan biltzea interesatzen zaigun informazioa:

Arlo jakin batzuek erreferentzia gisa hartu eta, **ikasle bakoitzak bertan duen gaitasun-maila..**

Ikasleak nola ikasten duen.

- *Ikasteko estiloa*
- *Zerk motibatzen duen*

Ikaskuntzaren testuinguruaren ebaluazioa, hezkuntza-egoeraren aldagaien balorazioaren bidez⁶

- *Haurrari nola irakasten zaion*
- *Ikasgelako giroa*
- *Ikasleen arteko elkarreragina*
- *Irakasle-ikasleen arteko elkarreragina*
- *Ikasgelaren antolamendua eta taldearen funtzionamendua*
- *Zer, nola eta zertarako ebaluatzen dugun*

⁶ ZENBAT EGILE, *Hezkuntza-testuingurua abalutzeko materialak*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila. CERE

Kontua ondokoa da: ikastaldearentzat aukeratutako curriculumeko helburuak eta edukinak direla-eta zer egin dezaketen jakitea. Ikasgelaren curriculumarekin erreferente nagusitzat duen ebaluazio horrek honako hauek ezagutzeko modua emen behar digu:

- Ikaslearen abiapuntua zein den, berarekin egin beharreko lana planifikatu ahal izateko.
- Ikasleak zer dakien eta zer ez dakien.
- Zer-nolako laguntzak komeni zaizkion eta zein balditzatan ikas dezakeen hobeto.

Testuinguruaren ebaluazioa egiterakoan, ikasleen testuinguru hurbilari buruzko informazioa biltzen saiatzen gara batik bat, eta hezkuntza-egoeraren aldagaiek horiengan duten eragina aztertzen, hezkuntza-erantzuna hobetzeko egin behar diren aldaketak sartzeko asmoz.

Hasierako balorazio hori egiteko zenbait estrategia, teknika erta baliabide du irakasleak eskura. Guztien artetik erabilgarrienak iruditzen zaizkigunak eta haurren ezaugarriei hobe egokitzen zaizkienak aukeratu ditugu guk. Hona hemen:



Haur-Hezkuntzan ager daitezkeen hezkuntza-premiak ebaluatzeko tresnak

1. Ikastetxearen curriculum-proiektua. Haur-Hezkuntzako bigarren zikloko programazioan planteatutako helburuak eta edukinak biltzen ditu eta ikasgelaren programazioa, beharrezko aldaketa eta egokitzapen guztiak barne, egiteko erreferentzia gisakoa da.

2. Haizea eskala. Haurren ezagutzazko eta mugimenezko garapenean edo eta garapen sozialean egon daitezkeen anomaliak txikiak direnean antzemateko modua ematen digu eskala horrek. Horri esker:

- esku hartu eta defizitak lehen bait konpentsatzen has gaitzake
- ingurunea agertzen zaizkigun hezkuntza-premiei egokitu diezaiekegu
- beharrezkoa denean, balorazio espazializatuagoak egin ditzakegu
- orientabideak ematen dizkie familiakoei eta hezitzaileei

0 urtetik 6 urtera bitarteko haurrekin lan egiteko aproposa da. Halako *ARRISKU-ZEINU* batzuk adierazten ditu, zeinu horiek behin eta berriz agertzeak garapenean arazo larriak daudela esan nahi du eta gure behaketak osatzeko espezialisten baten iritzia behar dugula adierazten. Haizea eskalak ebaluazioarko 97 elementu ditu. Elementu horiek garapen-aula batzuk osatzen dituzte, ondoko arloei dagozkien garapen-aulak dira, beraz:

- ❑ Gizarteratze-arloa (26 elementu)
- ❑ Hizkuntzaren eta Logika-matematikaren arloa (31 elementu)
- ❑ Manipulazio-arloa (19 elementu)
- ❑ Gorputzaren jarreraren arloa (21 elementu).

Erabiltzen erraza da, nahikoa baita haurrek ikasgelan egiten dutena behatzea eta familiak ematen digun informazioa gehitzea, ikasgelan egunero burutu ohi diren eginkizunen bidez konpentsazioa eta hobekuntza bultzatzeko. 3. Eraskinean eskala horren erregistro-orri bat aztertuko dugu.

3. Erregistroak. Haurren garapenaren alderdi jakin batzuk behatu ahal izateko (jolasa, imitazioa, hitzeko mintzaira, etab.), une desberdinetan jasotako datuen berri emateko erregistroak erabil ditzakegu. Erregistro ugari dago eta, horrexegatik, nahiko erraza gertatzen da ereduak sortzea garapenari dagozkion behaketen berri biltzeko. Guk geuk eredu bat proposatu nahi dizuegu, esfinteren kontrola egiteko erabil daitekeen erregistroaren eredia, hain zuzen ere (*4. Eraskina*).

4. Elkarrizketak. Familiakoekiko elkarrizketek haurrak etxean nola moldatzen diren jakiteko baliagarriak zaizkigun informazioa eta datuak esakuratzeko balio dute eta oso erabilgarriak dira ikastetxean egindako behaketak osatzeko. Haur bakoitzari buruzko ikuspegi globala izateko lagungarriak dira eta baita etxean dituzten ohitura, interes eta azturen berri izateko ere. Zer esanik ez, familia eta eskolaren arteko lankidetzak bultzatzeko bide aparta dira. 5. *Eraskinean* familiekin harremanetan hasteko lehen elkarrizketa izateko eredia azalduko dugu.

2. FASEA.- *Taldeari edo eta ikasleari buruzko erabakiak hartzea.*

Hasierako ebaluazioan eskuratutako informazioa aztertu ondoren, datuak lortu berri ditugun alderdiei buruzko erabakiak hartzeari ekin behar diogu, behar diren aldaketa guztiak sartu behar ditugularik eta taldeak nahiz ikasle jakin batek aurrera egiteko behar dituzten laguntzak prestatu.



Adaketak ondoko alor hauetan egin ditzakegu:⁶

Ikasleei dagokienez:

Erabilitako estrategiak alda daitezke.
Ikaslearekin lan egiteko modua (bakarka edo taldean).
Ikasleari emandako laguntzak.
Erabilitako materialak.
Proposatutako iharduerak.
Lan-ordutegia.
Motibatze bideak.
Helburuak eta edukinak.

Zikloari eta gelari dagokienez:

Espazio-denboren antolamendua alda daiteke.
Ikasleen taldeak.
Lanerako metodologia.
Plangintza eta ebaluazio-sistema.
Irakasleen antolamendua eta koordinazioa.
Baliabide materialak eta horien antolamendua.
Helburuak eta edukinak.
Ikaskuntzen programazioa eta berariazko errefortzuak.

Ikastetxeari dagokionez:

Giza baliabideen eta baliabide materialen antolamendua alda daiteke.
Metodologiari dagozkion hanbat alderdi.
Plangintza eta ebaluazio-sistemak.
Irakasleen koordinaziorako sistemak.
Helburuak eta edukinak.

⁶ CEI/IDC. *Curriculum-Egokitzapen Indibidualak egiteko laguntzako materialak. Haur-Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. 1. zk.* Gasteiz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.

Sarritan, laguntza bereziak eman behar dizkiegu hezkuntza-premiak dituzten hurrei halako ikaskuntza jakin batzuk burutzeko. Ebaluazioaren helburuetariko bat, hain zuzen ere, ikasleek ikasten dutena barneratzeko zer-nolako laguntzak eta baldintzak behar diren somatzea da; hots, ikaskuntzak gauzatzeko baldintza egokiei buruzko informazioa eskuratzea, kasuan kasuko erabakiak hartzeko modua izan dezagun. Ondoren ikaskuntzak ahalbidetzen dituzten laguntza batzuk aipatuko ditugu; guztiak ikasgelan bertan eman daitezke:



Hezkuntza-premia bereziak dituzten Haur-Hezkuntzako bigarren Zikloko hurrei laguntzeko zenbait bide:

Laguntza fisikoa, eginkizuna burutzen duen bitartean ikaslearen ondoan egotea.

Itxaroaldia areagotzea, eskatzen zaionari erantzun ahal izateko behar duen denbora ematea, alegia.

Iharduera sinpleak programatzea, Haur bakoitzaren ezagutzei egokitzeko moduko iharduerak, behar adinako urratsak eta sekuentziak dituztenak.

Ikusizko seinaleak erabiltzea: hitzeko mintzairaz gain argazkiak, marrazkiak, grafikoak, sinboloak, etab erabiltzea, iharduera bakoitza burutzeko espazio-denboren eta egiteko moduaren berri izateko, eta hurrek euren iharduna kontrolatu ahal izateko.

Gizarte-errefortzuak, hots, irribarreak, haur bakoitzarekin hitzegitea, dituen esperientziak kondatzeko aukera ematea,... guztiz estimulu positiboa izan ohi da ikasleentzat eta zuzeneko eragina du haurren afektibotasunean eta ikasteko gogoan.

Haur bakoitzari argibide garbiak ematea, une bakoitzean, esan dieguna ulertu dutela eta egin behar dutenaren jakinaren gainean daudela ziurtatuz.

Ereduak ematea, hots, haurrentzat esanguratsua den pertsona batek edo eta ikaskideek egiten dutena eurek egin beharrekoaren "eredu" gisa aurkeztea, egin nahi dutena imitatzeko aukera ematea.

Iharduera osoa edo eta zati bat haurrarekin batera burutzea.

Laguntza fisikoa, hau da, zenbait zeregin burutzen laguntzea, hala nola, alde batetik bestera joaten, esfintereen kontrolarekin, elikadurarekin eta abarrekin zerikusia duten azturak ikasten laguntzea.

Kateamendua. Adin hauetako hurrek egindako iharduera asko lotuta daude elkarren artean, kateatuta daude nolabait, sekuentzia bat osatzen dutelarik. Prozedura hori berori erabil dezakegu trebetasunak irakasteko, urrats desberdinen kate-maila ordenatuak bailiran, katearen azken urratsetatik hasiz.

(Adibidez) Ikasgelatik atera aurretik:

- *materialak bildu behar dira*
- *bata kendu beharra dago eta*
- *dagokion lekuan eseki*

Zenbait kasutan emaitza hobek lortzen dira katearen azken urratsetik hasiz gero (bata dagokion lekuan eseki), gainerako iharduerak hortik abiatuta proposatu behar direlarik, haur bakoitzaren erritmoa kontuan hartuta.

3. FASEA.- *Ikaslearen curriculum indibiduala planifikatzea*

Haurren hezkuntza-premiak finkatuta daudenean eta sartuko ditugun aldaketak erabakitakoan, Zikloan zehar haurrekin erabiliko dugun programaren nondik-norakoak zehaztu ahal izango ditugu. Curriculum indibidual hori Ikasgelaren Programazioan bertan gauzatu behar dugu, hots, erreferentzi taldearen osagai arrunt amankomunak oinarritzat hartuta egin behar ditugu aldaketak guztiak (ihardueren egokitzapenak, material jakin batzuen erabilpena, denboren antolamendua,...), eragozpenak dituen haurrak taldeko gainerako kideek burutzen dituzten eginkizun berberak egin ahal izateko.

Dena den, zenbaitetan, plangintzaren alderdi batzuk lanerako programazio indibidualizatueta zehaztu beharra gerta daiteke. Programazio berezi horiek egindakoan ere, ez gara ahaztu behar helburu nagusia integrazioa eta gizarteratzea bultzatzea dela, eta horiek biak bultzatzeko biderik egokiena ondokoa dela: besteekin egoera normalizatu batean bizi eta elkarreraginak izatea.

Hona hemen plangintza orokorrean bildu beharreko alderdien berri:

***ZER, NOIZ ETA NOLA EBALUATU
EDO IKASLEAREN JARRAIPENA EGIN***

ZER ETA NOIZ IRAKATSI

NOLA IRAKATSI

ZEIN BALIABIDE MATERIAL ETA GIZA BALIABIDE ERABILI

Gehiago jakin nahi izanez gero

- * *Curriculum-egokitzapen indibidualak egiteko laguntzako materialak. Haur-Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza, 1. zk.* (1994). Gasteiz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.CEI/IDC.
- * GONZALEZ MANJON, D. (1993). *Adaptaciones curriculares.Guía para su elaboración.* Malaga: Ediciones Aljibe.
- * RAMSEY, C. (1990). *Juegos adaptados para niños con necesidades educativas especiales.* Madril. Gizarte-Gaietarako Ministrarritza. INSERSO.
- * TOLEDO GONZALEZ,M. (1986). *La escuela ordinaria ante el niño con necesidades educativas especiales.* Madril. Santillana Arg.
- * ZABALZA, M. (1987). *Didáctica de la Educación Infantil.* Madril: Narcea.
- * CEI/IDC. *Guía de recursos para la Educación Infantil* Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila. Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza. (Egiteko bidean).

Ikastetxean hausnartzeko

- * Haur-Hezkuntzan normalean burututako iharduerak edo errutinak aztertu. Zenbait haurren hezkuntza-premia bereziak barne biltzen ote dituzten ikusi.
- * Ikasgelako *txoko* bakoitzean dauden materialen zerrenda egin eta garatzen dituzten gaitasunak aztertu. Nola egin dezakete lan hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrek material horiek erabilita?
- * Ikasgelan eta ikastetxeko espazio amankomunetan (jantokian, komunetan, jolastokian, gimnasioan, psikomotrizitate-gelan, bideo-gelan, etab) dauden hitzez kanpoko laguntzen, hots, ikusizko, entzunezko, adierazpenezko eta abarreko laguntzen berri bildu.
- * Jateko eta jolasgaraiako espazio-denborak eta ikastetxeko espazio handiak nola antolatuta dauden aztertu eta hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren funtzionamenduari egokitzen ote zaizkion ikusi.
- * Haizea proba egin eta ikasgelaren programan ezarritako laguntza eta errefortzuei esker lortutako emaitzekin alderatu.
- * Ikasle-taldeak aztertu: ikasleek ba al dute kideei laguntzeko aukerarik? Taldeko iharduerak burutu ditzakeke?
- * Ikasturtearen hasieran familiekin egin beharreko bileran azter daitezkeen gaien zerrenda egin.

IV. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIEN GIDA

Atal honetan Haur-Hezkuntzan gehien aurkitzen ditugun sindrome, nahaste edo egoera batzuk azalduko ditugu laburturik, hezkuntza-premia bereziak eragiten baitituzte. Gure helburu nagusia zera da, nahaste edo eta sindrome bakoitzari buruzko funtsezko informazioa eskaintzea; hori horrela, bakoitzaren berri emateko asmoz, fitxa antzeko batzuk osatu ditugu, eta bakoitza atal desberdinetan sailkatu. Gaia sakondu nahi izanez gero erabil daitekeen oinarrizko bibliografia ere azalduko dugu bertan. Hona hemen fitxetan ikusiko ditugun atalak:

- ✓ Sindrome edo egoera bakoitzaren ezaugarri orokorren gaineko informazioa.
- ✌ Nahaste edo eta egoera bakoitzean dauden alderdi positiboei eta ongi funtzionatzen duten gaitasunei buruzko orientabideak.
- ✿ Erantzun beharreko eragozpen arruntenei buruzko informazioa.
- ✚ Eskolan egin beharreko lanari buruzko jarraipideak, Ikasgelaren Programazioan edo eta Curriculum-Egokitzapen Indibidualean jaso beharreko alderdi esanguratsuenen berri bilduz.
- 📖 Gaia sakondu nahi dutenentzat, bibliografiari buruzko informazioa.

Down-en sindromea duten haurrak	92
Garapenean atzerapen globala duten haurrak	95
Haur autistak	98
Ikusmen-defizita duten haurrak	101
Entzumen-defizita duten haurrak	104
Mugimen-ezintasuna duten haurrak	107
Esfintereen kontrolean atzerapenak dituzten haurrak	110
Gutxiengo etnikoetako edo baztertutako kulturetako haurrak	113
Tratu txarrak pairatzen dituzten haurrak	116
Hezkuntza-premia bereziak dituen haur baten familia	119

Dokumentu honetan zehar, haurrek izan ohi dituzten eragozpenei buruz aritu gara oraino eta hezkuntza-premiak deskribatu ditugu, alabaina, sortzen dituzten defizit nahiz sindromeekin duten lotura aipatu gabe. Dakigunez, haurren bilakaera-prozesuan gertatu ohi diren hezkuntza-premia berdintsuek iturburu desberdinak izan ditzakete, hots, nahaste zeharo desberdinek antzeko premiak eragin ditzakete. Eskolan hezkuntza-premia berezi horiei erantzun egokia ematen saiatzen gara, nondik datozen edo eta eragin dituen sindrome berezia kontuan hartu gabe. Horrexegatik, hain zuzen ere, hezkuntza-premiak deskribatzea erabaki da, eta eskolan premia horiei zer-nolako erantzunak eman diezazkiekegun proposamen gisa azaltzea, sortarazten dituzten arazoiei inongo jarramonik egin gabe.

Dena den, ezin uka dezakegu sindrome jakin batzuek hezkuntza-premia zehatz batzuk eragiten dituztela. Zalantzarik gabe, sindrome edo eta nahaste berdina duten haurrengan ere berezitasun indibidualak somatzen dira, guztiek ibilbide desberdinak eta bilakaera desberdinak dituzte, ez dira berdinak eta ez dituzte jokabide berdinak; hala izanik ere, sindromeak eragindako garapen-eredu berezi bati erantzuten diote guztiek, guztiek

dituzte premia amankomun batzuk.

Hezitzaileek hezkuntza-premia bereziak dituen haurren batekin topo egiten dutenean, zenbait galdera sortzen zaizkie: alde batetik, haur horien arazo indibidualekin zerikusia duten galderak otutzen zaizkie eta, bestetik, aurrerapena bultzatzeko baldintza egokienei buruzkoak ere.

Gauzak horrela, ondoko galderak sor daitezke, besteak beste:

- o Zer arazo du?
- o Nolakoak dira horrelako nahasteak dituzten haurrak?
- o Zer-nolako garapena eta aurrerapenak ditu?
- o Dituen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, metodo pedagogikoak aldatu behar dira?
- o Zein gauza dira haur horrentzat interesgarrienak eta ikasteko errazenak?
- o Zer atsegin zaio edo zer egiten du erraz?
- o Zer ihardueratan izaten du, bada, arrakasta?
- o Nola lagundu diezaiokegu aurrera egiten eta oztopoak gainditzen?
- o Etab.

Galdera hauei erantzun nahirik eta haurrak aparteko nortasuna eta bilakaera berezia dituzten gizakiak direla kontuan hartuta, haur-eskolan aurki daitezkeen elbarritasunen edo nahasteen ezaugarri berezien nondik-norakoak azaltzen saiatuko gara atal honetan. Jarraian ageri diren fitxek elbarritasun edo nahaste bakoitzaren ezaugarri orokorrak biltzen dituzte eskematikoki, gida gisa edo, bakoitzak eragindako hezkuntza-premiak eta hezkuntzako ziklo honetan azaldu ohi diren nahaste edo egoerak direla-eta esku hartzeko jarraipideak ere jasota daudelarik bertan. Haur bakoitza berezia dela eta ikasteko modu bereziak dituela kontuan izanda, beraz, ondoren adieraziko ditugunak jarrapide guztiz orokorrak dira, ager daitezkeen premiei erantzuteko orientabide batzuk luzatzea baita gure asmoa.

Jorratuko ditugun nahasteak hautatzeko orduan, hezkuntzako ziklo honetan gehien topatzen ditugunak aukeratzea erabaki dugu, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren ingurunea ere, hots, familia eta irakasleak kontuan hartu ditugularik.

Hona hemen aipatuko ditugun nahaste edo arazoaren gida edo fitxak:

- * Down-en sindromea duten haurrak
- * Garapenean atzerapen globala duten haurrak
- * Haur Autistak
- * Ikusmen-defizita duten haurrak
- * Entzumen-defizita duten haurrak
- * Mugimen-ezintasuna duten haurrak
- * Esfintereen kontrolean atzerapenak dituzten haurrak
- * Gutxiengo etnikoetako edo baztertutako kulturetako haurrak
- * Tratu txarrak pairatzen dituzten haurrak
- * Hezkuntza-premia bereziak dituen haur baten familia

1. Down-en sindromea duten haurrak

✓ Ezaugarriak

* Down-en sindromea duten hurrek, oro har, gainerako hurrek izan ohi dutenaren antzeko garapena izaten dute bizitzako lehen urteetan.

* Hala ere, berezitasun nabarmenak dituzte portaeraren zenbait alderditan. Alderdi horiei dagokienez, berezitasun kualitatiboak dituzte gainerako hurren aldean; hortaz, laguntza berezia eman behar zaie.

* Down-en sindromea beste arazo batzuekin azaltzen da zenbaitetan, bihotz-malformazioak eta ikusmen nahiz entzumen-defizitak dira arazorik arruntenak.

✌ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

* Bestearen pertzepzio emozional egokia dute. Down-en sindromea duten hurrek enpatia egokia dute, halaber. Izan ere, gaitasun horrek, gizarteratzea bultzatu ez ezik, gainerako hurrekiko nahiz helduekiko harremanak izateko bidea ematen die.

* Imitatzeko trebetasun handia dute. Egoera indibidualetako eta taldean finkatutako jarraipideak eta arauak imitatzeko gai dira, eta hori guztiz erabilgarria da ikaskuntza bultzatzeko.

* Oro har, hizkuntzaren ulermen egokia dute; horri esker ongi moldatzen dira ingurunean eta ongi ulertzen dituzte bertan aurkitutako egoerak.

* Ikusizko pertzepzio eta ikusizko oroimen egokiak dituzte, asoziazioak egiteko, forma desberdinak antzemateko, eginkizun grafikoak burutzeko eta abarrerako modua ematen dietenak.

* Trebatuz gero eta irakatsiz gero, lanarekiko zaletasuna hartu ohi dute.

* Eskuarki, ongi moldatzen dira eskola-ingurunean, jarraipide egokiak eta behar adinako denbora ematen baldin bazaie batik bat.

✳ Zer-nolako eragozpenak dituzte?

* Oro har, arazo handiagoak izaten dituzte gauzak adierazteko ulertzeko baino. Normalean eragozpenak izaten dituzte hitzegiteko eta gainerako hurrek baino beranduago eskuratzen dute hizkuntza. Hitzezko mintzaira ulertzeko gaitasuna, berriz, adieraztekoa baino askoz hobea da.

* Mugimenezko adierazpenari dagokionez, arazoak izaten dituzte motrizitate finean, eskolako hainbat tresna erabiltzerakoan (pinturak, guraizeak, etab.), zenbait trebetasun eskuratzeko, hala nola, lotzerakoan eta askatzerakoan, etab. Hori dela-eta, trebakuntza handiagoa behar dute alor horietan.

* Eragozpen handiagoak izaten dituzte entzumenezko oroimen eta pertzepzioan ikusizko pertzepzioan baino, trebeagoak baitira bigarrenen. Hori horrela izanik, askoz errazago ikasten dute irakasterakoan entzumenezko baliabideak erabili beharrean ikusizkoak erabiltzen baditugu.

* Sarritan, bakarrik lan egiteko eta taldeari adierazitako jarraipideak betetzeko arazoak izaten dituzte.

* Jolasean ari direla nahiz eginkizunen bat burutzen ari direla, arazoak izan ditzakete kontzentratzeko edo epe jakin batez arreta jartzeko.

✚ **Nola lagun diezaiekegu?**

* Eskuarki, Haur-Hezkuntzako 2. zikloko helburu eta edukinak Down-en sindromea duten haurrek eskolan lantzeko egokiak dira, baina zenbait kasutan, eskolako gainerako kideek baino denbora luzeagoa beharko dute helburu eta edukin horiek eskuratzeko.

* Ikasgelako iharduera, egoera eta elkarreraginak guztiz aberasgarriak dira Down-en sindromea duten haurren gizarte-komunikazioa eta ezagutza-alorreko garapena bultzatzeko.

* Down-en sindromea duten haurrek emaitza hobeak lortzen dituzte ikaskuntzan, baldin eta:

- eginkizuna aurkezteko ikusizko laguntzak erabiltzen badira, hala nola, grafiak, marrazkiak, seinaleak,...
- hitzegiteaz gain, mintzaira adierazgarriagoa erabiltzen badugu, hau da, eskuekin keinuak egiten baditugu.

Laguntzeko, ondokoak konpentsatu behar ditugu:

o Arreta, Pertzepzioa eta Motibazioa. Horretarako ondoko iharduerak burutu behar dira:

- Berdinak diren gauzak elkartu, objektuak, marrazkiak, lotoak, etab. parekatu.
- Sailkatu
- Berdinak edo eta antzekoak direnak hautatu
- Objektuak, ekintzak izendatu

o Autonomia eragiten duten trebetasunak.


o Adierazpen-mintzairaren garapena.

o Mugimenezko trebetasunak.

o Arreta eta kontzentrazio-azturen garapena.

Esku-hartzerako eta laguntzarako jarraipide hauek kontuan hartuta:

- o Helburu berbera lortzeko iharduera desberdinak prestatu behar ditugu.
- o Iharduera laburrak proposatu.
- o Gizarte errefortzuak erabili behar ditugu: irribarre egin behar diogu, begiratu, alboan izan, etab.
- o Iharduerak burutzerakoan ahal bait gehien lagundu.
- o Iharduerak burutzeko behar diren materialak egokitu behar ditugu, ikusizko pertzepzioa indartuz.
- o Haurren interesa pizteko asmoz, ikusizko errefortzuak erabili behar ditugu, hala nola, txartelak, seinaleak, argazkiak.
- o Laguntza fisikoa eman, hitzezko argibideak eman eta eredu gisa agertu behar dugu zenbait ihardueratan.

 **Gehiago jakin nahi izanez gero**

* FLOREZ, J; TRONCOSO, M.V. (1991). Síndrome de Down y educación. Fundación S.Dwon Cantabria. Bartzelona: Salvat.

* PEREIRA, J. (1987). Síndrome de Down: Programa de Acción Educativa Madril: Ciencias de la Educación Preescolar y Especial.

* GARCIA ESCAMILLA, S. (1988). S'ndrome de Down. Avances médicos y psicopedagógicos. Bartzelona: Fundació Catalana Síndrome de Down.

HURTADO MURILLO, F. (1993). Estimulación temprana y síndrome de Down: Programa práctico para el lenguaje expresivo en la primera infancia. Valentzia: Promolibro.

2. Garapenean atzerapen globala duten haurrak

✓ Ezaugarriak

- * Garapenean atzerapen globala duten haurrek atzeratutako bilakaera izaten dute hezkuntzaren etapa honetan, alabaina, bilakaeraren eredu orokorrak adin bereko kideek dituztenen antzekoak izan ohi dira.
- * Atzerapen globalak ezaugarri bat du, hots, ez diola eragiten arlo bakar bati soilik, garapen intelektual, afektibo eta sozialaren eremu guztiei baizik.
- * Askotan, estimulazio egokia emanez gero, berez izan beharko lituzketen bilakaera-ereduak eta erritmoak lortzen dituzte, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko orduan atzeratuta dabilzala baita arazo bakarra.
- * Beste zenbaitetan, ordea, nolabaiteko aurrerapenak lortu arren, aurrerantzean defiziten bat izango dute ziurrenik gaitasun intelektualean.

✌ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

- * Haien heldutasun-mailari egokitutako iharduerak proposatuz gero, arras ongi erantzuten diete gizarte-elkarreraginari eta ikaskuntzari.
- * Errazago ikasten dute hitzezko estimulazioarekin batera ikusizko baliabideak erabiltzen baditugu, ikusizko errefortzuak lagungarriak baitira mezuak ulertzeko.
- * Gauzak ongi egiten dituztenean txalotzea atsegin zaie.
- * Edozein haurri bezalatsu, ekintza atsegin zaie, jolastea, objektuak arakatzea, batetik bestera ibiltzea. Kasu honetan ihardueren programak, denborak eta erritmoak moldatu behar dira, harik eta haurren heldutasun-mailara egokitu arte.

* Zer-nolako eragozpenak dituzte?

- * Eragozpen globalak dituzte, garapenaren arlo desberdinei eragin ohi dizkieten eragozpenak, alegia. Norbere gorputzaren ezaguera, koordinazio eta kontrol-alorreko atzerapenak dituzte.
- * Kideekiko elkarreragina bereziki nekeza irudituz gero, bakartzeko joera izan dezakete, gizarte-harremanak ahalbidetzeko neurriak hartu ezean, behinik behin.

* Gizarte-ingurunearen eskakizunak antolatu eta ulertzeko erabiltzen dituzten estrategiak, arreta jarri eta norabaitera zuzentzeko estrategiak, informazioa antolatu eta jokabidea moldatzeko estrategiak ere atzeratuta egon daitezke. Ez da bitxia, beraz, atzerapen horiek eskolako zenbait iharduera burutzeko erari eragitea.

* Esandakoa ongi ulertzeko gauza ez badira, arreta-azturak guztiz finkatu gabe badituzte edo proposatzen zaizkien eginkizuna oso zaila bada, motibazio eskasa izaten dute eskolako iharduerak direla-eta.

* Atzeratuta dute, halaber, kontzeptuak eratzeko gaitasuna eta baita objektuen nahiz gertakarien arteko kategoriak, sailkapenak, erlazioak, etab. ezartzekoa ere.

* Hizkuntzari dagokionez, ulermena eta adierazpena atzeratuta egon daitezke, batik bat testuinguruak inolako laguntzarik ematen ez badie.

✚ Nola lagun diezaiekegu?

* Normalean, egokiak izaten dira ikasgelaren antolamendua eta Haur-Hezkuntzaren 2. zikloko helburuak; dena den, edukinak eta iharduerak sekuentziatu egin beharko dira, aldeztu aurretiko ikaskuntzak kontuan izanda sekuentziatu ere.

* Denbora luzeagoa eman behar zaie ikasteko eta ingurunea, objektuak, pertsonak, norbere gorputza, etab. interpretatu eta ulertu ahal izateko.

* Haurren gaitasun-mailarekin bat datozen iharduerak planteatu behar dira, kontu handiz aukeratu behar dira eta sekuentzia sinpleetan zatitu.

Laguntzeko, ondokoak bultzatu behar ditugu:

- o Norbere gorputzaren ezaguera eta espazioan moldatzeko gaitasuna.
- o Mugimenezko trebetasunak, estimulazio psikomotrizaren eta jolasaren bitartez.
- o Autonomia indartuko duten trebetasunak.
- o Objektu eta espazioen manipulazioa, esperimendazioa eta bereizketa.
- o Kontzeptuen eraketa, hala nola:
 - Berdinak diren gauzak elkartzea
 - Objektuak, marrazkiak, lotoak, etab. parekatzea
 - Formak, tamainak, koloreak, etab. sailkatzea
 - Objektuak bereiztea, erabileraren arabera, ezaugarrien arabera, etab.

Esku-hartzerako eta laguntzarako jarraipide hauek kontuan hartuta:

- o Laguntza fisikoa eman behar diegu, proposatutako iharduera egiteko modua izan dezaten.
- o Iharduerak, espazioak eta denborak egituratu behar ditugu, denbora eta espazioari buruzko nozioak barneratu ahal izateko.
- o Haurren garapen-zonan kokatutako iharduerak proposatu behar ditugu, huts egiteko aukera txiki-txikiak daudela bermatu behar dugularik.
- o Beharrezkoa denean, ereduak eta imitazioa erabili behar ditugu.
- o Egoerak ulertzen dituztela ziurtatu behar dugu; esandakoaz jabetzea nahi izanez gero, beraz, ulertzen duten hizkera erabili behar dugu ezinbestez.
- o Jolasak, psikomotrizitate-iharduerak eta adierazpenezkoak erabili behar ditugu oinarrizko kontzeptuak lantzeko.
- o Gertakari gertatu berriak edo eta gertakizun zehatzak aipatu behar ditugu, eta objekturen batez ari garenean, aurrean izan.
- o Ikusizko laguntzak eta keinuak erabili behar ditugu, eginkizunak ongi burutu ahal izateko.
- o Haurrek ikasitakoak eta arrakastak baloratu behar ditugu.

Familiarekin eta haurren heziketan parte hartzen duten beste pertsonekin lankidetzan ari behar dugu.

- o Familiarekin noiz bilduko garen erabaki behar dugu, sortzen diren aurrerapenak edo eta arazoak eztabaidatzeko.
- o Haurrekin lanean dabiltzan profesionalekin, hots, tutorearekin, laguntzako irakasleekin, aholkulariarekin eta abarrekin lankidetzan aritu behar dugu, laneko planaren nahiz curriculum-egokitzapenaren gaineko erabakiak hartzeko, etab.

**✍ Gehiago jakin nahi
izanez gero**

* GARAIGORDOBIL, M. (1992). Juego cooperativo y socializado en el aula. Madril. Seco-Olea.

* MAJOR, S; WALSH, M.(1983). Actividades para niños con problemas de aprendizaje. Bartzelona. CEAC.

3. Haur Autistak

✓ Ezaugarriak

- * Garapenean gertatu ohi den nahaste larria da autismoa; hona hemen nahaste horren ezaugarriak: jokabidean, gizarte-komunikazioan eta ezagutzazko garapenean alterazio handiak ageri dira, guztiak batera ageri ere.
- * Sarritan, haur autistek burutiko atzerapena ere izan ohi dute, eta elkarren artean guztiz desberdinak izan arren, guztiak eragozpen ikaragarriak izaten dituzte ikasteko eta harremanak izateko.
- * Batzuei gehiago eta besteei gutxiago, mila haurretatik bati eragiten dio nahaste honek, garunaren garapenarekin zerikusia duten eritasunak izanik horren iturburua.
- * Haur autistek ez dute gizartea ulertzen, nekez izaten dituzte harreman afektiboak beste pertsonekin. Oro har, ez dakite besteak zer pentsatzen duen edo zer sentitzen duen eta, horrexegatik, ez dute besteekiko harremanik edo elkarreraginik.
- * Interes mugatuak izaten dituzte; are, beti interes berberak izaten dituzte, mugimendu errepikakorrek burutzen dituzte beti, ez dira jolasten eta ez dute irudimenezko ihardueretan parte hartzen.
- * Eragozpen handiak dituzte komunikatzeko eta mintzamena nahiz keinuak erabiltzeko. Hitzegiteko gai direnek estereotipia ugari erabiltzen dute eta hizkuntza ez dute emozioak eta ideiak aditzera emateko ia erabiltzen.
- * Laguntza egokia emanez gero, aurrerapenak lortzen dituzte nagusi bilakatu ahala, baina gehienek bizi-maila hobetzeko laguntza eta zerbitzu bereziak behar izaten dituzte.

✌ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

- * Hitzeko komunikazioari edo gizarte-komunikazioari dagozkien gaitasunak ezinbestekoak ez diren iharduerak atsegin zaizkie, hala nola, parekatzea, elkartzea, manipulatzeko eta eraikitzea, besteak beste.
- * Haur autista batzuek zenbait trebetasun dute, hau da, irakurtzeko eta idazteko gai dira, zenbaki-alorreko trebetasunak dituzte, oroimen mekanikoa, etab.
- * Haur autista gehienetzat, oso atsegingarria da musika. Hori horrela, iharduera hori guztiz baliagarria izan daiteke eskolan erabiltzeko eta espazioa eta denbora egituratzeko laguntza gisa.

*** Zer-nolako eragozpenak dituzte?**

- * Haur autistek, gizarte-garapenerako eta komunikaziorako gaitasunik ez dutenez, eragozpenak dituzte imitatze, besteek pentsatzen dutena ulertzeko eta inguruneko gizarte-arauak ulertzeko.
- * Komunikazioa eskasa izanik, komunikaziorako gaitasun-maila altua eskatzen duten ihardueretan errendimendua txikiagoa da.
- * Nekez burutzen dituzte jolas sinbolikoak, egoerak imajinatu eta rol desberdinak hartu behar baitituzte.
- * Jokabide-arazoak izan ditzakete, batik bat ingurunea ulertzeko gizarte-gaitasunik ez dutelako eta oinarrizko autonomi azturak (elikadura, esfintereen kontrola, etab.) berandu eskuratzen dituztelako.
- * Denbora antolatze eta inguruneko hizkuntz klabeak ulertzeko eragozpenak dituzte; halaber, gertakariak iragartzeko, besteen emozioak eta adierazpenak ulertzeko, eta abarrerako arazoak ere badituzte.
- * Beste pertsona bati kasu egiteko eta elkarreraginak burutzeko, elkarrekin objektu bati begiratzeko, gauza bat atsegin zaien ala ez adierazteko eta abarrerako eragozpenak dituzte.

‡ Nola lagun diezaiekegu?

- * Ikasgela arruntean laguntzak eman behar dizkiegu.
 - o Ikasgelan behar diren aldaketa eta egokitzapen guztiak egin behar ditugu, bertatik arazorik gabe ibiltzeko jarraipide, gako eta informazioak azaldu behar dizkiegu, alegia. Esate baterako, txoko bakoitza zertarako den adierazteko, sinboloak, iharduereen argazkiak, etab. erabiltzea komeni da, denbora adierazteko, berriz, grafikoak, etab.
 - o Egunean zehar burutu beharreko iharduereen denbora-sekuentziak ahalik eta garbien adierazi behar dizkiegu, argazkiak edo marrazkiak erabilia, adibidez.
- * Ondoko arloak gehiago landu behar ditugu:
 - o Oinarrizko autonomi azturak: elikadura, garbitasuna, esfintereen kontrola,... integrazioa bultzatzeko eta aztura horiek ez izateak eragin ditzakeen jokabide-arazoak saihesteko.
 - o Eginkizunak burutzen ari direla kontzentratzen ikasteko, iharduera laburrak, ongi egituratuak eta argiak proposatu behar zaizkie.

- o Objektuak behar bezala erabiltzen eta arakatzen lagundu behar zaie.

*Beste pertsona batekin batera zerbaiti arreta jartzeko aukerak indartu behar ditugu.

- o Haurrei atsegin zaizkien elkarreraginezko jolasak proposatuz: ku-ku, zerbait izkutatu eta bilatzea, zerbait falta da, non dago?, panpinei jaten ematea, etab.
- o Laminak, objektuak, marrazkiak, mugitzen diren jostailuak, musikadun jostaluak, etab. erakutsiz eta elkarrekin behatuz.
- o Ekintzak imitatzeke abestiak eta jolasak proposatuz.

* Ingurunearen ulermena eta gizarte-erantzunak hobetzen saiatu behar dugu.


- o Nola komunikatzen den, noiz, zein egoeratan, norekin, etab. behatu beharra dago. Hitzezko komunikaziorik ez badute ere, edozein komunikazio-jokabidez baliatu behar dugu, bultzatzeko eta erabilgarri nahiz funtzional bilakatzeko. 5. Eraskinean komunikazioa behatzeko eskala baten berri dator.
- o Ahal den neurrian, ingurune koherentea aurkeztu behar diegu, ingurune ordenatua, eta egituratua, non aurrikus ditzaketen gauzak gertatzen diren, errutinaz jositako ingurunea, azken batean. Egoki iruditzen zaigunean estrategia hori bertan behera utzi behar dugu komunikazioa bultzatzeko asmoz.

* Ondoko esku-hartzerako eta laguntzarako jarraipide hauek kontuan hartuta:

- o Iharduerak, denbora, espazioa eta materialak egituratzeko orduan kontuan izan behar dugu gertatuko dena aurrikusteko modua eman behar diegula.
- o Emozioak argi eta garbi adierazi behar ditugu, ongi uler daitezten.
- o Emozioak eta adierazpenak puztu egin behar ditugu.
- o Imitazioa landu behar dugu.
- o Gehiegi hitzegitea saihestu behar dugu, haurra ez nahasteko.
- o Hizkera ulertterraza eta egokia erabili behar dugu, haurrek guk dioguna ulertzeko.
- o Gertakari gertatu berriak, gertakizun zehatzak aipatu behar ditugu eta objektu batez aritzerakoan, aurrean dugula ziurtatu.
- o Ikusizko edo eta entzunezko laguntzak erabili behar ditugu: musika, txirrinak, etab., mezuak hobe ulertu ahal izateko.

* Familiarekin eta haurren heziketan parte hartzen duten pertsonekin koordinatuta egon behar dugu.

o Komenigarria izan daiteke eskolan eta etxean jazotako gertakarien berri biltzeko "koaderno" bat izatea. Era berean, familiarekin noiz bilduko garen erabaki behar dugu, haurren aurrerapenak edo eragozpenak eztabaidatzeko asmoz, eta azkenik, haur autistekin lan egiten duten profesional guztiekin, hau da, tutorearekin, laguntzako irakasleekin, aholkulariekin eta abarrekin lankidetzan aritu, laneko planen, curriculum-egokitzapenen eta abarren gaineko erabakiak hartzeko.

 **Gehiago jakin nahi izanez gero**

* ZENBAIT EGILE. (1992). Autismoa eta Hezkuntza-premia bereziak.(*) IBE/CERE. Gazteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

* FRITH, U. (1991). Autismo: hacia una explicación del enigma. Madril. Alianza Editorial.

* JORDAN, R.; POWEL,S. (1992). Las necesidades curriculares especiales de los niños autistas. Gazteiz. IBE/CERE. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.

* RIVIERE, A. (1990) El desarrollo y la educación del niño autista . Desarrollo psicológico y educación. ZENBAIT EGILE III.Lib 18. Kap. Madril. Alianza Arg.

4. Ikusmen-defizita duten haurrak

✓ Ezaugarriak

- * Ikusmen-defizita edo ambliopia duten hurrek, ikusten duten adin bereko hurren antzeko garapena dute, beti ere ingurunea antzekoa bada eta txiki-txikitatik estimulazioa izan baldin badute.
- * Itsutasunak berez ez du inolako arazo intelektualik edo heldutasun-eragozpenik sortzen; dena den, ezaugarri bereziak izaten ditu ikusmen-defiziten bat duten hurren garapenak eta, ondorioz, haur horien premiei erantzun behar zaie.
- * Munduari buruzko ezagutzak eta esperientziak ingurunearekin harremanak izateko moduak baldintzatzen ditu. Esperientziak hitzezkoak, entzumenezkoak, ukimenezkoak eta usaimenezkoak izan ohi dira, eta ingurunearen errepresentazio mentala ikusten duten hurrek dutenaz guztiz bestelakoa.
- * Ikusizko estimulazio-ezaren eraginez, lasaiegiak eta geldoegiak izatea gerta daiteke, haientzat ez baita esistitzen gorputzaren bidez sentitu ezin dezaketena. Gauzak horrela, bitartekari-lanak egin behar ditugu ingurunea eta ikusmen-defizita duten hurrek harremanetan jartzeko, mugimendu estereotipatuak, ekolaliak, etab. saihesteko asmoz.
- * Horrelako arazoren bat duen haur ugarik zertxobait ikusten du oraindik. Ikusmen-aztarna horretaz baliatzeko, beraz, zentzumenak eragiteko modalitate bat baino gehiago erabili beharko dugu, estimulatze eta motibatze.

☞ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

- * Beste edozein hurrek bezalatsu, hobe burutu ditzaketen iharduerak nahiago dituzte, horiei erantzuteko mekanismo egokiak dituztelako edo.
- * Ukimena izugarri garatu dezakete, ukitze soilez, objektuen ezaugarriez jabetzeko eta identifikatzeko gai izan arte.
- * Entzumenak eskaintzen die ikusmenak ukatzen diena. Egoki landuz gero, hainbat gauza lortzeko bidea emango die zentzumen horrek.
- * Hobe moldatzen dira arreta jarri eta ingurune gako nahiz seinaleak antzemateko ihardueretan.

* Haur txikien kasuan, entzumenari esker ohartemandako mezuak ukimenaren bidez osatu behar dira, horrela, pertzepzio-bide biak erabilia, objektuak antzemateko, espazioan kokatzeko eta non dauden jakiteko modua baitute haurrek. Soinuak lagungarriak dira aldeaz aurretik ukimenezko kontaktua izanez gero.

*** Zer-nolako eragozpenak dituzte?**

* Objektu bat zein espaziotan kokatzen den jabetzeko, ikusten duten haurrek baino eragozpen handiagoak dituzte, ukimenaren eta entzumenaren laguntza besterik ez baitute.

* Mugimenari dagokionez, nolabaiteko atzerapenak izan ditzakete arakatzera eta gertu dituen objektu nahiz pertsonen bila abiatzera bultzatzen ez baditugu, ikusten ez dituztenez ez baitute haiekiko jakinminik.

* Hitzeko gaitasunak ongi garatzen diren arren, zenbaitetan denbora luzeagoa behar dute inguruko pertsonen eta objektuen ekintzak deskribatzeko.

* Kode grafikoak direla medio bildutako informazioak eskuratzeko, lantzeko eta errepresentatzeko eragozpenak dituzte; ikusmen-aztarnak aprobetxatzen saiatu behar dugu eta ikusizko informazioaren ordean, entzumenezkoa edo ukimenezkoa eskaini.

*** Nola lagun diezaiekegu?**

* Zertxobait ikusten badute, ikusmen-aztarnak baliatzen direla ziurtatuz eta objektuak arakatzera bultzatuz.

* Behar den guztietan, kode alternatiboak eskainiz, inguruneak kulturari buruz emandako informazioa eskuratu ahal izateko, irakur-idazmena, irudiak, eta horrelakoak ez baitira nahikoak egokituta edo handituta egon ezean.


* Ukimena eta gaitasun psikomotorea erabiltzera bultzatuz, objektuen munduaz jabetzeko, inguruneko objektuak aurkitzeko eta erabili ahal izateko.

* Nahi dituzten gorputzeko atalak erabiltzera bultzatuz eta elkarreraginak izateko aukerak emanez, ingurune fisiko eta sozialarekin esperientzia egokia izateko eta autoestimua areagotzeko.

* Eginkizunak burutzeko denbora luzeagoa emanez.

Ikusmen-aztarnak sortzen dituen garapenaren hainbat alderditan laguntza berezia eman behar diegu:

- o Dimentsioak zabalegiak direlako edo, problema figuratiboak eta espazialak ulertzeko arazoak dituztenean. Horrelakoetan, ukimenak ez die objektu guztia arakatzeko modurik ematen, zati bat besterik ez die erakusten, eta ezin dute objektuaren errepresentazio mentalik eratu.
- o Irakur-idazketa lantzeko asmoz, Braille sistemaren bat erabiltzen badugu, kontuan izan behar dugu ukimena motela eta sekuentziala dela eta informazio konplexu edo figuratiboak lantzeko edo gogora ekartzeko arazoak sor daitezkeela.
- o Ukimenaren bitartez azter daitezkeen materialak erabili behar ditugu.
- o Mugimenezko trebetasunak ahal bait gehien sustatu behar ditugu, ikusmenaz besteko bideak erabili behar dituztela kontuan hartuta.
 - o Zentzumen-modalitate bat baino gehiago erabili behar dugu, informazio-bilketa errazteko eta objektuak, ekintzak eta egoerak errepresentatzeko aukera emateko.

 **Gehiago jakin nahi izanez gero**

* ZENBAIT EGILE (1992). Ikusmen-urritasuna eta hezkuntza-premia bereziak. IBE/CERE. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

* ZENBAIT EGILE. (1989). Intervención educativa con niños de baja visión. Málaga. Junta de Andalucía. Consejería de Educación y Ciencia.

* ROSA, A.; OCHAITA, E. (1993). Psicología de la ceguera. Madrid. Alianza Arg.

5. Entzumen-defizita duten haurrak: gorreria edo hipoakusia

✓ Ezaugarriak

- * Zenbait subjektuk gorreria sakona duela diogunean zera esan nahi dugu, haien entzumena ez dela funtzionala bizitza arrunterako eta ahozko mintzaira eskuratzea eragozten diela.
- * Haur batzuek gorreria postlokutiboa dute, hau da, ahozko mintzaira ezagutu edo hitzegiten ikasi ostean geratu dira gorrak, hori dela eta, ahozko mintzaira garatzeko hizkuntz egiturak berenganatuta daukate jadanik.
- * Hipoakusia terminoaren bidez entzumen-urritasuna adierazten dugu. Hipoakusia duten hurrek, protesia erabilia edo erabili gabe, bizitzan moldatzeko lain entzuten dute. Defizita izanda ere, mintzaira entzumenaren bidez eskura dezakete, baina lexiko arazoak izan ez ezik, eragozpenak dituzte hitzak ahoskatzerakoan edo esaldiak egituratzerakoan. Arazo horiek larriagoak edo arinagoak izan daitezke, hipoakusiaren arabera.

✌ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

- * Eguneroko iharduera guztiak burutu ditzakete, are, gozatu ere egin dezakete iharduera horiek burutzen, baldin eta banan-bana ingurunean gertatzen denari buruzko informazio nahikoa eta egokia ematen badiegu.
- * Entzumena ezinbestekoa ez den iharduera guztietan ongi moldatzen dira.
- * Ikusizko pertzepzioan oinarritutako iharduerak, gorputz-adierazpenean oinarritutakoak, arreta berezia jarri beharrekoak, kanpoko munduaren ikusizko errepresentazioan nahiz errepresentazio grafikoan oinarritzen diren iharduerak atsegin zaizkie, oso trebeak baitira alor horietan.
- * Ukimenaren bidez bibrazioez jabetzeko iharduerak, hala nola, perkusiozko musika-tresnez egindako erritmo-jolasak bereziki atsegin zaizkie, soinua entzuten ez badute ere, bibrazio-mugimenduei esker hauteman egin baitezakete.

* Zer-nolako eragozpenak dituzte?

- * Eragozpen guztiak gorreria-motak eta mailak eta agertu den uneak baldintzatzen ditu, alabaina gorreria edozein motakoa edo mailakoa izanik ere, edozein unetan azalduta ere, eragozpen nagusi bakar bat eragiten du, hots, ahozko mintzaira berez eskuratze eragozpena.

* Oro har, ahozko mintzaira ulertzeko eta adierazteko arazoak dituzte entzumen-defizita duten hurrek eta, ondorioz, mundua ulertzeko arazoak ere badituzte, kultura, hein handi batean behintzat, entzumenaren bitartez gureganatzen baitugu.

* Gertakariei eta erantzunei aurrea hartzeko, kontzeptu abstraktuak sinbolizatu eta eskuratzeko arazoak izan ditzakete, ikustezinak izanik, hizkuntzaren egitura batean oinarritzen dira eta.

✚ Nola lagun diezaiekegu?

* Zertxobait entzuteko gai badira, entzumen-aztarna horietaz baliatuz eta erabiltzen irakatsiz, bakartzeko joera alde batera uzteko.

* Komunikazioa bultzatuz. Horretarako, guztiek ulertzen duten komunikazio-kode amankomun bat erabili behar dugu eta, baita ahozko mintzairaren sistema osagarriak ere, hots, sistema alternatiboak (zeinuen mintzaira) eta aukatitiboak (mintzaira bimodala), kasu bakoitzean erabilgarriak gerta daitezkeen laguntza teknikoak albora utzi gabe, jakina.

* Ahozko mintzaira nolabait birgaitzeko etengabeko laguntza behar dute eta baita laguntza logopedikoa ere.

* Horrelako hurrekin hitzegiten dugunean, ahoskera, adierazpideak, hitzak eta hizkuntzaren egitura zaindu behar ditugu, ahalik eta hizkuntz input egokiena izan dezaten.

* Taldeko gainerako hurrei entzumen-defizitak dituztenei nola hitzegin behar dieten irakatsi behar diegu: zuzenean, ahalik eta keinu adierazgarrienak eginda, edo, bestela, zeinuak erabiliz, mintzaira alternatiboa edo aukatitiboa aukeratu badugu.


* Ikusizko estrategiak erabiliz, haur gorrek komunikatzeko gehien erabiltzen duten bidea ikusizkoa baita.

* Laguntza teknikoak, entzuteko protesiak tartean, oso lagungarriak dira haur gorrentzat. Hori horrela, protesiak erabiltzera animatu behar ditugu, nola zaintzen diren irakatsi behar diegularik.

Ondoko esku-hartzerako jarraipide hauek kontuan hartuta:

- o Egin behar dutenari buruzko azalpenik eman gabe, zer egin behar duten edo zer ulertu behar duten erakutsi egin behar diegu.
- o Hitzegiten dugunean zuzenean begiratzeko modua eman behar diegu, horrenbestez, argiak ematen digula hitzegin behar diegu eta aurpegia nahiz keinuak ongi ikusten dituzten lekuren batean kokatu.

- o Fonema eta hitz ugariren ahoskera ez da antzematen ezpainei begiratuta, hortaz, mintzamenaz gain, keinu esanguratsuak eta gorputz-adierazpena ere erabili behar ditugu.
- o Kontuan izan behar da arreta eta ekintza ez direla aldi berean gertatzen, entzuten duten haurren kasuan bezalatsu. Hori horrela, denbora luzeagoa eman behar zaie ekintza batzuk burutzeko eta zenbait gauza adierazteko.
- o Besteek inolako arazorik gabe ulertzen dituzten inguruneko gertakariak azaltzeko informazio osagarria eman beharko diegu, ondorioak aurrakusten eta beldurrak nahiz mesfidantzak albora uzten lagunduko baitiegu horrela. Adibidez: irtetzeko ordua dela adierazten duen txirrina nahiz musika entzun eta taldeko gainerako kideak aterantz doazenean, zer gertatzen den azaldu behar diogu haur gorrari eta hobe ulertuko duen gakoren bat eman.

 **Gehiago jakin nahi izanez gero**

* MARCHESI, A. (1990). El desarrollo cognitivo y linguístico de los niños sordos Madril. Alianza Arg.

* ZENBAIT EGILE. (1990). Las necesidades educativas del niño con deficiencia auditiva CNREE. Madril. Ministerio de Educación y Ciencia.

6. Mugimen-ezintasuna duten haurrak

✓ Ezaugarriak

- * Mugimen-ezintasunaren iturburu nagusia nahaste konplexu ugari sortzen duten mota askotako disfuntzioak dira. Lesioaren larritasunaren arabera, sortutako unearen arabera eta lesionaturiko gorputz-atalaren arabera dira mugimen-ezintasunak.
- * Oro har, ondokoak dira mugimen-ezintasunaren eragile nagusiak: giharre eta artikulazioetako alterazioak (distrofia), giharre motoreetako eta bizkarrezur-muineko alterazioak (ardatz bifidoa) eta garuneko alterazioak (garun-paralisia).
- * Gehienetan, gorpuzkerari, mugimenduari eta autonomia pertsonalari eragiten diete nahasteak, oreka-arazoak, mugimedu finak egiterakoan halako trakeostasuna, ukimenean alterazioak, esfintereen kontrol-eza, etab. sortzen dituztelarik.
- * Nahasteak larriagoak izanez gero, ibiltzeko, objektuei oratzeko eta hitzegiteko gaitasunak kaltetuta gerta daitezke; are, hitzegiten ikasteko eragozpenak izan ez ezik, hitzegiteko gai ez izatea ere gerta daiteke.
- * Kasu arinetan, bestalde, mugimen-iharduera guztiak burutu daitezke, disfuntzio txiki batzuk ageri direlarik.

☞ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi

- * Mugimen-ezintasuna duten haurren kasuan, garrantzitsua da oso besteekin batera heziak izateko aukera izatea, hots, giro normalizatu batean jolastu, ikasi eta bizitzea.
- * Kasu askotan mugimen-ezintasuna duten haurren gaitasun intelektualak guztiz normalak dira eta nahiko ongi uler dezakete hizkuntza eta baita haien inguruan gertatzen dena, zerbait aditzera emateko orduan edo modu ulergarrian adierazterakoan arazoak izan arren.
- * Eginkizunak era egokian aurkeztu eta ongi egin ditzaketenean, guztiz erreakzio positiboa izaten dute lortutako arrakasten aurrean.
- * Jolasetan parte hartu eta gozatu dezakete eta harremanak izan ditzakete ikaskideekin, giro mugatuan ez badaude eta elkarreragin aberasgarri ugari burutzeko aukera ematen bazaie, batik bat.

*** Zer-nolako eragozpenak dituzte?**

* Nekez kontrolatzen dituzte mugimenduak eta gorpuzkera, eta nekezak egiten zaizkie, halaber, motrizitate fina lantzeko iharduerak.

* Sarritan, ezin dituzte giharreak lasaitu, ez eta atsedenean daudenean ere. Hori horrela, ahalegin handiak egin behar dituzte edozein mugimendu egiteko.

* Eragozpenak dituzte espazioa antolatzeko eta ekintza bat burutzeko segidan egin behar diren mugimenduen errepresentazio mentala osatzeko.

* Begien mugimendu automatikoak koordinatzeko arazoak ere izan ditzakete; horrelakoetan, irakur-idazketa alorreko ihardueretan kideek baino ikaskuntza-erritmo motelagoa izango dute.

* Halaber, hitzegiteko eragozpenak izan ditzkete, arnasketaren eta organo fonoartikulatorioen koordinazio-akatsen erruz. Mugimen-ezintasun benetan larriak dituzten haurrek ezin dute mintzamina erabili komunikatzeko.

* Mugitu ezin dutenez, askoz ere elkarreragin gutxiago izan ohi dituzte ingurune fisiko eta sozialarekin, arazoak dituzte objektuak manipulatzeko orduan, beste pertsona batzuen laguntzaz gertakari eta objektuetan eragiteko, gizarte-esperientziak elkartrukatzeko, etab.

* Hizkuntz gaitasunik ez duten haurrek eragozpen larriak dituzte irakurtzen ikasteko, hizkuntz aldetiko garapena bete gabe dagoelako oraindik.

* Pertzepziozko eta zentzumenezko esperientzia asko nolabait galazita dituzte eta ezin dituzte espazioaren, denboraren eta objektuen ezaugarrien gaineko oinarritzko kontzeptuak behar bezala eratu.

‡ Nola lagun diezaiekegu?

* Autonomia ahal bait gehien bultzatu behar da, mugimenduak eta gorpuzkera kontrolatzeko bidea emanez. Trebetasun berriak antolatu, garatu eta eskuratzen dituzten heinean lortzen dute kontrol hori.

* Duten iharduteko erritmo motela errespetatu behar dugu eta behar duten denbora utzi, hots, erantzun arte itxaron, egoera alde aurretik eta gure kasa ebazten saiatu gabe.

* Hitzegiteko gai diren haurren hizkuntz ahalmenak erabili eta bultzatu behar ditugu, edukin desberdinak ikasteko modua emateko asmoz, artikulazioan, entonazioan, erritmoan eta abarrean egindako akatsei jaramonik egin gabe.

* Egin ditzaketen mugimenduez ahal bait gehien baliatuz, autonomia pertsonala eta ikaskuntza indartzeko.


* Objektuak, jolasak, irudiak etab. luzatu behar dizkiegu kontingentzi harremanak ezartzeko eta objektuen errepresentazio mentala osatu ahal izateko.

Curriculumerako sarbidea ahalbidetuz:

- o Oztopo arkitektonikoak kendu behar ditugu eta arrapalak edo igogailuak ipini, eraikinean behar diren eskubarandak jarri, ate zabalagoak egin, komunak egokitu, etab., ikastetxean alde batetik bestera inongo arazorik gabe ibili ahal izateko.
- o Ikasgelako altzariak egokitu behar ditugu, mugitzerakoan oztoporik ez izateko eta eroso eseri ahal izateko. Era berean arbelaren edo ispiluaren altuera aldatu behar dugu, eserleku irristagaitzak ipini -ez labantzeko-, aulkiaren bizkaraldea egokitu -inklinazio egokia duten oholak jarrita-, etab.
- o Ikasgelan erabiltzen diren material didaktikoak egokitu behar ditugu, erabilerrazagoak bilakatzeko asmoz; horrenbestez, euskarriak ipini beharko dizkiegu eta material magnetikoak, irristagaitzaik etab. erabili.

Ingurunearekiko komunikazioa bultzatuz:

- o Keinuen bidez, hots, buruaz, eskuez, begiez edo gorputz osoaz intentzionalki eta komunikatzeko asmoz egiten dizkiguten seinale guztiak hartu behar ditugu kontuan.
- o Komunikazio-jokabideak behatu eta aprobeztatu behar ditugu, hala nola, keinuak, begiradak, soinuak etab., esanahien bat emango dien edukinen batez janzteko asmoz. Haurren komunikazioa behatzeko eskala erabil daiteke horretarako. 2. Eraskina.
- o Hitzeko mintzairarik eskuratu ez duten haurren kasuan, sistema alternatiboak erabili behar dira, ingurunearekin komunikatzeko bidea izan dezaten.
- o Diotena ulergaitza bada, komunikazio-sistema auzeratu bat eskaini behar diegu eta erabilgarri gerta dakizkiekeen laguntza teknikoei buruzko erabakiak hartu.

 **Gehiago jakin nahi izanez gero**

* ZENBAIT EGILE. (1992). Eragozpen motorikoak eta Hezkuntza-Premia bereziak. IBE/CERE. Gasteiz. Gizarte gaietarako Lehendakariordetza. Eusko Jaurlaritzak.

* GALLARDO, M» V; SALVADOR,M» L. (1994).
Discapidad motora: Aspectos psicoevolutivos y educativos.
Malaga. Aljibe Arg.

7. Esfintereen kontrollean atzerapenak dituzten haurrak.

✓ Ezaugarriak

- * Esfintereen kontrolaren atzerapenak zenbait arrazoi dela bide gertatzen dira, heldze-erritmo motelagoa izateak autonomi azturak eskuratzeko orduan eragindako erritmo desberdinen erruz, mugimen-urritasunen erruz eta baita gihar-sistemaren anomalien erruz, hala nola, garun-paralisen, ardatz bifidoen, poliometitien eta abarren erruz.
- * Horrelako arazoak dituzten haur batzuei gainerakoei baino zailagoa egiten zaie "ikastea".
- * Zenbait trebetasun eskuratzeko saioetan, esfintereak kontrolatzekoetan, esate baterako, aurrerapenak izan ezik porrotak jasan dituzte, haur gehienekin gertatu ohi denaren kontra.
- * Alor horretako esperientzia txarrak direla-eta, ez dituzte bertako ikaskuntzak burutu nahi edo horiekin zerikusia duten eskakizun berriak bete nahi.
- * Berriak iruditzen zaizkien espazioen aurrean beldurra, ikara edo antsietatea sentitu dezakete.

✌ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

- * Norbaitek seguru sentiaraztea atsegin zaie eta komunera joan behar dutenean laguntza izatea.
- * Hasieran helduen irribarreak, laguntza eta arreta behar dituzte eta, ingurunearekiko harremanetan segurtasun handiagoa duten heinean, baita ikaskideen laguntza ere.
- * Ikaskuntza-egoerara eraman ditzaketan jolasak, abestiak eta maiteen dituzten jostailuak erabiltzea (zintak, pilota, musika edo eta atsegin zaien beste edozein jostailu).

✿ Zer-nolako eragozpenak dituzte?

- * Ez dituzte behar bezain beste menperatzen esfintereen kontrolaren ikaskuntzarekin zerikusia duten oinarrizko autonomi trebetasunak, hau da: janzteko edo garbitzeko orduan arazoak dituzte, espazioez jabetzeko eragozpenak dituzte, ingurunea eta objektuak ez dituzte kontrolatzen, etab.

✚ Nola lagun diezaiekegu?

- * Komunera joateko errutina edo ohiturak indartuz: ordu jakin batean eramatea, leku ezagunen batera, ongi egiten dutenean pozik gaudela erakustea, etab.

*Lehen asteetan, ordutegiak ez dira inolaz ere aldatu behar. Gero, arrakastak lortzen dituzten heinean, komunera joateko epea luzatu daiteke.

*Arian-arian, laguntza emateari utzi behar diogu, segurtasuna, trebetasuna eta autonomia areagotu ahala.

Esfintereak kontrolatzen ikasteko behar diren trebetasunak irakatsiz eta landu araziz:


- o Komunera noiz joan behar duten jakitea.
- o Komunera heldu arte itxaron behar dutela jakitea.
- o Espazioak ezagutzea eta bertan kokatzea: komuna, pasabideak, etab.
- o Prakak eta kuleroak jeistea.
- o Komunean beldurrik gabe eseritzea.
- o Komuneko papera behar bezala erabiltzea.
- o Kuleroak edo prakak igotzea.
- o Katetik tira egin behar dutela jakitea.
- o Eskuak garbitzea eta lehortzea.

Iraizpen-jokabidearen berri izateko erregistro bat betez:

Zenbait kasutan, komenigarria izaten da haurrek txisa eta kaka zenbatetan egiten duten apuntatzea, bi astebetez edo, esfintereen kontrolerako ordutegi moduko bat ezartzeko asmoz. (Ikus 4. Eraskineko erregistro-ereduak).

Komunera joateko ordutegi bat planifikatuz:

- o Haurrek ohitura erregularra edo eta antzemateraza baldin badute, normalean komunera joateko gogoia noiz izaten duten jakinaren gainean egonda, komunera joateko ordua apur bat aurreratzea (15 minutu) komeni da.
- o Ohitura erregularrik ez badute, berriz, komunera estrainekoz joateko ordua kontrolari ekin baino 15 minutu lehenago ezarri beharko litzateke. Hortik aurrera, ordubete t'erdi edo bi orduro joatea komeni da.

 **Gehiago jakin
nahi izanez gero**

* AZRIN ETA FOX. (1979). El control de esfínteres. Bartzelona. Fontanella Arg.

* BAKER, B. eta beste zenbait (1980). ¿Cómo enseñar a mi hijo el control diurno de los esfínteres? . Madril. Pablo del Rio Arg.

8. Gutxiengo etnikoetako edo baztertutako kulturetako haurrak

✓ Ezaugarriak

* Gizarteak baztertutako kulturaren batean hazitako haurren gizarte, famili eta kultur ingurunea gainontzeko haurren inguruneaz bestelakoa da.

* Haur horien famili inguruneke baloreak eta kultura ez datoz bat eskola-ingurunean nagusi direnekin, eta euren azturak, baloreak eta ohiturak guztiz desberdinak izan ohi dira gainerako ikaskideenekin alderatuta.

* Euren sorterritik kanpo eta euren kultura nahiz famili-ingurunetik aldentuta bizi direnez, haur batzuek eta euren familiek erroak galdurik ikusten dute beren burua.

Sentimendu horren ondorioz, hain zuzen ere, egoera benetan lazarriak bizi dituzte maiz.

* Zenbaitetan, bazterkeriaren erruz, hala-holako bizi-baldintzak izan ohi dituzte: etxebizitza kaskarretan bizi dira, gurasoak langabezian daudela, elikadura ere eskasa delarik, eta, sarritan, familiaren egitura hankaz gora dagoela.

Horrelakoetan haur txikiek, behar bezain ongi zainduta egon ez ezik, ez dute nortasuna eratzen lagunduko dien ordenarik eta araurik.

✌ Zer atsegin zaie, zer egiten dute ongi?

* Euren kulturetako elementuak aurkitzea, elementu horiekin identifikatu baitaitezke.

* Onartuak izatea eta besteek afektua erakustea, batez ere, eskola mundu arrotza izan daitekeelako haur horientzat, hasieran behintzat.

* Burututako ikaskuntzak eta erdietsitako aurrerapenak dira estimulurik onenak.

* Familiaren eta irakasleen artean harreman estua eta helburu amankomunak daudela ikustea eta une gatazkatsuetan akordioak iristen dituztela jakitea arras garrantzitsua da haur horientzat.

* Batik bat euren interesak, iharduna eta mundu afektiboa jorratzeko iharduerak dituzte gogoko, hala nola, mugitzea eskatzen duten jolasak eta parte hartzeko ahozko iharduerak.

*** Zer-nolako eragozpenak dituzte?**

- * Askotan berandu hasten dira eskolan eta ez dira egunero joaten; hori horrela, desfaseak gertatzen dira ikaskuntzan eta iharduerak burutzeko nahiz eskolako giroan integratzeko eragozpenak sortzen dira.
- * Eskolako arau asko onartzea kostatzen zaie, euren inguruan nagusi diren arauen aldean oso desberdinak direlako: ordutegiak, egutegia, elikadura-arauak, etab.
- * Dituzten alde zurretiko azturak eta eskemak eskolan nagusi direnez bestelakoak dira, eta horregatik eragozpenak dituzte eskolako zenbait egoera egoki ebazteko.
- * Ikaskuntzarekin zerikusia duen aztura ugari, hala nola, arreta jartzea, eserita egotea, txanda heldu arte itxarotea, iharduera kontrolatzea, etab. irakatsi behar zaie, geroko ikaskuntzak ahalbidetzeko asmoz.
- * Zenbait kasutan, eskola dela-eta dituzten igurikapen eta interesak oso sinpleak izaten dira, irakurtzen, idazten eta zenbatzen ikastea nahikoa iruditzen zaie eta ez dute inolako motibaziorik beste gauza batzuk ikasteko.
- * Askotan arazoak dituzte besteen erritmoari jarraitzeko, gorabeheraz jositako eskolaketa baitute, hots, kale ugari egiten dutelako, interes desberdinak edo bestelako alde zurretiko ikaskuntza batzuk dituztelako.

✚ Nola lagun diezaiekegu?

- * Eskolan sartzeko prozesua mailakatuagoa, malguagoa eta, azken batean, egokiagoa izan dadin saiatuz, eskolara moldatzeko denbora luzeagoa beharko dutela aurrakusi behar dugularik.
- * Euren munduari, familiari, etxeari, euren kontuei buruz hitzegiteko aukera ematen dien iharduerak proposatuz; gertatu zaienaren, etxean ospatu dutenaren, atsegin zaienaren eta abarren gainean mintzatzera bultzatuz.

Eskola-ingurunean sartzen lagundu behar diegu.

- o Dituzten interesen berri izaten saiatu behar dugu, haiekin hitzegin eta haien ingurunerekin konektatzen nahiz haurren afektua gureganatzen ahalegindu.
- o Ikasleen arteko elkarrizketak eta elkarreraginak bultzatu ez ezik, irakasle-ikasleen arteko elkarreraginak indartu behar ditugu.
- o Eskolako programazioan haurren jatorrizko kulturako jolasak eta elementuak sartu behar ditugu, hala nola, errefrauek, abestiak, jolasak, etab.


- o Haurren familia, lan-egoera, etxebizitzaren egoera, etab. pertsonalki ezagutu behar dira, haurrak ulertzeko eta interesatzen zaizkien nahiz aurrerapenak erdiesten lagunduko dizkien proposamenak egin ahal izateko.

Ikaskuntzaren aldeko jarrera positiboa bultzatzen saiatu behar dugu.

- o Haurren arauak, kulturak eta bizimoduak duten balioa aitortu behar dugu, eta horiekin bat datozen iharduerak eta jolasak proposatu, aurrera egiten laguntzeko.
- o Partaidetza aktiboa eskatzen duten iharduerak proposatu behar ditugu, hots, ikaskuntza aktiboa indartu, adierazpena eta komunikazioa bultzatzeko lagungarria baita.
- o Helburuak mailakatu, jada egiten dakitena oinarri gisa hartu eta egiten ari direnak zentzua baduela erakutsi behar diegu.
- o Talde-lana eta lankidetzaren sustatu behar ditugu, eta guztiak bata bestearekin elkarreraginak izatera bultzatu, talde txikitan sakabana daitezen saihestuz.
- o Jolas herrikoiak arauak, kontzeptuak etab irakasteko bide apartak dira, astialdirako baliabide ezin hobekak dira gainera.

Ondoko esku-hartzerako eta laguntzarako jarraipide hauek kontuan hartuta:

- o Materialak egokitu behar ditugu eta gutxiengo etnikoetako haurren kulturako pertsonaiak sartu, pertsonaia horiekin identifikatu ahal izateko.
- o Haur bakoitzak eskola-ingurunera eta bertako errutina nahiz eginkizunetara egokitzeko behar duen denbora errespetatu behar dugu.
- o Eskolako eta jantokiko ordutegiak, ospakizunak, urteurrenak, festak, etab antolatzerakoan kontuan izan behar ditugu -ahal den neurrian, bederen- haurren jatorrizko kulturen ezaugarriak eta baloreak.
- o Egindako aurrerapenak baloratu behar ditugu.

 **Gehiago jakin nahi izanez gero**

* DIAZ-AGUADO ETA BARAJA (1993). Interacción educativa y desventaja sociocultural: un modelo de intervención para favorecer la adaptación escolar en contextos inter-étnicos . Madril. CIDE

* Grupo de enseñantes con gitanos ADARRA. (1990) Papel del profesorado de E.G.B. con niños y niñas gitanas. Bilbo. "Cuadernos de Adarra". 30. zk.

9. Tratu txarrak pairatzen dituzten haurrak

✓ Ezaugarriak

- * Haur batek tratu txarrak pairatzen dituela diogu zaindu behar duten pertsonak edo eta erakundeek bortizkeria fisikoa, psikikoa edo sexuala ondorioztat dituzten portaera anomaloak dauzkatenean haurrarekiko edo eta zaintzen ez dutenean nahiz heltze eta garapen-prozesu egokia izateko adinako arreta egiten ez diotenean.
- * Haurrekiko tratu txarrak anitz motakoak dira: zigor fisikoak, sexu-abusuak, afektibotasun-eza, gutxiespen pertsonala, autoestimua ezabatzea, neurri gabeko exigentziak,... Izan ere, tratu txarrek haurraren garapen pertsonalari eragiten diote.
- * Tratu txarrek anitz iturburu dituzte; hona hemen zenbait: guraso edo zaindarien ere txikitzen tratu txarrak pairatu izana, gizarte eta ekonomi aldetiko eragozpen larriak, gehiegizko exigentziak dituzten kultur ereduak, burutiko nahasteak, familian bortizkeriazko egoerak bizi izana,...
- * Haurrei tratu txarrak ematea ez dago lotuta soilik pobrezia eta bazterkeriarekin; aitzitik, kultur eta gizarte-maila orotako haurrek paira ditzakete tratu txarrak, ezaugarri berezi ugariak baitituzte.
- * Pairatzen dituzten haurrentzat, zinezko sufrimendu psikologikoak izan ohi dira tratu txarrak, eta, sarritan, laguntza terapeutikoa eskatzen duten nahaste afektiboak edo eta sintomatologia psikiatrikoak eragiten dituzte.
- * Horrelako arazoak estamentu desberdinen laguntzaz konpondu behar dira, gizarte eta ekonomi alorreko neurri desberdinen menpe baitago konponbidea: etxebizitzaren baldintzak aldatu behar dira, familiako kideren bati edo gehiagori laguntza espezializatua eman, orientatzeko asmoz, etab.
- * Hartu beharreko neurri horien artean, eskolak eginkizun benetan garrantzitsua du, tratu txarrak antzematen, bukatzeko behar diren mekanismo guztiak abiarazten eta baita pairatzen dituzten haurrei euren barne mundua berriz eraikitzen laguntzen ere.

✌ **Zer atsegin zaie,
zer egiten dute ongi**

* Printzipioz, adin bereko gainerako haurrei atsegin zaizkien iharduera berberak dituzte gogoko.

* Helduek emandako afektu, interes eta laguntzari erantzun guztiz positiboa ematen diete. Ongi erantzuten diote, halaber, kideen bitartez bultzatutako gizarte eta ezagutza-alorreko estimulazioari.

*** Zer-nolako eragozpenak dituzte?**

* Tratu txarrak pairatzen dituzten hurrek, bizi diren gizarte-ingurunea edonolakoa izanik ere, ez dute inolako babesik horrelako egoeren aurrean eta laguntza behar dute egoera horiek aldatzeko edo bertatik irtetzeko.

* Tratu txarrak pairatzen dituzten hurrek ezagutza alorreko atzerapenak edo eta atzerapen intelektualak izaten dituzte tratu txarren eraginez (ikaskuntza ebitatiboa, hiperbijilantzia) eta baita famili giro kutsatuaren eta estimulazio-ezaren eraginez ere.

* Eragozpenak dituzte, aldi berean, gizarte-ezagutzen alorrean (elkarreraginetan ez dakite zer den egokiena, ez dute bereizten gaizki dagoena eta ongi dagoena). Enpatia txikia dute, emozioak antzeman eta azaltzeko eragozpenak dituzte, pertsonak gehiegi inguratzeak beldurra ematen die, etab. Arazo horiek guztiek iturburu bakarra dute, hots, zaintza-ereduak gogorrak izan direla haurrerekiko eta besteekiko.

* Besteekin harremanetan hasteko gizarte-trebetasunak ez dira batere egokiak; jokabide agresiboak edo inhibituegiak izaten dituzte eragozpen soziokognitiboen ondorioz.

* Nahaste depresiboen sintomak dituzte: tristura, autoistimu eskasa, babes-falta, inhibizioa, ikaskuntzarekiko apatia, hiperaktibotasuna, arreta-eragozpenak, etab.

✚ Nola lagun diezaiekegu?

* Haur guztiak biltzen dituen eremua da eskola; hori dela eta, haurrengan babes-falta edo tratu txarrak pairatzen dituzten seinaleak goiz antzemateko eta egoera horiei aurrea hartzeko ekimenak abiarazteko leku aproposena ere bada.

Tratu txarrak edo eta abandonu-egoerak goiz somatuz, eta eskolako programen bidez konpontzen saiatuz, horrela bizi diren haurren zuzperketa afektibo eta emozionala eregiteko asmoz.

* Haurren jarrerak, jokabideak, afektibotasuna eta gizarteratzea behatuz, tratu txarrak edo eta abandonua pairatzeko arriskutan daudela erakusten duten seinaleak ote dauden ikusteko.

Gure zonako osasun, gizarte eta hezkuntza-zerbitzuekin koordinatuta egon behar dugu.

* Tratu txarren seinaleak daudenean, Ikastetxeko zuzendaritzari edo eta Eskola-Kontseiluari horren berri eman.

* Nolanahiko ekintzak burutu arren, beti kontuan izan behar dugu haurrak eta bere familiak pribatutasunerako eskubidea dutela.

Eskola-ingurunean sartzen lagundu behar diegu.

- o Ikaskuntza edukin trinkoetan ez egituratzen saiatu behar dugu.
- o Eskolako programetan lehenetsuna eman behar diegu gizarte-hezkuntzaren alorreko helburuei.
- o Haurren interesak hartu behar ditugu kontuan, haurrekin hitzegin eta afektua eman behar diegu.
- o Ikasleen arteko elkarreginak bultzatu behar ditugu, harreman-eredu positiboak eskuratzen laguntzeko.
- o Sentitzen dituzten emozioak aditzera ematera bultzatu behar ditugu ikasleak.
- o Haurraren familia, gurasoen lan-egoera, bizi-baldintzak, etab. ezagutu behar ditugu, haurra bera ulertzeko eta bere interesekin bat datozen eta aurrera egiten lagunduko dioten proposamenak egiteko modua izango baitugu horrela.

Honako esku-hartzerako eta laguntzarako jarraipideak kontuan hartuta:

- o Haurrarekin ezarritako erlazio pertsonalaren bidez harremanak izateko eredu positibo bat eskainiko diogu, egonkortasun afektiboa emango diogularik nolabait.
- o Ikaskuntzaren aldeko jarrera bultzatu behar dugu.
- o Partaidetza aktiboa eskatzen duten iharduerak proposatu behar dizkiegu, adierazpena eta komunikatzeko gaitasuna bultzatzeko egokiak baitira.
- o Talde-lana eta elkarrekin indartu behar ditugu, haurrak bakartzea saihesteko.
- o Jarrerazko edukinez baliatu behar dugu, euren eskubideak ezagutarazteko eta babesteko.
- o Erdien dituzten eragozpenak baloratu behar ditugu.

 **Gehiago jakin nahi
izanez gero**

* ARRUABARRENA, M.I., DE PAUL, J. (1994) Maltrato a los niños en la familia: evaluación y tratamiento. Madril. Ediciones Pirámide.

* LOBO, E. (1989). La protección de los niños y niñas en situación de riesgo. Comunidad de Madrid. Consejería de Educación. Dirección General de Educación.

* MARTINEZ ROIG, A.; DE PAUL, J. (1993) Maltrato y abandono en la infancia. Bartzelona. Martinez Roca Arg.

10. Hezkuntza-premia bereziak dituen haur baten familia

✓ Ezaugarriak

* Hezkuntza-premia bereziak dituen seme-alabaren baten jaiotza guztiz ustegabeko gertakaria da familarentzat, ulertu eta onartu beharreko gertakaria, eta horretarako denbora, laguntza eta informazioa behar du.

* Hezkuntza-premia bereziak dituen seme-alabaren bat duten familiek zalantzak izan ditzakete noizbait, are, egoera ukatzera hel daitezke. Une horietan informazioa luzatuz gero, seme-alabaren arazoei konponbideren bat bilatzeko jarrera aktiboa eta profesionalekin nahiz zerbitzuekin lankidetzan aritzeko joera bultzatuko ditugu.

* Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren gurasoentzat oso garrantzitsua da seme-alabek ere besteek egiten dituzten gauza berak egitea, eskola berean eta ingurune berean.

* Hezkuntza-premia bereziak dituen haurren bat duten familiek seme-alabaren ikaskuntza-prozesuaren hobekuntza-lanetan parte hartu nahi dute eskolarekin batera.

👉 Zer behar dute?

* Seme-alabek ongi egin ditzaketaren berri izan behar dute, haurren garapeneko alderdi positiboen eta horien aurrerapenen jakitun izan behar dute.

* Eskolan seme-alabekin burututako lanari buruzko informazioa izan behar dute gurasoek, lehenbizi zer ikasi behar duten eta erdietsitako aurrerapenak azaldu behar zaizkielarik.

* Seme-alabaren aurrerapenei buruz hitzegiteko prest egon gaitzen eta horretarako abagaduneak eskin diezazkiegun behar dute.

* Izugarri kezkatzen ditu seme-alabei eskolan egindako harrerak eta garrantzi handia ematen diote integrazteko erari, arreta egokia izateari eta haien premiak asetzeko modua jartzeari, besteak beste.

* Beste familia batzuekin, autolaguntzako taldeekin edo eta arazo berberak dituzten Gurasoen Elkartekin harremanak izatea komeni da, denek guztiei eragiten dizkieten arazo amankomun batzuk konpontzea baitute helburu.

❖ Zer-nolako eragozpenak dituzte?

* Seme-alaba elbarrituak dituzten familiak tentsiopean bizi dira eta ikaragarri kezkatzen ditu haurrak eskolara hasteko uneak.

* Seme-alabak eskolan hastearekin batera, haurren hezkuntza-premiei buru egin beharrean aurkitzen dira gurasoak, momentu horretan somatzen baitira ongi haurren defiziten ondorioak. Une horretan eskolak informazio eta orientabide egokiak eta iharduteko nahiz seme-alaben eskola-prozesuaren jarraiketarako plan bat eskaini behar die eskolak.

* Seme-alabaren defizitari aurre egiteko (hau da, ez dela ibiliko, ez duela entzungo aitortzeko) eta mugak dituela onartzeko denbora-epe jakin bat beharko dute gurasoek hasieran, eta guk errespetatu egin behar dugu denbora hori.

* Familiek ere premiak dituzte, denbora igaro ahala aldatzen diren premiak, hain zuzen. Horrexegatik, haur elbarrituari laguntzen ari diren pertsonak momentu jakin batean familiek izan ditzaketan premia horiek kontuan izan behar dituzte uneoro.

✚ **Nola lagun diezaiekegu?**

* Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren familiek laguntza behar dute une batean edo bestean; are, familia batzuek besteek baino laguntza handiagoa behar dute.

* Seme-alabaren premiei buruzko informazioa eman behar diegu, beraz, eta lortutako aurrerapenei buruzkoa. Laguntza duten familiek hobe ezagutzen eta onartzen dituzte seme-alabak eta, ondorioz, ez dira estu eta larri sentitzen, aitzitik, askoz ere jarrera positiboa hartzen dute seme-alabekiko eta eskola-ingurunearekiko.


* Ikastetxean burutuko den laneko plana aurkeztu behar zaie, eta, arestian esandakoari jarraiki, eurekin lankidetzan aritu.

* Familientzat guztiz positiboa izan daiteke antzeko arazoak dituzten beste familia batzuekin harremanetan egoteko aukera edukitzea, beste zenbaitek ere antzeko eragozpenak dituela jakitea benetako aringarria izan baitaiteke.

* Laguntzako zerbitzuei buruzko informazioa izatea komeni da. Zerbitzuen berri ez badute, tutorearengana jotzea litzateke komenigarriena, tutoreak emango baitie beste profesionalek (aholkulariak, laguntzako irakasleak, zonako Pedagogi Aholkutegiko Talde Multiprofesionalak, pertsona urrituentzako arreta-zerbitzuek, etab.) burutzen dituzten eginkizunen gaineko informazioa.

Ondoko esku-hartzerako eta lankidetzarako jarraipide hauek kontuan hartuta:

- o Familiarekin eta haurren heziketan parte hartzen duten pertsona guztiakin koordinatuta egon behar dugu. Bilerak noiz izango diren eta zeri buruz hiztegingo dugun erabaki behar da, hots, eskolako bilakaeraren jarraiketa egingo ote dugun ala haurren bilakaeraren alderdi zehatz bat aztertuko ote dugun, hala nola autonomi azturak, etab.
- o Familian eta eskolan "gertakarien berri biltzeko koaderno" bat betetzea komenigarria izan daiteke, eguneko edo asteko gorabehera esanguratsuenen berri jasotzeko. Koaderno horiek bileretan azter daitezke, gertatutako aurrerapenak nahiz eragozpenak eztabaidatzeko.
- o Hezkuntza-premia bereziak dituzten hurrekin lanean ari diren profesional guztiek lankidetzan aritu behar dute: tutoreak, laguntzako irakasleak, aholkulariak, Talde Multiprofesionalak, etab., guztien artean erabaki behar dutelarik laneko plana edo kasuan-kasuko curriculum-egokitzapena.
- o Hezkuntza-premia bereziak dituzten haurren familiei ikastetxeak burututako hezkuntza-kudeaketan parte hartzeko aukera eman behar zaie, ikastetxeko bertako partaidetza-organoetan aritzeko aukera eman behar zaie, alegia, Eskola-Kontseiluan, Gurasoen Elkartean, eta abarretan aritzekoa.
- o Eskola eta familiaren arteko lankidetzak ez du kontraesanik sortu behar eskolaren eta familiaren berezko rolen artean; dena den, familiarentzat ulerkorrak eta motibatzaileak diren eginkizunak aurrikusi behar dira bertan. Alde horretatik benetan lagungarria izan daiteke Gurasoentzako Eskola gisako bat sortzea, seme-alaben integrazioak eragindako arazoei buruzko hitzaldiak, astialdirako proposamenak, etab. eskaintzeko asmoz.

 **Gehiako jakin nahi izanez gero**

* MARTOS, J. (1984). Los padres también educan: guía práctica. Madril. Asociación de Padres de Niños Autistas. APNA.

* BAKER, B. eta beste zenbait (1980). ¿Cómo enseñar a mi hijo?. Madril. Pablo del Rio Arg.

* IBE/CERE. (1992). Recursos comunitarios para la integración. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

V. ERANSKINAK

1. Eranskina. Haur-Hezkuntzako Bigarren Zikloko Curriculum-Egokitzapen Indibidual baten adibide gisakoa.

2. *Eranskina.* Haur-Hezkuntzan komunikazio-gaitasunak eta gizarte-gaitasunak behatzeko eskala.

HAUR-HEZKUNTZAN KOMUNIKAZIOA BEHATZEKO ESKALA

Mc Shane-k (1980), Donellan-ek eta beste zenbaitek (1984) egindako eskalen egokitzapena, Bizkaia eta Arabako GNO. Programaren Arduradunek egina.

Ondoko eskala Mc. Shane-k (1980); Donellan-ek eta beste zenbaitek (1984) haur autisten edo eta komunikazioaren garapenari eragiten dizkioten bestelako arazoak dituzten haurren komunikazio-gaitasunak ebaluatzeko asmoz egindako komunikazioaren funtzio pragmatikoen eskalen egokitzapen bat da. Egokitzapen hau Bizkaiko eta Arabako Pedagogi Aholkutebietako Talde Multiprofesionalak Garapeneko Nahaste Orokorrei buruzko Programaren arduradunek egin dute, 1993-1994. ikasturtean zehar, ebaluaziorako tresna hori eskola-eremu arruntan erabili ahal izateko, hain zuzen ere.

ESKALA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Garapeneko nahaste orokorrek, autismoak edo eta komunikazioari eragiten dion atzerapen orokorren batek eragindako komunikazio eta gizarte-gaitasun alorreko atzerapen larriak dituzten Haur-Hezkuntzako neska-mutilak nola komunikatzen diren behatzeko pentsatuta dago honako eskala hau.

Komunikazioan hitzeko elementuak sartu ez ezik, hala nola, hitzak, esaldiak, ahoskerak, soinuak, etab., hitzekoez besteko elementu batzuek ere parte hartzen dute, keinuek, begiradek, hurbilketa fisikoak eta argibideek, besteak beste. Komunikatzeko eta besteek diotena ulertzeko arazoak dituzten haurrek adierazpide biak erabil ditzakete edo, bestela, hitzekoez besteko bideak soilik erabili. Izan ere, guztiz normala da bigarren kasua komunikatzeko arazoak daudenean.

Horrexegatik, hain zuzen ere, haur bakoitzak dituen komunikazio-gaitasunen jakinaren gainean egotea komeni da, hobeto nola komunikatzen diren jakitea eta komunikazio-funtzio bakoitza behatzea, hitzekoez kanpoko alderdiei (keinuei, begiradei, seinaleei, jokabideei, testuinguruari eta abarri) erreparatuta eta baita hitzeko alderdiak kontuan hartuta ere (ahoskerak, ekolaliak, hitzak, esaldiak, etab). Alderdi horiek guztiak behatu eta ebaluatzen baldin baditugu, eskolan burutu beharreko lana planifikatzeko jarraipideak izango ditugu eta, komunikazioa eta gizarte-ingurunearen ulermena areagotzeko asmoz, curriculumean behar diren aldaketa guztiak sartzeko modua edukiko.

Eskala honetan oharrak hartzerakoan kontuan izan behar dugu haurrek zer egin dezaketen eta zer ez baina, batik bat, hezkuntza-iharduna planifikatzeko garrantzitsuagoa baita, nola komunikatzen diren eta zer-nolako estrategiak erabiltzen dituzten behatu beharko dugu. Behatu ondoren, datuak dagokien zutabean bildu behar ditugu. Adibidez:

- Komunikatzeko hitzekoez besteko bideak bereziki erabiltzen ote dituzten (1. zutabea).
- Nola komunikatzen diren: begiraden bidez, argibideak emanda, helduak erabiltzen dituzte, etab.
- Hitzeko elementuak soilik erabiltzen ote dituzten (2. zutabea).
- Noiz eta nola komunikatzen diren hobeto.

- Norekin eta zein egoeretan izaten dituzten elkarreraginak arazo gehiegirik gabe.
- Gogoko dituzten zein objektu erabiltzen dituzten elkarreraginak izateko.
- Zein leku atsegin zaizkien: ikasgela, laguntza-gela, jantokia, etab.

KOMUNIKAZIO-FUNTZIOAK	HITZEZKOAZ BESTEKO komunikazioa	HITZEZKO komunikazioa
<div data-bbox="225 416 655 506" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> IMITATU imitatzeko gai da </div> <ul style="list-style-type: none"> • keinu sinpleak • beste haurren edo helduen ekintzak • entzun berri dituen soinuak edo hitzak. • noizbehin entzundako hitzak edo esaldiak <div data-bbox="217 891 652 981" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> AIPATU/IZENDATU ahoskatzeak erabilia, seinalatuta edo eskatutakoa ulertu duela erakutsita </div> <ul style="list-style-type: none"> • objektuak • pertsonak • tokiak • ekintzak • objektuen, pertsonen, tokien, ekintzen argazkiak • objektuen, pertsonen, tokien, ekintzen marrazkiak <div data-bbox="225 1585 652 1675" style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center;"> ESKAKIZUNEI ERANTZUN besteek adierazitako eskakizunei erantzuteko gai da </div> <ul style="list-style-type: none"> • eskatuz gero, objektuak luzatzen ditu • eskatuz gero, ekintza sinpleak burutzen ditu • bestelakoak 		

KOMUNIKAZIO-FUNTZIOAK	HITZEZKOAZ BESTEKO komunikazioa	HITZEZKO komunikazioa
<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-bottom: 10px;"> <p style="text-align: center;">GAUZAK ESKATU nahi duena eskatzen du edo zuznean norbaiti eskatzen dio</p> </div> <ul style="list-style-type: none"> • janaria • objektuak • iharduera jakin bat burutzeko laguntza (ireki, itxi) • jolasetako elkarreraginak (jaten eman, lo egin,...) • ekintzak (nonbaitera joan, kalera irten,...) • afektua 		
<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; margin-bottom: 10px;"> <p style="text-align: center;">ARBUIATU zerbait edo norbait arbuiatzen duela erakusten duten jarrerak ditu</p> </div> <ul style="list-style-type: none"> • objektu jakin bat • Pertsona jakin bat • ohiko egoeraren bat • iharduera jakin batzuk • aldaketak edo berrikuntzak 		

KOMUNIKAZIO-FUNTZIOAK	HITZEZKOAZ BESTEKO komunikazioa	HITZEZKO komunikazioa
<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center; margin-bottom: 10px;"> ERANTZUN erantzuteko gai da </div> <ul style="list-style-type: none"> • pertsona ezagunei: <ul style="list-style-type: none"> - izenez deitzen diotenean - galdera sinpleak egiten dizkiotenean: non, nork, • ezezagunei: <ul style="list-style-type: none"> - izenez deitzen diotenean - galdera sinpleak egiten dizkiotenean, non, nork, 		
<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center; margin-bottom: 10px;"> GALDETU informazioa eskatzeko gai da </div> <ul style="list-style-type: none"> • nor da?, nor dator?, nork dauka? • non dago?, (behar duen zer bait) • bestelakoak 		
<div style="border: 1px solid black; padding: 5px; text-align: center; margin-bottom: 10px;"> EMOZIOAK ADIERAZI nolabait, emozioak adierazten ditu </div> <ul style="list-style-type: none"> • poza • tristura • beldurra. • nahigabea • ustekabea 		

3. Eranskina HAIZEA-LLEVANT garapen-taularen erregistro-orria.

Haizea garapen-taularen datuak biltzeko orria, 0tik 6 urtera bitarteko haurrekin erabiltzeko.

Haizea-Llevant eskala. Hezkuntza, Osasun eta Lan Saila. (1992).

4. Eranskina Esfintereen kontrolerako erregistro-orria.

BRUCE-k, L. BAKER-ek eta beste zenbaitek (1989). aurkeztutako erregistro-ereduaren egokitzapena. "*Como enseñar a mi hijo el control diurno de los esfínteres: una serie para enseñar las habilidades básicas a niños con necesidades especiales*" Madril: Pablo del Rio.

ESFINTEREEN KONTROLEAN TREBATZEKO ERREGISTRO-ORRIA

IZENA:

HASIERA-DATA:

Ordua	Astelehena		Asteartea		Asteazkena		Osteguna		Ostirala	
	Kuleroak	Komuna	Kuleroak	Komuna	Kuleroak	Komuna	Kuleroak	Komuna	Kuleroak	Komuna
10:00										
11:00										
12:00										
13:00										
14:00										
15:00										
16:00										
17:00										

Ordu bakoitzean komunera noiz eraman dugun, edo txisa egin duela pentsatu badugu, txisa egin ote duen edo egin ez duen, eta heste-mugimenduren bat izan ote duen jaso behar dugu dagokion zutabeetan. Apuntatzeko ondoko grafiak erabiliko ditugu:

- L haurra Lehorra badago.
- T Txisa egin badu kulero edo praketan.
- HM Heste-mugimendu baten erruz kaka egin badu.
- T/HM Gauza biak gertatu badira.

5. Eranskina. Familiarekin estraineko elkarrizketa prestatzeko eredua.

Proposatutako ereduan Haur-Hezkuntzan hasten diren haurren gurasoekin egindako estraineko bileretan eztabaida daitekeen zenbait alderdiren berri ageri da. Ez da inolaz ere eredu itxia, aitzitik, hasierako elkarrizketetan kontuan izatea komeni den gaiak eta alderdiak biltzen dituen gida gisakoa besterik ez da.

FAMILIAREKIN ESTRAINENKO ELKARRIZKETA PRESTATZEKO EREDUA

Haurraren datu pertsonalak:

- Izen-Deiturak
- Jaioteguna
- Jaioterria
- Helbidea eta telefonoa
- Etxean telefonorik ez badute edo gurasoek kanpoan lan egiten badute, harremanetarako telefono zk.

Familiari buruzko datuak:

- Aitaren eta amaren izenak
- Bien lanbideak
- Anai-arrebak
- Zenbatgarrena den
- Familiarekin bizi diren pertsonak edo haurra zaintzen duten pertsonak
- Aitaren eta amaren hizkuntza
- Etxean hitzegiten duten hizkuntza

Eskolatzeari buruzko datuak:

- Aurretiazko eskolatzea (izanez gero)
- Haurtzaindegian izan ote den
- Izan bada, nola egokitu zen
- Egun nola moldatzen den: pozik dator eskolara, etxetik ateratzea kostatzen zaio, jantokian geratzea edo autobusez joatea kostatzen zaio, etab.

Garapen pertsonalari buruzko datuak:

- Osasunari buruzko datu esanguratsuak: izandako eritasunak, ospitaleratzeak, adina
- Noiz hasi zen ibiltzen
- Noiz hasi zen hizketan
- Noiz hasi zen esfintereak kontrolatzen (txisa eta kaka)
- *Jolasaren eta elkarkoitasunaren garapena:* etxean jolasten ote duen, nola jolasten duen, zerekin jolasten den, jolasteko tokirik ba ote duen, telebista ikusten ote duen, zein programa ikusten duen eta zenbat denboraz, norekin jolasten den, kasketaldiak izaten ote dituen, anai-arrebekin liskarrak ote dituen
- *Hizkuntzaren garapena:* nola hitzegiten duen, gaizki hitzegiten duen edo ez ote duen hitzegiten, etxean hitzegiten duen, nola adierazten du esan nahi duena, eskola edo gelan gertatutakoak kondatzen ote dituen, galdetu egin behar zaion ala galdetu gabe hitzegiten ote duen
- *Elikadura-azturak:* bakarrik jaten duen, laguntza behar ote duen, zer-nolako portaera duen jateko orduan, apetatsua ote den
- *Garbiketa-azturak:* esfintereak kontrolatzen ote dituen, goizez, gauez, komunera joateko gogo duela adierazten duen, eskuak laguntzarik gabe garbitzen ote dituen, laguntza eskatzen ote dakien
- *Iharduna eta atsedena:* ongi lo egiten ote duen, zenbat orduz lo egiten duen, norekin, ohera joatea kostatzen zaion, sarritan esnatzen ote den, lo egiteko argia piztuta eduki behar ote duen, bakarrik lo egitea kostatzen zaion, amets gaiztoak izaten ote dituen, gauez jaikitzen ote den
- *Familiaren jarrera:* gatazkaren bat izanez gero, zer egiten du familiak?

Nolakoa da egun arrunt bat familian?

Nolakoa da jai egun bat?

Haurrak hezkuntza-premia bereziak baldin baditu:

Haurrak Hezkuntza-Premia Bereziak baditu, arestian aipatutako alderdiez gain, ondokoak jakitea komeni da:

- Gurasoek seme-alabaren arazoak eta premiak direla-eta duten iritzia
- Sendagile eta psikologoek zer-nolako informazioa eman dieten
- Haurrak arreta edo estimulazio goiztiarrik izan ote duen
- Haurraintzen beste zerbitzuren batek lagundu ote dien eta zer gomendatu dien
- Gaur egun eskolaz kanpoko laguntzarik ba ote duten eta, izanez gero, nork laguntzen dion
- Haurrak dituen hezkuntza-premiak
- Beharko dituen hezkuntza-baliabideak
- Eskolan kontuan izan behar den kontrol bereziren bat edo hartu beharreko medikazioaren bat behar ote duen haurrak
- Familia zein eginkizun burutzeko prest dagoen

Nola uste dute koordinatu eta lankidetzan aritu daitezkeela eskola eta familia?

- Ikasurtean zehar egindako bileren bidez
- Etxean burutzeko ikaskuntza txiki batzuk proposatuta
- Noizean behin haurraren aurrepenak aztertuta
- Familiak eta irakasleek behaketak biltzeko koaderno bat beteta eta koaderno hori etengabe aztertuta,...

Noiz egingo da hori ikasurtean zehar?